HARKAITZ CANO

Beluna Jazz

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1996 Harkaitz Cano
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1996ko apirila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Bizitza iraupen-ariketa krudela besterik ez dela gogorarazi zigun Gorkari, edonon dagoela ere, bihotzez.

1
IN THE TRAIN THROUGH YOUR EYES

Nire omenik zinena liburu hau idazten nuen bitartean ilargi usain ustean halogeno-lanparara inguratuta kiskali ziren zomorro guztiei

Blues is you, sweet bees

Trena hartuko nuke (zure begietan) estaziorik balego

Niri interesatzen zaidana beste geografia hori da, barne geografia. Denok garunaren barruan ditugun amapola zelaien geografia, begietan barnako trenena, lantzean behin izozten diren ginebra ibaiak.

Bob

Mugimendua eta gelditasuna. Kosmosa egongela hartan bi gauzak ordezkatzen zuten: beti diskoren bat biran zuen gramola zaharrak batetik, eta lurrean, gramolaren ondoan zegoen berunezko hontz txiki hark, bestetik. Ia hutsik zegoen gainerakoan horma horiztatuko egongela estu sabai altukoa. Leihoan, katedral gotiko bat, antezko zapata busti pare bat eta erronbo formako alanbrez hesituriko zubi bat bistatzen ziren. Zapatak leihoan zeuden lehortzen jarrita. Zubi altxagarriak eta katedralak ere zintzilik le-

hortzen jarrita egoteko itxura guztia zuten, han leihoan. Ia edozein zokotik adi zitekeen betun beltzaren usainaren antzeko aire sarkor batek entzungarri egiten zuen kaleetako adokinen distira.

Eta euria egin berritan, hiri hartako kaleei arrain ustelaren usaina zerien, trenbideko trabes paralelo bustiek arrandegietako egurrezko kutxa apurtuez eginak ziruditelako, akaso.

Une hartantxe euririk ari ez bazuen ere, ilunbista hartan, gramolaren orratzak diskoa zauritzean euria egiten zueneko soinu baxu berbera sortzen zuen kantutik kantura dagoen trantsizio isilean. Diskoaren binilozko erretenek bazuten edozeinek bizitzan har ditzakeen basamortu eta hutsarteekin zerikusirik. Iraganaren binilozko eraztun meheak. Lainoek hartua zuten leihoaz bestalde zerua. Kaleetan biraoka arituko ziren honezkero astronomo eta zaletuak, lainajeak ikuskizun txundigarri hura eragotziko zien beldur. Egon ere, belun zegoen giroa kaleratu zenean. Hiriak disko erraldoi eta irregular baten antza hartzen zuen; zorte apur batekin, hiri erdiko kartoi gogorreko zabalgune gorrian, *A* aldean,

diskoaren kanta inprobisatu hainbaten izenburuak ere bereiziko zituen miopiarik ez zuenak. *First Tango In Beluna Moon.* Edo kaleen izenak kurtsibaz idatziak: *Bolivia Auzunea.*

Inork ez zuen zalantzan jartzen: birak eta birak ematen zituen diskoaren itxura hartzen zuen ilunbista hartan hiriak. Bizitzaren aurreko jarrera izan zitekeen gramolaren orratzak diskoarekiko duen berbera: hasierako eraztun bira luze haiek denboraren igaro neketsua adierazten, geroago isiltasun eten pare bat euri arrotzarekin, gero eta laburtzenago doan zurrunbiloaren begira inguratu beharra. Zulo bat euririk gabea. Estolda zulo biribilak. Bizikleta bat putzuak gainezkatzen. Argindar kable bustiek sortzen duten zomorro hilzoriaren gisako ziztua. Orratza altxarazten duen beso bat. *B* aldea. Beluna. Betun beltzaren usaina nonahitik aditzeko modua. Usain entzungarria.

Kaleratu bezain pronto eta autorantz zihoala, Klara Miaok New Yorkeko 52. kaleko klubak arrakasta gehiegirik gabe kopiatu nahi zituzten lokalekin egin zuen topo: *Beluna Moon, Iris Club,* nora ezak beti eramaten zituen hontzak leku

berberetara, nola batzuetan gramolaren orratzari kontrako eztarritik sartzen zaizkion diskoaren zenbait eraztun, hala geratzen zen hiri hartako jendea ere korapilatuta ildo berera, kale berberak behin eta berriz zapaltzera derrigorturik.

Orratzak aurrera egin nahi zuen, baina trabatuta geratzen zen marratutako diskoaren gainean, kontrabaxuaren hariei kateaturik. Berdina gerta dakioke edozeini zenbait kaletara beste aukerarik gabe itzuli behar izaten duenetan, behin eta berriz taldetik atzera geratu eta berriro gomarena eginez sugearen isatsari lotzen zaizkion txirrindularien gisara. Putzuak gainezkatuz. Argindar kable bustiek sortzen duten zomorro hilzoriaren gisako ziztua. Orratza altxarazten duen beso bat. *B* aldea. Beluna.

Bolivia auzunean, beste hainbaten artean bat gehiago zen orain hertsirik zirudien Iris Club izeneko hura. Marrubi usaina duten emakumeak. Eta irisean irakurtzen da etorkizuna. Horregatik jarri zituen betaurreko beltzak, bere begi deblauki txinatartuek sala ez zezaten egitera zihoana.

Irisean irakurtzen da etorkizuna eta Klara Miaoren irisean bi marra gorri paralelo daude,

ezker begiaren zuriunea bertikalean zeharkatzen dutenak, goitik beheraino, begi-niniaren goi eta behe hartuz, bi zain txiki ia ikusezin. Bi marra paralelo horiek izan daitezke bere bizitzan korrika ibili dituen kale hondartuak, edota gramola zaharregi baten orratzak melodia gatibu bat murtxikatu nahian urratutako begiak, edo orga herdoildu batek utzitako arrastoak, edo gorriz idatziriko egunkari kronika letra ttipidunen arteko hutsuneak. Bokal askoz osatutako kronika baten tarteko hutsuneak izan beharko lukete edozein kasutan, lerro itxura gehiago ematen baitute bokalek. Ezker begiko zuringoan dituen bi marra horiek izan daitezke Bolivia auzuneko pentsioko apartamentura igotzeko eskailerak, ezkerraldean garbituak eta eskuinaldean hautseztatuak. Bizilagunek ez zuten besteren lana egiteko astirik hartuko. Ez horixe. Norberak bere eskaileren aldea besterik ez zuen garbitzen Bolivia auzuneko bebarruetan. Hor konpon besteena.

Irisean irakurtzen da etorkizuna eta horregatik jantzi zituen eguzkitarako betaurrekoak. Baina alferrik zen ezkutatu nahi hura, Klara Miaoren samina ezpainen dardaran ere irakur

zezakeen braille metodoa menperatzen zuen edonork, bere hatsa hatzetan sentitze hutsarekin.

Eklipsea gora eta eklipsea behera. Eklipseak hau eta eklipseak bestea. Eklipse zoragarri hartaz mintzo ziren egunkariak. Mende osoan ez omen zen ostera halako eguzki eklipserik ikusteko aukerarik izanen. Baina lainaje harekin, nahikoa lan izanen zuten ezer ikusteko.

«Zer nolako hanka sartzea egin dudan» pentsatu zuen Klarak bere baitarako, «egunkaria billete batekin ordaintzen duena gogoan hartzen du beti saltzaileak».

Baina berripaper saltzaileak ez zion horri erreparatu, eta are gutxiago billeteak ezkerralde zimurtuan lapitzez idatzirik zuen mezu bitxiari:

hirugarrena ez da urdina.

Autoa arrankatu eta autobide hutsean barneratu ahala, gidari-lagunaren aulkian zegoen egunkariaren goiburuei begirada bat bota zien. Lehen orrialdeko argazkian ikusi zuen atxilotu arriskutsuaren begi irekiek, arrazoi azalgaitzen-

gatik, betunaren usaina ekarri zioten usna-ildoetara; ziur tipo hura ere ez zela hain gaiztoa –otu zitzaion–, ziur emazte eta seme-alabak zituela, baina egunkariek gaizkile estereotipatuak nahi dituzte. Ziur atxilotu hura ez zela azken bi asteetan setati bilatzen aritu zirena ere, ziur jendea lasaitzeko zioaz kopetan zentimetro eta erdiko orbain gaiztotua eduki eta ron hatsa ahotik koilarea bailitzan zintzilik zuen lehenengo gizajoa harrapatu zutela.

Pentsioko gramolaren ondoko berunezko hontza ekarri zioten gogora egunkariko aurpegiaren begiek. Gela hutsa. Gramola bat bakarrik egurrezko lurrean. Gramolaren ondoan dago begi urdin-berdeak dituen hontzatxoa. Ez da mugitzen, berunezkoa baita. Baina berunezkoa ez balitz ere, ia ziurtasun osoz eta probabilitatean oinarritu gabe, esan zitekeen ez zatekeela mugituko geldirik egotera destinaturiko hontz hura. Itsu-itsuan sinesten zuen Klarak probabilitate kontuetan, kosmosaren oreka gertagarrian. Zientifikoki frogatuak zituen, gainera, bere teoriak, urteetan zehar. Semaforoa gorri zegoen.

Gidari-lagunaren aulkian zegoen egunkariko titularrei beste zeharbegirada bat eman zien Klarak gogogabe. Nepalen hegazkin bat erori eta ez zuten inondik inora haren arrastorik topatzen. Gai polita zen hegazkinena bere urduritasuna entretenitzeko hiriko semaforo horiztatuetan.

Numeroek, probabilitate kontuek beti funtzionatzen zuten. Klarak beti uste izan zuen abioi konpainiek hegazkin istripuetatik bizirik aterataako jendea kontratatu beharko luketela hegaldien erabateko segurtasuna bermatzeko. Bidaiarien artean hegazkin istripu batetik bizirik ateratako norbait badoa, asko jaisten baitira ezer gertatzeko aukera estatistikoak. Zorte txarra litzateke –esaten zion bere buruari Klarak– garraiobiderik seguruena den horretan istripu bat izatea. Zorte txarra hamaika aldiz biderkatua, hegazkin istripu batetik bizirik atera den batek beste abioi istripu bat izan eta hontzekin elkartu behar izatea. Begi orlegiak dituzten hontzekin. Semaforoa berde. Aurrera.

Pabilioi handietan ez zegoen mugimendu askorik ordu hartan; han-hemen geldirik zeuden petroliontzi izugarriak ibai zabalaren bi ertzetan.

Bada hegazkinen eta probabilitateen erreflexioa eraztun pare bat harago ere eramaten duenik. Klarak, joan zen urtean berripaperetan irakurritakoa errepasatzen zuen bere kabutarako, ibaiak bere zikinkeria itsasora isurtzen zuen puntuan kokaturiko zubi altxagarrian zain. Bere ondoan, bera bezalaxe, ferria zubipetik noiz igaro zain zegoen autoko exekutibo maletadunak eman zien Klararen gogoetei hegazkinetara desbideratzeko aukera oraingoan. Marokon aljeriar bat harrapatu zuten maletan zazpi kilo trilita zeramatzala. Atxilotua izan ostean Poliziari lasai antzean adierazi zionez, ez omen zen hura egiten zuen lehen aldia, ezta gutxiagorik ere; ez ei zeukan abioia leherrarazteko fede txarrik batere, probabilitate kontua besterik ez omen zen bere hura, hegazkin bat hartzen zuenero eramaten zuen lehergailu hura maletan. Izan ere –zioen– terrorista ipar afrikarrek sarri-sarri sartzen dituzte lehergailuak hegazkinetan, baina orain arte sekula gertatu ez dena da abioi berean bi leherkari egokitzea, estatistikoki, eta dauden adina hegazkin (asko) eta lehergailu (gutxiago) egonik, oso zaila delako hau gertatzea. Horrela, norbe-

rak kontrolpean lehergailu bat eramanez gero, arrazoitzen zuen logika paregabea azkenduz trilita eramaileak, zeropekoa zen ia kontroletik at legokeen lehergailu bat hegazkinean egokitzeko aukera. Lasaiago eta ziurrago bidaiatzeko era bat baino ez zen beraz bere hura.

Ferria pasea zen. Emeki-emeki jaisten zen zubia. Bere ondoko autoko gizon maletadunak zigarro bat piztu zuen. Klara Miaok, pospolo hark pizturiko zigarro hura hiria leherraraziko zuen metxa zela imajinatu zuen, ihes egin beharra zegoela, beraz, lehenbailehen handik. Hiriak lehertzera zihoan disko bat ematen zuen bere biniloz-ko eraztun zulatuegiekin. Baina ihesa ez zen itzultzeko modu bat besterik. Diskoa bukatzean hasierako tokira bueltatzen da beti disko-jogailuaren orratza.

Pentsioko gela kosmosarekin parekatzea gustatzen zitzaion. Gramola zahar hura, mugimendua, gaua. Berunezko hontzatxo hura zen zahartzen lagunduko zion gelditasuna. Maleta guztiak batuta utzi zituen arren, hontzatxoa berarekin eramango zuen, poltsikoan, amuletoa bailitzan. Baina horretarako bere eginbeharra

bete behar zuen lehenbizi. Beirate zabaletatik ikusmira argitsua erakusten zuen lokal baten aurrean apartatu zuen autoa. Autotik jaitsi eta lehen paperontzian egunkaria utzi ondoren barneratu zen Belunara.

Beluna Moon zioten kanpoaldeko fluorezko letra orain itzaliek. Barran ez zegoen inor eta kontzertuak ematen zituzteneko oholtza ari ziren konpontzen. Pianoa ez zegoen han. Hobeki esanda, pianoa han egon arren, hilda balego bezala zen Klararentzat, arintasun izugarriz teklak jotzen zituena falta zen-eta. Ez zuen sekula ahaztuko Klarak, Nikolasi bere jotzeko eraren bizipozaren zergatia galdetu zionean honek eman zion erantzuna*:*

– Ez da nire errua, andereño; katu bat dago pianoaren barruan, nik erdia baino ez dut jotzen, katua da lanaren beste erdia egiten duena.

Oholtzari jo eta jo ari ziren arotzak. Jasanezina egiten zitzaion mailuaren hotsa. Ilunpean, argiak amataturik ari ziren oholtza konpontzen. Eserleku guztiak hutsik zeudela, esker onik jasotzen ez zuen clown baten antza hartzen zuen arotzak. Bazuen bai, apurka-apurka burusoil ge-

ratzen diren pailazo horien halako aire bat, margo zuriaren azpian zimurrak sumatzen zaizkion pailazo horietako baten antza. Gogoetak baztertu eta egin beharrekoa mentalki errepasatu zuen berriro, hamaikagarren aldiz. Oraindik hiriaren kanpoaldeko eraztunetara inguratu beharra zeukan, diskoaren eraztun zabalenetara.

Film bateko eszena etorri zitzaion gogora.

– Argi ibil hadi, aixkide, kale hauetan zutunik dabiltzanak itzalak dituk, espaloietako mantxa koipeztatu horiek dituk bertoko biztanleak. Norbaitekin traturik egitekotan, itzalekin egin beharko duk berba.

Azken burutazio honek eta Belunako barraren gainean bata bestearen ondoan lerraturiko bourbon botila erdi hutsek gogora ekarri zioten argia zein garrantzitsua den bizitzeko. Lokala utzi eta gaizki aparkaturik laga zuen autora igo zen berriro, irratia piztu eta periferiarantz abiatzeko. Autoa geldo zihoan orain, kalean gora, pneumatikoak urtu eta betunezko zirkulu astun bihurtu balira legez.

«– Dena dela, eguraldiak apur bat altxatzen ez badu, nekez ikus ahal izango da gauza handi-

rik... Hori bai, behin eta berriz gure entzuleei gogoratu behar dieguna da ez dela eklipsea begi hutsez ikusterik komeni, ez da hala doktorea?

»– Halaxe da bai, erraz uler dezaten esango dugu... arriskutsuak diren izpi batzuk irradiatzen dituela eguzkiak, eta ondorioz zera aholkatzen dugu: hiru dimentsiotan telebista ikusteko erabiltzen diren betaurreko horietako batzuk baliatzea: argi ibili, ordea, ez da nahikoa eguzkitarako betaurrekoekin; nahi izanez gero, erabil daiteke baita ere amonaren aldaka hautsiaren erradiografiaren bat, ja, ja! Bai, bai... ez naiz txantxetan ari, erradiografiak eta plakak ere baliagarriak dira izpi horiek irazi eta begiak babesteko; baina berriro diot, ez da aski eguzkitarako betaurrekoak erabiltzea...

»– Barkatu, doktorea, baina gure entzuleei gogorarazi behar diegu gure saioa Blay Oilarraren sobreko zopek babesten dutela, eta hau, besterik ezin izan noski, Paradiso Irratia dela, zerura irekitako zuen sabai-leihoa dialeko 22.2an, hiru zisneen irratian: 2-2-2...».

Azeleragailua sakatu eta elkarrengana gerturatzen ziren farolen abiada sentitu zuen gibe-

lean. Emakumeen zangoetatik erauzitako media hautsiak eta zakarrak zurrunbilotzen ziren bide ertzetan. Hiriaren kanpoaldea plastiko gardenezko eraztunez zegoen josia, diskoa izoztu edo hauts zuriak estali balu legez: negutegiak. Aireportu alanbrez hesitua ere hurrean zegoen handik. Klara Miao txikitan aireportu baten ondoan bizi izana zen urte mordoxka batez.

– Hau da munduko aireporturik isilena, hala esan zigun behintzat apartamentua saldu zigun agentziak.

Gurasoei hainbestetan entzundako esaldi ironikoa, zilarrezko aireplanoren batek izerdi eta lokamutsetan esnarazten zituenetan edozein berunezko gauetan.

Bihurgunez bihurgune aldapa igo ostean, supituki geratu zuen autoa, luze lurreratu gabe iraun zuen ke-ildo bat utziz haizerik gabeko eguratsean esekita. Autoa eraikuntza babesten zuen murrura heldu baino berrogei metro lehenago aparkatu eta eskua sartu zuen poltsan, ezpainetakoa eskuratzeko kariaz. Zerbait garrantzitsua egiten zuenetan apain agertzea zuen laket eta Klara amorratu egin zen zeharo, poltsan batere

ezpainetakorik ez zeramala begiztatu zuenean. Ilea orraztearekin konformatu, eta –nahikoa ez zela bazekien arren– betaurreko beltzak jantzi ondoren, eraikuntza babesten zuen murrurantz abiatu zen maleterotik eskuratu beharreko erre-bolberra hartu ondoren.

Murruaren ondoan abandonaturiko marmolezko estatuetan gora eskalatuz –irudi baten sorbaldan jarriz orain belaunak eta bestearen buruan besoak geroxeago–, murrua gainditzea erraza suertatu zitzaion. Presaka zeharkatu zuen patioa eraikuntza zuriko ataririantz abiatzeko. Inork ez zuen ikusi. Ate berdera deitu aurretik, sarrailari begiratzean, autoko maleteroa giltzatzea ahaztu zitzaiola ohartu zen. Berdin zion. Ez zuen denbora gehiegi beharko egin beharrekoa egiteko.

Begiak hertsi eta hiria imajinatu nahi izan zuen bere gibelean, murruaren bestaldean. Dudarik gabe, hiria askozaz ere disko proportzionatuagoa izango zen gautzean: kriseilu bakanek seinalatuko zituzten isiltasun guneak. Disko-jogailuaren orratzari kontrako eztarritik joaten zitzaizkion hauts partikulak lezkoak ziren koskak

edo kale higatuak. Hiriaren erdi-erdian, zulo bat, zurrunbiloaren hegia, kontrabaxuetako sokekin ito ziren eskaleen irensle.

Berriro jo zuen atea. Inork ez zuen irekitzen. Denbora tarte luzez itxaron behar izan zuen atezuan, eta bitarte horretan, hiritik apartatuta zegoen ospitale hura zatekeela bere salako hontza otu zitzaion, hain geldia eta isila, baina era berean hainbeste bira ematen zituen gramola mugikor izugarri haren lekukoa. Inork ez luke zalantzan jarriko. Hiriak, birak eta birak ematen zituen diskoaren itxura hartzen zuen ilunbista hartan. Eta hiria diskoa bazen, ospitale leiho berdeko hura zatekeen hontz begiralea.

Orduan dena argi ikusi zuen. Bere gelako eszena bera errepikatzen zen kanpoan, hirian. Berak ikusmira ezin zezakeen proportzio handiago batean ere errepikatuko zen segur aski hontzaren eta diskoaren hura. Bere hontzatxoaren begi barruan beste hontz bat eta beste disko bat egongo ziren, hontz txikiago honen begian beste hainbeste, eta horrela infinituraino, milaka hontz eta milaka disko. Blay Oilarraren sobreetan bezalatsu gertatzen zen: oilar urdin batek Blay Oi-

larraren sobre bat sostengatzen zuen eskuetan, sobre hau ere Blay Oilarra etxekoa zen, eta oilar berri bat ageri zen bertan beste zopa sobre bat sostengatzen zuena, eta horrela infinituraino. Eta zopa sobre guztiak kaxa batean sartuta etortzen ziren hamarnaka batuta. Eta kaxako marrazkia ere berbera zen: Blay Oilarra irribarretsu ageri zen sobre bat eskuetan zuela.

Azkenean zabaldu zuten behintzat atea. Bisitan zetorrela adierazi eta aise utzi zioten sartzen. Barruratu eta berehala bukatu zuen lana, uste baino gutxiago kosta zitzaion gainera. Ez zion pultsuak dardararik egin. Pasillo zuri, lur axedrezatukoak zeharkatu, gela aurkitu eta ilunpean haren itzal mugiezina baino ez zuen ikusi leiho ondoan jarrita, Klarari bizkarra emanez. Baina apuntatzeko aski zen, hala ere; hobe tirokatzen zuenaren aurpegia zein zenik ere ez ikustea.

Tiro bakarra entzun zen. Gorpua mortu eta pisu erori zen ilunpetan zegoen gelako zorura, harri puska zurrun bat bailitzan. Hori bai, hilotzek malguagoak izan behar zutela iruditzen zitzaion Klarari, baina pentsatzekoa da eraile guz-

tiak harritzen direna beren ekintzen ondorioen formaz norbait hiltzen duten lehen aldian. Pareta mutu bat tirokatzea bezala izan zen.

«Zailagoa izaten dun behin bakarrik erortzea, sekula ez erortzea baino». Apaizaren esana etorri zitzaion burura bizikletaren eserlekuaren gainean barruko arroparik gabe esertzea eta izterzokoak eserlekuaren aurka leunki igurztea gustuko zuela konfesatu zion egun lauso hura berreskuratuz urduritasunaren sekuentzietan. Zenbaketa azkar bat egin eta gehiegizkoa iruditu zitzaion azken aldiz inork gerritik oratu eta bere izter arterainoko bidea egin zuenetik igarotako egun kopurua. Lehen ez bezala orain, besoetan egundoko dardarizoa zeukan, zainetan mizto ero bilakatu balitzaio bezala odola.

Pertxero batean topatu zuen bata zuria jantzi, eta bataren botoiak lotzeko paradarik hartu gabe irten zen ate nagusitik, zelaian bildurik zeuden erizainen begiradei ihesi. Murruaren ondoan, aulkian erdi etzanda zigarrokin bati azken ausikiak ematen ari zen sarrerako zaindariak diosal egin zion, berari baino gehiago, bere eskoteari, hala iruditu zitzaion behintzat, xaharrak

egin zuen keinuaren arabera. Klarak, ordea, eskuaz baino ez zion erantzun. Presa zuen alde egiteko. Dena den, burumakur zihoalako-edo, zaindariaren aulkipean ezkutatzen ziren 3D-ko betaurreko koloretsuak begiztatu zituen –eklipsea ikusteko, otu zitzaion hasieran– bai eta betaurrekoen azpian pilatzen ziren *Penthouse* aldizkari zimurtuak ere. *Hiru dimentsiotako erotika ukigarria, bertan bazeunde bezala!,* iragartzen zuen aldizkaria alderik alde zeharkatzen zuen letra deigarriko tirak. Bai zera eklipsea ikusteko. Eskoteari begiratu zion, bai horixe, urde hark.

Behin kanpoan, marmolezko estatuen parean utzitako autora sartu eta ziztu bizian abiatu zen. Geroxeago, ezpainak margotzeko kariaz gasolindegi batean geratu eta autoko ispiluan bere ezpainen gorri zatarra begiztatu zuenean, bere ezpainetan arrotz zen karmin hura dastatzean, harri eta zur utzi zuen detaile batez jabetu zen: konturatu zen egia zela, hiltzaileek badutela inkontzienteki beren biktimen objekturen bat gordetzeko ohitura, eta bera ohartu ez zen arren, hotz-hotzean, hiru metrokoa kalkulatzen zuen distantzia hartatik tiro eman ondoren, hildakoa-

ren esku-poltsatik lapurtua zuela ezpainetako gorri, lodi, zatar hura.

Erietxea zegoen muinotik jaisten ari zela, itsasoaren baimenaz eraiki eta bere aurrean etzaten zen hiri hura tiburoiez beteriko putzua iruditu zitzaion. Petroliontziz betetako portu erraldoi hura berriz –doi-doi eutsi zion malko bati ezker begiko trenbide gorritik deskarrila ez zedin–, arrabio pozoitsuz betetako basamortu berun kolorea. Mila puskatan hautsitako diskoez gizendutako marrazoak, zauriak eta mina besterik sor ezin zezaketenak zain zeuden urpean. *Shark in the mist.* Portua igerian harrapatzen zutenek ere ez zuten luzaro iraungo, arrabio ezkutuen ziztadapean pozoiturik zenduko baitziren.

Ospitalea utzi zuenean «ez da nahikoa inolaz ere eguzkitarako betaurrekoak erabiltzea» bere hasierako burutazioak «zailagoa dun behin bakarrik erortzea, sekula ez erortzea baino» berreskuratu, eta *hirugarrena ez da urdina* esaldia tatuaturik zeraman billetea honezkero hiruzpalau aldiz eskualdatua izango zela pentsatzeak lasaitu zuen.

Hontzaren irudia etorri zitzaion berriro ere burura: pertsiana irekiko antigoaleko ospitale hark begi berdeak zituen hontz izugarri baten gisara zorrotz erasotzen ziola bere gibelean, horixe otu zitzaion. Baina benetako hontzek ez dutela barroterik izaten begietan. Horixe ezetz.

Betirako geratu zitzaion bere ezker begiko zain paraleloen erdian hontzaren begirada hura, edozein giza begiradak baino aztarna sakonagoa utziz. Gero, burdin sarez inguraturiko aireportua igaro eta zubi altxagarria bigarren aldiz zeharkatu zuen, lumaje bilduan bere apartamentura abiatuz. Abenidako semaforo batean geratu zenean, musika tresnaz betetako erakusleiho bat ikusi ahal izan zuen. Lepoa luzatu zuen, nahigabe, erakusleihoko isats-pianoaren estalkipean katuren bat ikusteko itxaropen nagiaz akaso.

Lehenbailehen etxeratu, jada baturik zituen maletak hartu eta hegazkinean egoteko gogoa sentitu zuen. Pentsioa hiriaren beste puntan zegoen ordea, urrun–*miles ahead*–, eta negutegi erraldoietako lorautsaren usaina ez zuen orain-dik atzean utzi.

Leihotik burua atera eta, doi-doi bazen ere, McDonnell Douglas konpainiako hegazkin bat identifikatu zuen hiria zeharkatzen. *Ornithology.* Izan ere, txikitan, etxebizitza agentzien arabera munduko isilena zen aireportu haren alboan bizi zirenean, hiritik at bizi ziren eskolakideek txori mota ezberdinak lumajearen koloreen arabera bereizten zituzten era berean, aitona ingeniariak erakutsi baitzien berari eta bere bi ahizpei hegazkinak ateratzen zuten zarataren edota hauek zituzten kolore eta marka ezberdinen arabera bereizten.

Eskaileratan gora, dena inbaditzen zuen usain batek bere eginbehar gertuenak gogorarazten zizkion: leihoko arasan lehortzen jarritako antezko zapatei igurtzi bat eman eta alde egitea.

Egongelara sartzean sofan etzan eta apur bat lo egitea okurritu zitzaion. Gramolan ahaztuta utzi zuen diskoak biraka zerraien artean, aurrera jo ezinean trabaturik, kale berean kateaturik oraindik.

2
INOIZ EZ DA BERANDU SALTO EGITEKO

My throat can’t take this sand

TED HAWKINS

Ilargiko erlauntzak

Erietxea psikiatriko izan aurretik, ospitale arrunta izana zen gerra garaian. Eraikina eta bere inguruko zelai-patio zabala bi metro t'erdiko zementuzko murru batez zeuden inguratuak. Murruaren ondoan, kanpoaldeko hormaren kontra, marmol zurizko dozenaka irudi, zein baino zein osagabeago: ia denek besoak zituzten faltan, beste batzuek hankak, eta gehienek burua ere bai. Garai batean, umeak ibiltzen ziren estatua haien ingurumarietan jolasean. Burua falta zuten estatuak zituzten gogokoen umeek, eta hauen atzean beren buruak jarriz egiten zuten, noski, makina bat barre algara. Baina azken hilabeteetan ez zen hara batere umerik gerturatzen. Gurasoen kontuak ziren, mutil kozkorrak harri tartean ibilita min har zezaketelakoan, estatua haiek gerra garaian preso hartutako etsaiak zirela kontatu baitzieten; ospitalean gaixo zeudenek gangrenaren eraginez galdutako gorputz atalak etsaiei kendutakoekin ordezkatzen zituztela garai batean, gero erietxearen atzealde hartan

soldadu etsai haien giza-hondakinak abandonatzeko, urteen poderioz harrizko bilakatuko zirenak eta ume jolastien kilimek berriro ere bizitzara ekar zitzaketenak.

Psikiatrikoko sala nagusian botika eta alkoholaren usaina zegoen. Bozgora entzuten zen telebistako esatariaren ahotsa. Azetilenoz igurtzitako gauak bazuen lixiba kutsu bat, pasillo garbitu berrien kutsu bat.

«– ...uneotan Neil Armstrong eta Edwin Aldrin Apolo 13 modulo espazialetik irteten ari dira. Zazpigarren eskailera jaitsi du jada, zortzigarrena ere bai, azkena baino ez zaio falta, jaun-andreok, bederatzigarrena... badoala, badoala, eta bai!, hanka ilargian pausatua du eta ez da hondoratu! Ez da hondoratu jaun-andreok! Zutik darrai! Ilargia hunkiberagoa zelakoan geundenok galdu egin dugu goizean jokatutako apustua, harrigarria zinez! Arroka baten gainean pausatu balitz bezala izan da... Estudioetatik ba ote eranstekorik zerbait, Joan J?

»– ...Txundigarria zinez Mario Z, lehen urratsak ilargian, historian zehar egin den konkista-

rik garrantzitsuena, espazio eremuen geureganatzea...».

Hitzek, txuri-beltzezko telebistatik salara hedatuz aurrena eta korridore luze hutsetara gero, oihartzun adiezin bat osatzen zuten. Esatariaren hitzen pean, Houstongo baseko ingelesezko elkarrizketak suma zitezkeen nahas-mahas. Telebistaren inguruan begiak beren zuloetatik ateratzear zituzten egurrezko aulkietan eserita zeuden figura zurrun eta zurbilek. Salako isiltasun lixibatsua ahots zorrotz eta ia eme batek hautsi zuen azkenik.

– Ilargira? Nola iritsiko ziren ba ilargira? Ez zenuten kontu hori sinetsiko, ezta?

– Ez noski. Inolaz ere ez. Hori ez da ilargia, Afrikako basamortu bat da hori, hortxe egin nuen nik soldadutza... Kendu aurretik Galileo, ez diat eta ikusten! Sahara-edo izan behar du horrek. Edo Aljeria aldea, beharbada? Ez al duzue ikusten hondarra besterik ez dagoela? Ilargia? Bai zera, ilargia zuria da, jelazkoa. Ez al duzue hozkailuaren anuntzioa ikusi? *No-Frost,* horixe da ilargia. Zer uste duzue, ilargira iritsiko balira guk telebistan ikusiko genukeela? Kiaa, mese-

dez, ez zaitezte hondarra baino sandalioagoak izan. Hemen norberak ezkutuan gordetzen ditu bere petrolio aurkikuntzak. Ibiliko da gaur ere norbait zirkuituak eta dinamoak nahasten... Kia-kia, ilargia... Hoa kaila jotzera atariko brisari motel...!

Anatol mintzatzen zen bitartean, Galileo telebistaren alboa ari zen miatzen, zulotxoetatik ateratzen zen argi zuriari mesfidantzaz begiratuz. Gainerakoek eutsi egiten zioten Galileori, honek telebistaren atzealdeko torlojuak deskiribiltzeko zuen grinan etsi zezan.

– Bada irratiko erleek ere sesio ederra eman dute, ilargira zihoazela eta ilargira iritsi behar zutela eta nik ba al dakit zer gehiago. Zerbait izango da.

– Kia-kia, atera hadi leihora eta konturatuko haiz. Ikusiko duk. Zer? Ikusten al duk hor goian lodikote ergelen bat saltoka erlezainez jantzita? Aljeriar sandalio hauek nire kabutatik ateratzen naitek. Hau jendea, Saharan ezti bila ibili egin behar duk gaueko ordu hauetan...

– Saharan ba al dago ba erlerik?

– Saharan erlerik badagoen? Hi haiz hemen erle bakarra, mokasin halakoa! Ukuiluko erlea! Erlamandoa!

«– Hau pauso txikia izan da gizakiarentzat, baina izugarrizko pausoa humanitatearentzat...».

– Erlezain inozo hori. Zelako txorakeria. *Humaaanitateaaa, humanitateaaa.* Humanitatea krokodiloen atzetik zangetan arrastaka. Humanitatea zizare bat bezala kiribiltzen lokatzetan. Humanitatea pikutara oilo saldatan itotzen.

– Zelako mokadua! –entzun da urrunetik, eta denak bildu dira mahaiaren inguruan–. *Humanitatea,* uuum, zein usain gozoa...! Xaboi marka bat besterik ez dela jakingo ez bagenu. *Humanitatea*, ez zaidazue barrerik eragin. Ikusi al duzue hozkailuaren anuntzioa? No-Frost, hori da humanitatea.

«– Ikus dezagun zelakoa den jendearen erreakzioa. Gure unitate ibiltaria erdiguneko taberna batean dago, zer giro da hor, Vincent K?

»– Hemen denetarako iritziak, Mario Z, une bat-une bat, telebistarako mesedez, zuzenean

gaude, zer deritzozu gizakiak ilargira iristearen kontu honi?

»– Kiaa, ez dakit, baa nahiko gauza historikoa izango da, kubanoak iritsi direlaa, eztaa? Baina zer nahi duzu baa esatea, ni langabezian nago, baa astronauta kubanoek lana izango dute, baina baa, nik? Lanik izango ote dut baa nik? Tiraaa, zuzenean al gaude? Baa zera esan nahi nuke norbaitek deskuiduan etxeko konponketak egiteko, delaa pintaketa lanaa, dela hoditeriak konpontzeaa...

»– Tira, tira, bazterrak nahastu gabe, garbi utz ditzagun gauzak bederen, je-je, enfin, estatubatuarrak direla alegia ilargiratu direnak, ez kubatarrak, kubatarrak ez dira ilargira iritsi, ez oraindik behintzat...».

Telebistan euliak akabatzeko Cruz Verde aerosolaren iragarkia bota eta ospitaleko salan eztabaidan ari ziren haiengandik apartatuta, medikuek aerosol bera darabiltela otu zaio, ertz batean eserita dagoen Joe Panda boxeolari ohiari, leihotik begira, zigarroari azken sakatuak emanez. Leiho alanbratutik bete-betean ikusten zen ilargia eta ez zirudien bertan inor paseatzen ze-

bilenik. Joe Panda ziur zegoen halere, egia zela, irratien barrualdeetan bizi diren erleek –aerosolaz erail ezin daitezkeen bakarrek– ez dutela gezurrik esaten. Bideragarria zela amerikano haiek ilargira heldu izana. Ondotxo ezagutzen zituen Joek amerikanoak Chicagon emandako urte luze haiei esker, eta ilargian erlezain maskarak jantzita bazebiltzan, zerbaitegatik izango zen.

Telefonoaren hotsa entzun ote zuen erreze-loa izan zuen Joek. Burua jiratu eta ez zuen salan batere telefonorik ikusi, ordea: zutabeetan zintzilik jarritako apargailu gorriak baino ez, eta korridorean apargailu gehiago, gorriak hauek ere, mediku putaseme haiek –errepikatzen zuen behin eta berriz Joek bere baitarako–, mediku putaseme haiek bere bistatik ezkutatzen zituzten telefonoen kolore bereko apargailu gorriak. Eta azetilenoz igurtziriko gauaren usaina, pasillo garbitu berrien kutsu hura, jarabearen usainarekin eta morfina lurrunduarekin nahasian.

Kanpoaldean, astero legez, arropa garbitzera zeraman labanderiako kamioiak. «Zarama kamioia ematen dik», otu zitzaion Joeri. Eta hala zen: gizon bi zihoazen kamioiaren atzealdean zu-

tunik jarrita eskularru beltzak soinean, zaborra jasotzen zuten kamioietan legez. Kamioia erietxeko atariraino inguratu eta bertan pilaturiko plastikozko edukiontzi biribilak kamioiratzen zituzten atzealdean zutunik zihoazenek, hauen ordez arropa garbidun edukiontziak utziz. Kamioiaren arrastoa galdu ahala, egongelan mamitzen zen elkarrizketara lerratu zuen berriro Joek entzumena.

– Eta Alaskan? Alaskan ba al dago erlerik?

Alaska

Geroztik Alaska deituko zioten preso zeuden erietxe hari. Izan ere, hain zen dena zuri, bai kanpoko bai barneko hormak, gelak, maindireak, katiluak eta platerak ere inolako dibujorik gabeak. Orratz zuridun erloju zuri guztiak geldirik zeuden, sendagileek izu-laborri psikologikoa gelditasunean oinarritu nahiko balute bezala. Jack Londonen ipuinetan bezain zuria zen isiltasuna, zuriak mediku eta erizainen batak. Leihoak bakarrik zituen berde kolorekoak, eta patioaren erdiko zuhaitz bakarrak adierazten zizkien urtaro aldaketak, gainerakoan ia beti heze zen lurralde hartan. Garai batean, murruaz bestaldeko zuhaitz guztiak ebakitzea agindu zuten medikuek abangoardiako tratamendu bati ekiteko, gaixoak kanpoaldearekiko erabat bakartuz eta isolatuz. *Shock* tratamendu bat omen zen, Alemanian emaitza onak eman zituena Dachau izena zuen *psikiatriko* batean. Egia esatera, erietxea bainoago zen hura kartzela, bere patio-zelaia inguratzen zuen bi metro eta erdiko murrua-

ri eta burdin sarez kaiolaturiko leihoei behatuz gero, bederen. Paseatzeko zituzten orduak ere mugatuak ziren Alaskako biztanleentzat: bi ordu astegun buruzurian eta hiru igande eta zapatuetan. Halako paraje batean ez zatekeen erraza bizirautea erle batentzat.

Erleak aparte utzita, ordea, denetarik zegoen erietxe hartan. Aerosolen gainean gogoeta egiten zuen Joe boxeolaria ez zen gaixoen artean bat gehiago baizik. Baina bazen besterik ere: Anatol kasu, «Zubi Altxagarriko Estrangulatzailea», idazle frustratua zena, Ipar Afrikan soldadutza egin ostean, arrakasta handia lortu ustean bere memoriak idatzi zituena, egundoko argitalpen porrota eraginez. Bere autoa salduz hasi, etxea hipotekatu eta ondasun guztiak gurindu zituen, lorturiko diruaz osterantzean batere saltzen ez ziren bere liburuak erosteko. Abildade berezia zuen Anatolek mozorrotzeko: hogei aldiz mozorro zitekeen goiz bakarrean liburudenda berera sartu eta sarraldi bakoitzean bere liburu bat erosteko. Ongi aukeratzen zituen, ordea, Anatolek liburudendak: salduenen zerrendak egiteko datuak hartzen zituztenetara baino ez

zuen jotzen. Anatolek, bere liburuak erosten jarraitu zuen, jo eta su, eta best sellerren zerrendan sartzea lortu zuenean bigarrena baino ez zela ikusirik, burua erabat galduta, aurretik zihoan lehiakidearen liburuak erosten zituztenak estrangulatzeari ekin zion. Herriko zubi altxagarriaren ondoan babesa hartu, eta itoarazi ondoren uretara botatzen zituen irakurle koitaduak, urpeko tximeletak ferratzera, lastaira gisara Hispano Olivetti bana lepoaren inguruan soka batez lotuta. Zenbaitek «Olivetti hiltzailea» ezizenez ere ezagutzen zuten bere modus operandi bitxia medio. Harrapatu eta kartzelaratua izan ondoren, erruz saltzen hasi ziren bere memoriak, argitaletxeak liburuetan jarririko solapatxo deigarri eta apur bat gehiegizkoari esker, apika: *Zubi altxagarriko harakinaren memoriak. 13. Argitalpena.* Kartzelara sartu eta handik psikiatrikorako bidea, biak batera egin zituen, insomnioak jota, idazmakina baten zarata ateraz ematen baitzituen espetxean gauak oro, zeldakide moduan inork jasan ez, eta inguruko leotzetakoak ere erotu beharrean jartzen zituelako, kirio guztiak zut, dardara batean. Erietxean, morfinaz eta la-

saigarriz asebete, eta merkatuko irin zakua bailitzan, lo betean ematen zituen gauak, kuatro eginda.

Galileo bizarzuria berriz, lurperatzaile izana zen herri ttipi batean. Bolada luze batez herrian inor hiltzen ez zela-eta, lanik gabe ezin etsian, ostiralero agure bat akabatzeko ohitura ustez osasungarria hartu zuen. Agureak bukatu zitzaizkionean, mutilzaharrak eta alargunak hiltzeari ekin behar halabeharrez. Harrapatu zuten arte. Epaiketan argitu zuenez, «herriak oreka homeostatikoa berreskura zezan» egiten zuen hura guztia. Bere goitizenari zegokionez, mugitzen ez ziren gauza guztietan mugimendua ikusten zuelako deitzen zioten horrela. Erietxean denek gogoratzen zuten Galileo bere dortoka disekatuari hizketan, «ezetz igo berogailuaren gainera» esanez dortokatxoari, dortokak harri kozkor bat bezain geldi jarraitzen zuela beti. Alaskako erlojuetako orratzak mugitzen zirela esaten zuen bakarra ere bera zen. Hain nabarmen zeuden geldirik orratz guztiak, ez baitzegoen han lekurik *Eppur si muove* hartarako. Ero batek bakarrik baiezta zezakeen hain setati Alaskako horma-erlojueta-

ko orratzak mugitzen zirela. Bestalde, Galileo zen Alaskan denbora gehien zeramana, eta hargatik, asko errespetatzen zuten denek. Ez zen erraza zenbat urte izan zitzakeen asmatzea. Bere bizar zuriak Alaskako izotzak berak baino urte gehiago zituela esango zukeen edonork.

Baina zinez, ezin esan Alaskako biztanleak sakonean gaiztoak zirenik. Erromantiko batzuk zirenik ere ezin juzga, baina ez zitzaien horretarako larregi falta. Perfekzioaren mugak klarionaz seinalatu eta euriteak lerro zuriak ezabatu ondoren perfekzioaren beraren muga iragan zuten gizasemeak ere izan zitezkeen aise. Eta jainkoek ez dute barkatzen sekula finisterrearen ondoren itsaso gehiago daudela erakutsi nahi izaten duten menturazaleen ibilerarik. Leihoak kaiolatuak daudenean erraza da leihotik aparte mantentzea, baina nekeza da hau beirateak hain garbi daudenean non ez baitirudien batere kristalik dagoenik ere. Eta kristalik ez dagoelakoan, kanporako keinua egin eta to, kankatekoa buruan. Ez da aise ikasten, kristalaren lezioa.

Alaska. Zuria eta hotza. Galileok jarri zion erietxeari neurriko izena.

Beluna Moon, te konfidentziala

Baziren Belunara bera ikustera propio joaten zirenak ere. Rotterdamen, petrolio usaineko hiri hartan, jendea harritu egiten zen gamuzazko gabardina soinean zuela tabernara sartu eta ginebrak zizelkatutako begi distiratsuekin tea eskatzen zuenean, halakoa baitzen hiri osoan barreiaturik zeukan mozkorti fama, eta hain lotuta zegoen jendearentzat bere jotzeko era zerutiarra era guztietako droga ezezagunekin, edonork apustu egingo baitzukeen pattarra, edo behin irekiz gero botila osoa hustu behar izaten den *vintage* oportoa izanen zela eskatuko zuena.

– Hotza egon dadila, mesedez.

Bere miresle harrituak ahoa bete hortz geratzen ziren. Tea, eta gainera hotza. Kamareroak oso ondo beteko zuen, ordea, Bob Ieregik leku publikoetan zegoenean berari zuzentzen zen jendeagan hainbeste estimatzen zuen jarrera distante eta errespetuzko hura, zilarrezko teon-

tzian ohiko teari ez bezala kerik batere ez zerion isurkina inguratuko ziola mahaira kikararekin batera, baina koilaratxorik gabe. Bobek, artean, gamuzazko gabardina kendu eta sonbreirua erantziko zuen era pausatuan, Rotterdameko musikari gazteek mila bider entseatu arren kopiatzerik lortzen ez zuten estilo paregabe batekin. Bi hilabete ziren te hotza baino edaten ez zuela. Ez garagardo, ez whisky, ez ardo zuririk. «Urari ere muzin egin omen ziok», esaten zuten mihi gaiztoek. Tea bakarrik.

Estreinako Gauloises zigarroari sua erantsi eta Belunan tea eskatzen zuenero, irribarre txiki bat ateratzen zitzaion Ieregiri –«Errespetu guztiarekin, putaseme batek bezala egiten duk barre», esan zioten behin–, erleak lehen aldiz ikusi zituen aldia ekartzen baitzion teak gogora. «Erleak ikustea», hala esaten zion Ieregik mozkortzeari. Hamalau bat urte zituela izango zen, Nikolasen arrebaren ezkontzan. Ez zuen gehiegi edan, baina konturatzerako bere begien aurrealde pitzatu hartan erleak ikusten hasi zen; batbatean inguratu eta begi ertzetik alde egiten zuten erleek, malguki edo tranpolin ikusezinen

indarrak bideraturik, orain erraldoi eta ziztagarri bihurtzen ziren, hauts partikula ilun ziruditen eltxo ttipi eta gozo geroxeago. *Erleak* lehenbiziko aldiz *ikusi* zituen hartan, ordurako jada bere lagunik leialena zen Nikolas. Hark eraman behar izan zuen etxera arrastaka. Bestela ere galtza bete lan izango zukeen ilehoriak Boben gorputz handia karriatzen, baina gorpu mortua izanik, areago kosta zitzaion, upa bete lan bai, etxeko ezkaratzeraino heldu eta Iguanaren etxaldea deitzen zuten hartako eskailera gorri haiek igoaraztea. Txirrina jo eta Boben ama atera zitzaien. Gezurra esaten zuenero legez, katagorri ikaratuaren begiak jarri zituen Nikolas Holoborodko zintzoak. Hark botatako aitzakia entzun zuenean, barreari eutsi ezinik, bertan behera kiribildu zen Bob iguanaren mihia zirudien eskailera saldotik behera, elurbildua bailitzan.

– Barkatu, Ieregi andrea, baina uste dut siberiar erara prestaturiko teak bihotzerrea eragin diola zure semeari.

Hurrengo goizean, bere gelako zoruan etzanda esnatu zen Bob, tapakirik gabe eta bezperako arropa eta zapatak soinean zituela. Esnatu or-

duko egundoko beldurra ernatu zitzaion bere garunaren atzealdetik –portaera eta emozioaz arduratzen den garunaren partetik– bizkarrean behera. Ez zen bere gelatik ateratzera ausartzen. Eguerdiko hamabi eta erdiak pasatxo ziren, eta bere gelako apalak behatuz, gortinaren tolesturak zenbatuz, ateko markoaren iltzeak laztanduz eta bere gela hartan nonbait arraio egon behar zuen erlauntzaren bila eman zituen bi ordu –inon topatu ez bazuen ere, nonbait behar zuen erlauntzak, bere buruko zaratei kasu egitera–, harik eta ordu bietan sabelean zeukan ijera-zuloak bazkaltzera jaistera behartu zuen arte. Portaera eta emozioaz arduratzen zen bere garunaren partearen harridurarako –berak ordurako tabako landaketez erein zuen garunaren partearen harridurarako– bazkaltiarrek ez zioten Bobi ohikoan baino arreta gehiagorik eskaini. Bere amaren begirada konplizea sumatu zuenean ohartu zen ez ziola aitari ezer esan, ez zeukala semeari errietarik batere egiteko asmorik. Gau hura sekula existitu ez balitz bezala: ahaztea beste lanik ez zuen, garuneko amapola landaketen artera baztertu eta egun hura ahaztea.

Sekula ez aipatzearen ondorioz eta anitz urte geroago, berak ere garuneko amapola landaketak zeharkatu ohi dituzten alkohol ibaietako batera jaurti zuen gau hartako oroitzapena, kurtso bukaeran eskola liburu gorrotatu bat ibaira botatzen den era abegikor berean.

Baina propio ahazten diren gauzak dira nolabait gero akordutan gehien gordetzen direnak.

Ezti berriagoetara itzuliz, parentesia bailitzan itxi zuen Bob Ieregik irribarrea. Ongi zegoen jarraitzaileak begira sumatzea, ikustea belardendak musikari gazteen eskariak ase ezinik terik gabe nola geratzen ziren, gamuzazko gabardinak janztea Rotterdam hiriko tronpetajole hasiberri guztiek, denek bere jotzeko era imitatu nahia bera. Baina horrek bazuen beste alde bat, hain atsegina ez zen beste zerbait ere esan nahi zuen hirian hain ezaguna izateak: bere egonaldia gehiegi ari zela luzatzen. Zerbait pentsatu beharra zegoen, azkar pentsatu ere. Gogoetarako lasaitasun bila, Bob konfiantzazko tabernetara baino ez zen azkenaldian biltzen, eta bere konfiantzazko kamareroek, hiri hura bilakatu zen arratoientzako zepo hartatik ateratzeko irtenbi-

dea xerkatzen zuen bitartean, ondo baino hobeto gordeko zioten konfiantzazko teontzi hartako sekretua, hain gustuko zuen konplizitate-joko distante hartan. Te hotzaren sekretua.

Urte askotan amorante izan zuen Klara Miaori telefonoz hots egiten zionetan, sordina jarri eta telefonoz jotzen zion tronpeta, *the train in your eyes.* Zure begietako trena. Bere Klara maitea ezkondurik zegoen, ordea, senar guztiak bezala, senar bihurtzen direnean jeloskor eta zelatati bilakatzen diren gizon horietako batekin. Etxera heltzean, senarrak oso pozik ikusi zuen behin emaztea, eta ezkerreko belarria gorriturik gainera. Seko jeloskortu eta haserrarazi zuen emaztearen alaitasunak. Klara ez zen, itxuraz, poza eta zoriona ongi ezkutatu beharreko altxorrak zirela ohartu. Ez da arrunta zoriona, batzuetan gertatzen den arren, horrela, esnatu eta batbatean, hortzetako pasta zuria ikuste hutsarekin zoriontsu sentitzea, pozik, gurata hartu ezin daitekeen jarrera den sentimendu zoriontsu horrek harrapatuta, nork daki zergatik, ilea orrazterakoan ispilutik bestetan baino urrunago jarri zarelako agian, edo auskalo, irratirik piztu ez duzulako,

edo, beharbada, egun hark haizeak bezala aurrerako jarrera hartu beharrean atzerakoa, gaztaroranzkoa hartu duela iruditzen zaizulako, irudipen faltsu hori izan duzulako; zerbait berezia portaera eta emozioaz arduratzen den garunaren atzealde horretan; tabako landaketek beste zentimetro bat bereganatu dutelako zure garunean; garunaren zati horretatik hain urruti ez dagoen mugimendu trebeen alderdirantz hedatzen delako gorputz-adarrak indartsu sentiarazten dizkizun poz ustekabeko eta bitxi hori. Baina hori ez da normala, ez da iraunkorra, ezta naturala ere. Pozak gugan hartzen duen itxura ez da normalean garunaren atzeko aldetik, tabako landaketak dauden emozioaren alde hartatik sortzen, baizik eta garunaren aurrealde faltsuagotik, ikusmenaren eta ikuste ezagumenaren aldetik; eta horrelakoetan, poza ez da tabako landaketetaraino hain aise heltzen, igarri egiten da guk zoriontasuntzat hartu dugun pozaren inpostore hori, eta leporatu egiten digu gurekin dagoenak, nola egon haiteke pozik, ez al daukan lotsarik, errespeturik, eta abar.

– Pozik ikusten haut. Non ibili haiz gaur goizean?

– Inon ere ez, maitea. Ez nauk etxetik irten.

– Telefono deiren bat jaso dun?

– Ez, maitea. Musika entzuten aritu nauk.

Senarrak, ordea, emaztearen belarri gorritua gogoan –telefonoz luze jardun zuenaren seinale–, jaka erantzi eta elektronika aplikatuan zuen jakituria praktikan jarriz, egongelako mahaitxo orekarik gabekoan zegoen telefonoaren entzungailua deskiribildu eta barruko dinamoa ukitu zuen hatz batez. Kiskaltzen zegoen. Dudarik gabe, norbait telefonoz hitz egiten aritu zen, eta norbait hori ezin zitekeen bere emaztea besterik izan. Telefonoaren haria alikateekin txikitu eta Klara etxetik irten gabe eduki zuen astebetean. Eurite handien garaiak izan ziren. Hiri handien arteko komunikazio hariak etenda geratu ziren hiru aste luzez. Telefono kable bustiek erleen ziztua egiteari utzi zioten geroztik. Eta elurra etorri zen, elurra etortzen denero bezala, oharkabean.

Bobek, bere aldetik, New Yorken denboraldi luzea eman zuen Minton’s eta Playhouse bezala-

ko lokaletan jotzen. Hainbat karta igorri zizkion Klarari, bere begietako trenari, bueltan batere erantzunik jaso gabe. Azaroko egun batean, buzoiaren ahotik bere azken gutuna bota zuen une berean, berebiziko izua eragin zion erle bat atera zen postontziaren barrualdetik. Erle bat, non eta buzoiaren barruan. Bide luzea zuen etxerako, New Yorken bide guztiak direlako luzeak, eta bidean otu zitzaion bere begietako trenak sekula ez erantzutearen errua izan zezakeela, agian, buzoiaren ahotik atera berri zen erle madarikatu hark. Nork eta erle hark. Erle hark berak, bai.

Apika, ireki parentesiak, asturuak hala nahita eta ohikoa ez zen arren, erlezain bakarti bat izoztuta hil zen New York hiriko periferiako auzoeraztunetan, auzo apartatu eta urrun batean. Bobek, oinez zihoan heinean ikusten zituen markesina anitz haietako batean, tabakoaren aurrako iragarkian azaltzen zen agurearen antza eduki zezakeen erlezainak. Egunek aurrera egin ahala, ez zen inor erlezainaren heriotza malapartatuaz ohartuko; hark zaintzen zituen erleak bakarrik jabetuko ziren haren hutsuneaz. Izan ere, erleek neguan behar baitute derrigor dasta

ardoz, eztiz eta azukrez eginiko jangai berezi bat, zeina gabe hil egiten diren eta ez duten ez argituko gaituen ezkorik, ez gozatuko gaituen eztirik ere sortzen. Eta elurrak erlezainaren gorputza erabat estaltzerako, erabakiren bat hartu behar zela-eta, zirt ala zart, beren ekipaiak batu eta paraje apartatu hartatik hirira ihes egitea erabakiko zuen erle kolonia osoak.

Erleak oso zomorro solidarioak dira, batera hartzen dituzte erabaki garrantzitsuenak. Hirira heltzean eta probisionalki, zergatik ez, posta buzoi publiko urdin eta karratu horietako batean hartuko zuten ostatu, bertako eskutitzen berotasunean abegikor aurkituko zirelakoan. Ordea, buzoi hartara nolabait sartu ziren arren, handik irtetea gaitza zen oso, norbaitek buzoiaren ahotik kartaren bat botatzen zuen unea baliatu beharko baitzuten hartarako. Horregatik, erleak ere, azkenerako, praktikotasunera loturik, buzoiaren barruan zeuden gutunetan zegoen hartaz baliatzea erabakiko zuten, eztia egiteko kanpora atera beharrik izan gabe.

Hala bada, erleak eskutitzak miatzen hasiko ziren, zer aurkituko eta zer leituko, eta aurrezki

kutxetako gutun, propaganda mezu, errusiera ikasteko metodo eta bestelakoen artean, maiteminduen eskutitzen (berak bere begietako trenari igorritako eskutitzen) gozotasuna erabiliko zuten beren eztia egiteko. Lantzean behin, loradendaren bateko foiletoren bat egokituko zen tartean, eta horrelakoetan, nostalgiak hartuko zien ziur aski barrena erleei, beren neguko kuartel hartan.

Aste batzuetan, aurrezki kutxek gutun asko igorriko zituzten eta eztia mikatzagoa aterako zitzaien. Anartean, maiteminduak kexu ageriko ziren posta zerbitzuaz orain-hurren egunetan, elkarren gutunik jasotzen ez zutelako, zegokien helbidea erdiesten zuten gutun apurrak oso lingirdatsu eta itsaskor heltzen omen zitzaizkielako, eta egunkarietako iritzi sailetan hainbat protesta gutun agertuko ziren postariek eskuak garbitzerik ez ote zuten galdetuz. Beharbada, hipotesi bat baino ez zen, kaleetako markesinetan ageri ziren tabakoaren aurkako kanpainako birika kartoitu eta ilunen argazki haiek bezain legezko zen hipotesi bat. Eta itxi parentesia, eta piztu zigarro bat. Gauloises.

Baina garagardoa ohikoan bezain mikatza atera zioten klubean –New Yorken garagardoa edaten zuen oraindik– eta berripaperak banan-banan arakatu zituen arren, egunkarietako iritzi sailetan ez zetorren batere protesta originalik. Garagardoari hurrupada luze bat eman zion. Bierraren bitsak beheratzean utzitako aztarnek, Europako mapa txiki bat dibujatu zuten isurkinaren gainalde urreztatuan. Garagardoaren gasak, goranzko bolutatxoetan, kontrapuntua zegion espaloiak bilatzen zituen elurrari. Beste garai batzuk ziren haiek.

Huraxe zen orain zegoen Europa hartara erakarri zuen errealitatea: kontzertu bat gauero, hiru mila dolar hilero, eta, gauzak ondo joango balira, zorte apur batekin, bere arbasoen lurra ezagutzeko aukera. Hura guztia bere begietako trena ahaztearen truke. Goizero, ordea, Brusela, Erroma, Geneva, Madril, Paris, Oslo edo Glasgowko edozein pentsiotan, hortzetako pastaren hodia eskuratzen zuen bakoitzean, ore zuria bi marra gorrik zeharkatzen zutela ikusi zuen, bere maitearen ezker begiko zuringoan gertatzen zen bezala: bi marra gorri eta paralelo trenbide bat

osatuz. *In the train through your eyes.* Hortzetako pastak Klara zekarkion burura, bere begirada apur bat horizontala. Hortzak garbitzeari utzi zion. Bizarra mozteko aparra masailetan igurzten zuenean, apar zuriaren eta letagin gero eta horiztatuagoen arteko kontrasteak, iragan berriki galduaren azal mintza urratzen zuen. *Ni beluna naiz, zu beluna zara, hura beluna da, hi beluna jazz.* Ahoa zabaldu eta keinuak egiten zituen ispiluaren aurrean. Hortz horiztatu haiek. Gero eta nahiago zituen orduz geroztik Bobek pentsio merkeak, hauetan, komunetako ispiluak askoz ere txikiagoak izaten zirelako. Keinuak eta keinuak ispiluaren aurrean. Ispiluko bikiari aurreko bizitzaren batean zein animalia ilun izan ote zen galdetuko balio legez.

Te hotza, baina koilaratxorik gabe. Aspaldi batean, Klararekin zebilenean hartu zuen batere koilaratxorik ez erabiltzeko ohitura. Ez teari ez kafeari, ez zien sekula azukrerik botatzen. Klararen gauzak ziren haiek. Ez zuen jasaten koilaratxoak katiluaren aurka sortzen zuen zarata hura. Bazuen koilaratxoekiko gorroto izugarri bat. Katiluan koilara sartuta zegoela kafea edateko kei-

nua egiten bazuen mahaikideren batek, Klara berehala asaldatzen zen: katilua ezpainetaratzearekin batera kikararen barruko koilara kafe edaleari begitik sartuko ote zitzaion beldurrak ernatzen zizkion purkinje nerbioak, eta histeriko bat bezala oihuka hasten zen. Klarak jasan ezin zezakeen beste gauzetako bat, norbaitek kafe koilarari kosk egitea zen, metalarekiko kontaktuan hortzak gurinezkoak balira bezala tolesten ikusten baitzituen Klarak bere irudimen sukartsuan. Orain hain hori ziren hortz haiek. Bere irudimenean.

Belunako te hotza dastatzen zuen bitartean egiten zuten gogoeta guztiok bere garuneko tabako landaketetatik begietarainoko bidea. New York urrun hura, bere buzoi eta erlauntzekin. Koilara bat ikustea aski zuen domino fitxaz osaturiko bide hark begietako malkoei eragiteko. Bere audientzia imajinarioak eta bere jarraitzaileek sekula dastatzerik izango ez zuten te konfidentziala hurrupatu zuen ostera ere. Konfidentziala, bai, kamuflatua ez esatearren, ezen konfiantzazko kamareroek tearen labela sokatxotik zintzilik zuen teontzi hartara, tea ez, baizik eta bi

hatzetako *Castro Scotch Whisky* txorrotada luzea isurtzen baitzuten. Horregatik egoten zen beti hotza, baina jelarik gabe, Bob Ieregiren arratseroko tea. Konfiantzazko tea. Kerik gabeko whiskya. Hura zen bere sekretua.

Film brasildar batean entzundako hura otutzen zitzaion Bobi kikara ezpainetara hurbiltzen zuen une haietan, alkoholaren usaina usna-ildoetan barneratzen zitzaion bitartean:

– Edan ezak mukizu horrek. Whiskya duk-eta gizonaren lagunik onena. Bai horixe, botilaratutako zakur bat bezalakoxea duk whiskya, botilaratutako zakur bat bezalakoxea.

Txindasvinto

Galileoren dortokak Txindasvinto zuen izena. Noiznahi egoten ziren biak sala nagusian, ikatzez zebilen berogailuaren aldamenean, «ezetz igo berogailuaren gainera» esanez behin eta berriz Galileo, begirada malkotsu eta estatikoa isuriz lur axedrezatuaren gainean dortoka disekatua.

– Alfertuta habil, Txindasvinto. Bihar goraino igo beharko duk. Tutuaren muturreraino, bai horixe, bihar ez zagok aitzakiarik.

Gero, dortokari musu eman, eskuetan hartu eta geldirik zegoen ordulariari begiratuko zion, «berandutu egin zaiguk Txindasvinto» erranez eskaileratan gora, bere gelarantz zuzentzen ziren bitartean.

Paperezko hegazkinak

Euriak ganibetak bezala zulatzen zituen Belunako leihoak. Ezarian-ezarian, *teak* oroitzapen gozoak ekartzen zizkion Bob Ieregiri.

New York utzi zuten hartan, diruz estu zebiltzan. Hegazkin txartelak ordaintzen xahutu zituzten sos denak. Billeteak faltsuak ziren, ordea; kopia txar samarrak, gainera, eta emakume lepo-luze hura billeteen eite susmagarriari begira jarri orduko, Bobek, tronpeta-zorroa mostradore gainean pausatu eta musikariak zirela esan zion zikoina lepoa zuen neska hari. Jiran zihoazela Europara.

– Zure izena esaten badidazu balada bat idatziko dizugu.

Emakumea xaramelatuta geratu zen, eta dolar faltsuak kutxaratuz, pasajeak eman zizkien.

– Seduktore putaseme bat haiz –esan zion Nikolasek ahapeka.

– Hala uste diat, bai –arrapostu Bobek bere irribarre, errespetu guztiarekin, putaseme batena zirudien harekin.

Hori gutxi ez nonbait, eta hegazkin berean bi eserleku ez zeudela-eta, Nikolas Holoborodko bere aurretik abiatu zen Europarantz. Bakarrik egin behar izan zuen Bobek bidaia, beste hegazkin batean. Amazoniako sugeei buruzko aldizkari monografiko bat eta toffee poltsatxo bat erosi zituen aireportuko kioskoan. Niko berarekin ez bazihoan, Nikoren hain gustuko ziren toffee haiek konpainia egingo ziotelakoan zegoen. Abioira igotzerako, aho-sabaian itsatsirik zituen hiruzpalau karameluren kondar kafe zaporekoak.

Gorrotatu egiten zituen hegazkinak. Azafaten kortesia gehiegizkoa, ia klinikoa. Alferrik esango zioten berari altzairu kizkurtuzko laminaz eginiko traste zilarreztatu haiek seguruak zirela, hegazkina pilotatzen zuten haiek guztiek otordu ezberdinak egin behar izaten zituztela derrigorrez, janari txarrik egokituko balitz tartean, komandantea edo komandante ordea, bietako bat bederen, osorik egotea komeni zelako; aireportueta-

tik kontrol estu baten pean gordetzen zituztela hegaldi oro. Bob izugarri beldurtzen zuten hegazkinek. Motorren arteko zuloak eta hegoen barrualdeak betetzeko egunkari orriak eta kartoi puskak sartzen zituztela entzun zuen behin. Klarak ere bazuen hegazkinekin makina bat istorio, baina ezin ba Klarak esaten zuen guztia sinetsi. Klararen senarraren lan bidaia luze bat baliatuz bertatik bertarako hegaldi batean biak elkarrekin Ieregiren kontzertu baterantz zihoazela, komandante jaunak aurpegi txarra zeukala komentatu zion Klarak Bobi. Ziur aski, emaztegaiak utzi egin izango zuela egun horretan bertan, triste ematen zuela benetan.

– Eskerrak bi pilotu egoten diren beti.

– Bai, bat deprimituta balego ere, badaezpada.

– Deprimituta?

– Bai, motel. Marokon gertatu zuan behin, duela bospasei urte.

– Zer gertatu, baina?

– Bertako hegazkin konpainia batek, diruz estu samar zebilela-eta, plantillako pilotuen erdia bota zian kalera, hegazkin bakoitza pilotu

bakarraren esku utziz. Berez ez duk hain zaila, hegazkin bat manejatzea bizikletan ibiltzea bezalakoa duk...

– Eta?

– Horixe ba, behin pilotu bat emaztegaiak utzi eta egundoko depresioa harrapatu zuela gizarajoak... Zer okurrituko eta, Casablancarantz zihoan hegaldi erregular batean bere buruaz beste egitea, bere bizkarrean zeramatzan hiru tripulaziokide eta ehun eta hirurogei bidaiariak ere suizidaraziz, bide batez. Lege inperatiboz ezarritako suizidioa.

– Casa... Casablanca esan al dun?

– Bai, tira, badakik ezta?, beti geratuko duk Paris eta lelokeria horiek denak. Baina Paris ez duk inoiz geratzen, horixe duk egia gordina. Paris ez duk sekula geratzen, Bob.

Hau guztia lasai demonio bota ondoren, Klarak egun hartan egin zuen keinua jaso zuen Bobek gogoan. Eskuaz muturraren aurre-aurretik igarotzen zen erle bat uxatzen ariko balitz bezalako keinu ondulatua. Nondik begiratzen zen, keinu hura hegazkin baten amiltze goxotzat ere har zitekeen. Klara bere bizitzatik desagertu on-

doren, nahi gabe bere bihurtuko zuen Bobek keinu hura. Emakume harekin ez zegoen jakiterik noiz ari zen gezurretan eta noiz egiatan, istoriorik sinestezinenak trebezia izugarriz amarauntzeko gai zen-eta. Askotan pentsatu izan zuen Bobek, Klararen aingeru aurpegiaren pean, gaizkiaren makabrotasunaren erpin potentzial zorrotz bat ezkutatzen zela. Gezurra zen dudarik gabe komandantearen aurpegi txarraren hura; Bobek hegazkinekiko zuen izu-laborria ezagutu-rik eta kaila jotze hutsagatik bota zituen Klarak, ziur aski, asmatu ahala esandako guztiak. Baina bidaia hartan ere eskuak izerditan eduki zituen hegazkinak lur hartu zuen arte.

New York utzi eta hegazkin metal xafla elkarlotuz osatu hark Amerika lurruzten zuen hartan ere, bakar-bakarrik zihoala, eskuak izerditan zeuzkan. Izter gainean jarri zioten afariko azpila lurrera eror ez zedin nahikoa lan eduki zuen; garbiro gogoratzen zuen hori izan zela bidaiako lehen pausoetako bere ardura nagusia. Erlauntzetako erle andanen ziztuak sumatzen zituen abioiaren hegoen azpietan. Leihatilatik ez zuen behin besterik begiratu. Hegalen barrutik, haiza-

gailuek eraginik, egunkari pusketak ateratzen zirela iruditu zitzaion. Bat bestearen atzetik irentsi zituen geratzen zitzaizkion toffeeak.

Bidaiaren bigarren aldea ez zitzaion Bobi batere aspergarria suertatu. Gogoan zuen. Bidaiarien keinuei eta aurpegikerei beha egin zuen zati hau, aireplano batean zihoala ahaztu nahian, hegazkinaren motorretako erleak amapola landaturik zeukan garunaren aldera baztertu nahian. Ahanzturaren aldera. Taberna batean bakarrik eta beste norbaiten zain zegoenetan ere, oso gustuko zuen Bobek inguruko jendearen keinuak eta hizketa moduak behatzea. Belunan askotan jolastu izan zuen horretara, baita jotzen ari zen bitartean ere, bere aurrean eseritako entzuleekin. Bazuen Bobek, tronpetajole trebe izateaz gain, beste abildade berezi bat: berehala hartzen zion jendeari bere aurreko bizitzan zer izan ote zenaren antza. Zenbaitengan oso nabarmena zen. Bereizten errazenak beren aurreko bizitzan katagorri izandakoak izaten ziren: begi beltz tunel izandakoetara eta hortzetara begiratzea nahikoa horretarako. Horietakoa zen Nikolas. Hegazkineko bidaiarien artean, ez zuen,

ordea, katagorririk batere sumatu. Amazoniako sugeen aldizkari monografikoko argazkiak bere inguruan eseritakoekin parekatuz igaro zuen denbora, parekatze haietatik emaitza ikusgarririk lortu gabe, halere.

Parisko aireportuan ordubete eman zuen okerreko rendez-vous batean Nikolasen bila. Jende izugarri zebilen, baina Nikolasen arrastorik ez. Azkenean, maletak eta ekipaiak biraka zebiltzan zinta mugikorrera igo, eta bertan biraka tronpeta jotzeari lotu zitzaion, istantera Niko ikaratu aurpegiarekin korrika inguratu zitzaion arte. Hitzez hitz zuen gogoan harekin izandako elkarrizketa.

– Bob, eroa! Heltzea besterik ez diagu egin eta estradita gaitzaten paperak betetzen? Jaitsi hadi hortik!

– Nire burua noiz edo noiz erokeriaren bat egiten ikusteko plazer hau ez banu, hermano, aspaldi egin nuen nire buruaz beste.

– O, izan ere –txantxa aurpegia jarri zuen Nikolas Holoborodkok besoak teatralki zabalduz– norbere buruaz beste egitea baita heriotzari diogun beldurra gainditzeko era bakarra...

– Miles Davis?

– Ez ba, William Shakespeare.

– Shakespeare? Zer jotzen dik, saxoa? Illinois aldekoa ez duk behintzat, izen horrekin.

– Hoa mingainarekin igelak lehortzera.

Gogoetaz gogoeta, Beluna klubeko leihotik haraindira, betun beltzez janzten ari zen arratsa.

Oraindik gogoan zuen Miles Davis ezagutu zuen eguna. Artean hamazortzi urte baino ez zituen, *Manhattan Bridge* izeneko lokal ttipi batean egiten zuen lan Bobek. Idolo handitzat zeukan Ieregik Davis, eta aurrez aurre ikusi zuenean izan zuen estreinako aldiz orduan oraindik kontrolagaitz egiten zitzaion bisio horietako bat: Miles Davis ikusi beharrean, bere aurreko bizitzan izan zen gepardo beltza ikusi zuen begien aurrean. Sudurrean nabari ziezaiokeen bereziki bere aurreko bizitzako nortasuna. Baita ezpainetan eta begi erasokor geldietan ere. Bere azala mila urteko zuhaitz beltzez osaturik zegoen, baso kiskalietatik bizirik ateratako adarrak ziren haren hatzak. Oso zen nabarmena Milesen baitako gepardo beltza. Bere idoloa aurrez aurre ikustean konortea galdu zuen –lehenbiziko aldiz eta

azken aldiz bere bizitzan–; horrela, Miles Davisi honen kantuen gainean Bobek zuen inprobisatzeko gaitasuna erakusteko aukera paregabea galduz. Konortea berreskuratu zuenean, ordea, Miles berbera zen eszenatokian Bob Ieregiren lekua hartu eta Bobek konposaturiko *Telephone booth in the sky* kantua jotzen ari zena. Bere bizitzako arratsalderik ederrenetakoa irizten zion egun hartako hari. Gepardo hura.

Goizero, bizarra moztean, bere aurpegiari ere begiratzen zion, baina luze saiatu arren, oraindik ez zion bere buruari aurreko bizitzan izan zena antzeman. Gauza bat ziur zekien: hegan egiteari zion beldurra ikusirik, ez zen hegaztia izan, bederen. Ala agian, hegazti izan zelako zion beldur hegan egiteari? Auskalo.

Kikara ezpainetaratu, neurrigabeki irauli eta *tearen* kondarrarekikoak egin zituen, berriro ere bere burua New Yorketik Pariserako hegazkin bidaian irudikatuz: abioiak lur hartu aurretik, norbaitek inguratu zion egunkari bateko letra ttipia irakurtzeari lotu zitzaion. Atzera ere urduriarazi zuen berri bat atzeman zuen berri bitxien tartean. Egunkaria begien aurrean balu bezala oroi

zezakeen: T. Bernhard delako kronikari gosekila izan behar zuen batek izenpeturiko berria zetorren egunkarian. Postari bat lanetik kaleratua izan zen, lau urtetan zehar berri txarren eramaile izan zitezkeela susmatzen zuen gutunak, edota eskela nahiz berri tristeak jakinarazten zituztenak banatzen ez zituelako, karta hauek guztiak bere etxeko beheko suan erretzen zituela, bere lana arduraz egiteko modua hura zelakoan. Postari gizarajoa eroetxe batean omen zegoen orain, non postari uniformeaz etengabe ibiltzen baitzen eroetxearen alde batetik bestera gutunen karreiuan, eroetxeko administrazioak helburu horrekin espresuki jarri zion buzoira bildu eta gaixoen artean korrespondentzia banatuz. T. Bernhard delakoak argitzen zuenez, eroetxera sartu bezain laster eskatu zituen postariak bere postari lanerako trajebuzoa eta kapelua «osterantzean erotu egingo zela» argudiatuz. Denboraldi luze hartan, jaso ote zituen Klarak bere gutunak? Zalantzan zegoen orduan eta zalantzan jarraitzen zuen orain, ez baitzion sekula galdetu.

Abioia lur hartzera zihoala, sakelan zeraman azken toffeea ahoratu zuen Bobek. Gustura botako zukeen une hartan karamelua biltzen zuen papertxoa hegazkineko kristal lodiko leihatilaren bestaldera, leon-kastillo zotz eginez, txikitan bezala, txanponik ezean karameluaren papertxoan zeuden marrazkien arabera erabakiz baiezkoa ala ezezkoa, nau ala ez nau. Maite, alegia.

Baina orain, Belunako kristalaren bestaldean egunak begiak betunez zikindu zituen une hartan, hark guztiak ezer gutxi axola zuen. Ezer gutxi axola zuen Parisko zazpi pentsiotatik ordaindu gabe ihes egiteko erabili zuten sistemak (maletak leihotik bota, nola izena duzu?, musikariak gara, jazzekoak bai, zure izena esaten badiguzu balada bat idatziko dizugu, nola idazten da hori, aja, bi *u*-rekin, gure kontu...). Gutxi, ezer gutxi axola zuen orain horrek guztiak. Klarak gutunak jaso ez ote zitueneko aferaren jakin-mina berriz, oraindik ase gabeko hipotesi bat zen.

Anatolek zazpi aholku ematen ditu pistola bat desagerrarazteko

Gangsterrei buruzko nobela baterako apunteak

1.– Erarik egokien eta seguruena, dudarik gabe, hiriko periferiako fundiziora inguratu eta beruna, kobrea edo dena delakoa urtzen ari den galdara batera errebolberra botatzea litzateke, bertan urtu ostean gure arma, milaka koilara, labana edo sukalderako zartaginen artean gal dadin etorkizunean. Ziklikoki osatzen da hartara, armaren bilakaera prozesua.

2.– Errebolber bat desagerrarazteko bada beste era bat, errebolber txiki, desmuntagarriekin erabil daitekeena. Garai batean emakumeek erabili ohi zituzten pistola ttipi edo eta pieza txikitan desmunta daitezkeenekin, alegia. Hauek, piezak egokiro banandu ostean, ihesean doanak

hotel eta pentsioetako oheetan gorde ditzake. Ez burkoaren azpian noski, esan nahi dudana da, oheek, antigoalekoak badira –hodi itxurako hankadunak, alegia–, hodien barruan badutela leku aski pistola txiki hauetako baten piezak ezkutatzeko. Aski da ohearen hezurdura osatzen duten hodietako tapa kendu eta bertan piezak sartzea. Pistolaren desagerraraztea erabatekoa izan dadin, komenigarria da hotel edo pentsio ezberdinetan uztea pieza ezberdinak; hau ez zaio zailtasun handikoa gertatuko ihesean doan gaizkileari, bere mugikortasuna ihesaren berezko parte baita.

3.– Inguruan ikatzez dabilen trenik bagenu –merkantziazko trenak eta distantzia luzeak egiten dituztenak lirateke egokienak– makinistaren bagoiko galdarara botatzea besterik ez genuke, bertan ikatzarekin batera kedar bihur dadin errebolberra. Galdarara heltzeko modurik ez bagenu, eta inguruan merkantziazko trenen bat topatzerik edukiz gero, ikatzez beteriko bagoi baten barrualdean ezkuta daiteke, harrikatz-piloa egokiro zulatu eta bertan lurperatu ondoren, noski. Bereziki eraginkorra litzateke teknika hau muga

zeharkatuko lukeen tren baten kasuan, edota, distantzia bereziki luzea egingo balu trenak. Delitua egiteko baliatu den arma zenbat eta urrunago, are hobeto.

4.– Gure helburua errebolberra aurrerago erabil ahal izateko eskura izatea bada, baina, gure atzetik dabiltzala uste dugulako-edo, arma gurekin eramatea arriskutsu gerta daitekeela susmatuko bagenu, zer egin? Sekula poliziak bilatuko ez lukeen leku seguru baina ingura erraz batean ezkutatu. Lekurik egokiena eliza bat litzateke. Inoiz ez lukete jaunaren etxea erregistratuko. Eliza hirigunetik apartatuxe bat aukeratzea komeni da, eta behin elizaren barruan kokaturik, zokorik egokiena hautatzea: adibidez, konfesionarioa eta lurraren artean dagoen lauzpabost zentimetroko azpialdean gorde daiteke, konfesatzera joateko unea baliatuz arma berreskuratzeko.

Teilatuan, teila baten azpia ere gordeleku ona dateke eguraldi ona eta haizerik apenas egiten duen sasoietan.

5.– Errebolberra desagerrarazteko presarik ez bagenu, baina epe luzera begira, badaezpa-

da, hau egitea komenigarri iruditzen bazaigu, lima batekin apurka-apurka errebolberra metalauts bihurtu eta egunero-egunero koilarakada bat irenstea besterik ez genuke; urteen buruan, errebolberraren arrastoak oro desagertuko lirateke gure sabelean. Eta burdina ona da benetan hezurrak indartzeko. Ez uste burugabekeria denik aipaturiko teknika hau, hasieran lirudikeen baino erabiliagoa izan da: Lisboako zahar-etxe batean bizi zen agure bat hil zenean, bere mesanotxeko tiraderan, errebolber baten danborra eta heldulekua aurkitu ziren koilara ttipi baten, bikarbonato hodi baten eta lima baten ondoan.

6.– Postarako pakete batean errebolberra egokiro batu eta kartoi gogorrez ongi bildu. Espartzuzko sokaz lotu ondoren, gauden herrialdearekiko batere harreman diplomatikorik ez duen, edo areago, gaudenaren etsai den herrialde bateko gida turistiko ahalik eta osatuena erosi. Estatu horretako herriren batean, auzo langile edo nekazal gune apartatuxearen itxura duena hauteman ondoren, aukeraturiko kale edo auzoaren izena paketean jarri eta hara bidali, hartzaileari dagokion helbidearen lehen lerroan

izen asmatu bat jarrita. Hizki biribildu eta txukunaz izkiriatu helbidea: beti dira susmagarriago kaligrafia zorrotz eta sigi-sagatsuak. Dena den, ez badaezpada erremiterik jarri paketeari.

7.– Ez da komeni sekula errebolberra ibaira botatzerik, ezta itsasora ere, baldin eta ez bagaude gutxien-gutxienik kostatik sei miliara. Ez litzateke itsasora bota eta ur azalera gailentzen den lehen errebolberra izango. Pentsa ze alukeria: itsas azalaren zikina plastiko errez, laranja azalez eta garagardo lataz gainezka, eta zikinkeria guztiaren erdian, hondoratu beharrean, errebolberra ur azalean.

Tximeleten hegoak dira tabakoa liatzeko papera

– Joe! Joe, itxaron, hator. Uf, edozeinek harrapatzen hau sokasaltoan jakinda ere. Galdera bat nian hiretzat, zera, zera, hik ba al dakik, jakingo duk noski, baina, zelako galdera ez? Mundu osoan ibili ez haiz bada, tira, Joe, mundu osoan ibili haiz jo eta ke eta, zera, ba al dakian galdezka, baina noan angoraz eta turkesaz ehunduriko harira, zera, jakingo duk noski, Joe, hariaz egin zian izebak txaleko bat gorria eta motatxo urdinekin, motel-motel, eta zelako katu usaina zian emakume hark, zaila duk gero hiri hika hitz egitea, jartzen dituan begi horiekin, errespetua eta zereko zera, tira, zuk, Joe Panda, zera... oraintxe dut gogoan hona etorri zinen egun urdina, urtarrileko egun hotz eta garbia, horko ate horretatik sartu zinen, ni Joe naiz, esan zenuen, Joe Panda, boxeolaria, baina ez ikaratu, nahi izanez gero golfera jolas dezakezue nire begizuloetan... eta guk barre egin genian, Joe, gogoratzen al haiz

nola egin genian barre, Joe? Hura izan huen hura egun, ezin urdinagoa, Alaskan gutxitan bezalakoa. Panda Jauna esatea nahiago al du berorrek? Berorrek, berorrek, berorrek ez, apur bat jasoegia duk, apaizentzakoa ezta, ze hi, Joe, tira, lagunak gaituk eta hainbeste esango al didak, hi, Joe, hi gaztetan ganberro galanta izango hintzen ezta, ikusi al duk hozkailuaren anuntzioa? No-Frost, No-Frost... baina ez duk, ez duk hori galdetu nahi niana, Joe. Hik, ze uste duk, Joe, baietz uste al duk, baietz ala ezetz, Joe, txaleko bat gorria eta motatxo urdinekin turkesaz noan harira, Joe... Aspaldiko lagunak gaituk, lagun zaharrak, zenbat green egin ote ditiagu guk batera, e Joe, zenbat green, harrapatzen didak ezta? Green, golf, begizulo... Ona duk, e? Mesedez, erantzun iezadazu benetan pentsatzen edo uste duzuna, ez ezkutatu niri ezer, mindu egingo ninduke horrek, Joe, ba hori, esaten ari nintzena, hire ustez, Joe, serio, Alaskan... Alaskan, hainbeste elur eta izotz artean erlerik egon daitekeenik uste al duk benetan?

Jam in the jam

Europako herri txikiren batean izan zen. Nikolas partiturak Bobek zituelakoan zegoen, eta Bob berriz, ziurregi ez zegoen arren, Nikolasi laga zizkiolakoan.

Kluba ez zegoen gaizki. Sabaian bi oihal luze krema kolorekok irazten zuten argia, eta haizea sartzen zenean mugitu egiten ziren emeki-emeki, lokalari nolabaiteko ekialdeko kutsua emanez, sabaiko argi ttipiek oihalen tolesturak nabarmentzen zituztela. Lokalaren erdian, dekoratzaileek saihesterik izan ez zuten zutabe bat, salmoi koloreko larruzko plaka batzuez estalia. Atea bikoitza zen, egur ilunekoa, eta mahaiak biribilak, gutxi batzuk baino ez. Lokala txiki samarra zen lehen begi kolpera. Eskuin horman, aireplano bat izan zitekeen eskultura abstraktua zegoen zintzilik, eta ezker aldean, hondoan, barra luzea, Bobek tele-aurkezle baten traza hartzen zion zerbitzari blonda batek zaindua. *Nikholai & Ieregi band* izenez aurkezten zituen kartel batek, argazki eta guzti, baina itxuraz, eta Bob klubera

tronpeta-zorro zurruna eskuetan zeramala heldu zen arren, zerbitzariak ez zituen berehalakoan ezagutu.

Itxuraz behean jo behar zuten, aspaldi hartan erabili ez zuten soto hautsez betean. Nikolasek pianoa non ote zen galdetu zuen eta emakume blondak errezelen atzeko zokoa seinalatu zion, gogo handirik gabe. Han zegoela trastea. Gustatu zitzaion pianoa, eta hori bazen zerbait, Nikolas oso ongi ohituta baitzegoen piano kontutan. Emanaldi bakarrerako kontrataturiko bateriajolea eta kontrabaxujolea arratsaldeko seiak arte etortzekoak ez zirenez, kanpora atera ziren, gau hartako hura, trantsiziozko saio hutsa baino zerbait gehiago izan zitekeela susmatu gabe (kontzertu bat gauero, hiru mila dolar hilero; hura guztia, bere begietako trenari ihes egiten uztearen truke, Klararen azal leun, dinastikoa, ahaztearen truke).

Portuan bazkaldu zuten, urri, eta garagardo zenbait –dezente– hartzera zuzendu ziren gero hiriko erdigunera. Hamargarren errondara heldu zirenean, Nikolas serioak katagorri begiak jarri eta lokalera abiatu ziren zigarro bana ezpain ar-

tean hartuta, norbere garuneko tabako landaketak elikatuz. Zain zeuden dagoeneko musikariak. Hauen puntualitateak eta seriotasunak harriturik utzi zituen Bob eta bere laguna. Ez zen batere ohikoa gau bakar baterako kontratatu musikariengan halako fundamenturik. Bizkarrezurraren zuzenari behatuz gero bere aurreko bizitzan pertxero izana behar zuen kontrabaxujolea zutik zegoen, eta bateriajolea berriz, eserita. Bien bozeramaile papera bereganatua zuen itxuraz baxujoleak, bera izan baitzen hitz egiten lehena. Droga merkantziaren baten zain dagoen kontaktuaren hoztasunaz mugitzen zituen pertxero hark ezpainak.

– Partiturak? Non daude partiturak?

Bobek Nikolasi begiratu zion eta Nikolasek Ieregiri. Ez zegoen partiturarik, ahaztu egin zitzaizkien, pentsioan, maleta barruan, libururen baten tartean, auskalo non. Erle bat pasa zen Boben begien aurretik –aire katastrofe bat gogorarazi zion– eta katagorri begiak inoiz baino nabarmenago ikusi zituen Bobek Nikolasen aurpegian. Horrelakoetan, Bobi zegokion gauzak bere lekuan jartzea.

– C’est bonne! Ez daukagu partiturarik!

Bateriajole ihar zuria frantsesa zela berehala antzeman zuen Bobek, eta haren hizkuntzan zerbait esateak bikoteen arteko izeber eskerga haren punta hondoratuko zuelakoan zegoen. Boben lasaitasuna ez zuen, ordea, hirukoak batere ondo hartu. Ekitaldia zazpi eta erdietan hastekoa zen. Ez zeuden txantxetarako. «Europar presakume hauek», otu zitzaion Bobi, «New Yorken hamabiak arte ez dituk hasten». New Yorken, gutxienez, denbora izango zuketen pentsioraino inguratu eta partiturak bilatzeko, edo besterik ezean pieza berriren bat asmatzeko pentsioko errezepzionistaren baten omenez. Inork ez zuen ezer gehiago esan, bateriajoleak gabardina jantzi eta alde egitekoa egin zuen arte.

– C’est bonne! Ez daukagu partiturarik, eta? A zer nolako zuringo koadrila! Partiturak, emakumeak... nork behar ditu? Nik ez dut partiturarik behar musika jotzeko...

– Emakumerik ere ez duk beharko, noski, larrua jotzeko, ala?

Pertxeroa zen berriz ere kapelua bururatuz hain zorrozki mintzo zena. Bobek hasiera batean

uste izan zuenaren kontra, kontrabaxujolea ez zen frantziarra, iparraldekoagoa zatekeen, holandarra, edo agian danimarkarra, eta jakina zen: zenbat eta iparralderago, orduan eta handiagoak ziren izeberrak. Azkenean, ordea, whisky edalontzietakoa izan zen hango izotz guztia, eta botila pare bat husterako, Bobek emakumeen beharra onartzea lortu zuten, ez, ordea, partiturena. Lau Castro Scotch Whisky botila hustu zituzten ordu erdian. Nikolasek ez zuen whiskyrik edaten. Berak garagardoa bakarrik. Ahal bazen Heineken. Ez zen entsegu handiren premiarik izan.

Seiak eta erdietan leporaino beterik zegoen lokala. Baina bateriajolea zen orain inondik inora ere ageri ez zena. Zazpiak hogei gutxitan azaldu zen, arnasestuka, larruzko zorrotxo bat eskuetan zekarrela.

– Non arraio sartu haiz? Kezkatzen hasita geundean.

– Motel, jakingo bahu... Hondarrik gabe geratu nauk eta hondartzara inguratu behar izan diat.

– Hondar bila? Erratzmokoa! Zer moduz hurrengoan mingainarekin igelak lehortzera bidaltzen bahaugu? Tira, has gaitezen lehenbailehen artaldea erretxindu baino lehen –gortina xehea eskuaz ireki eta eszenatokian sartzera gonbidatu zituen Bobek.

Txalo gutxi batzuk.

Bateriajoleak larruzko zorroa askatu eta hondar eskutada bat isuri zuen danborraren gainera. Kea zegoen erruz lokalean eta Bobi nekeak gogorarazi behar izan zizkion lorik egin gabe zeramatzan lau egunak. Nikolasen piano beltzaren gainean lauki bat osatuz zeuden lau Heineken botila berdeetako bakoitzeko egun bana zeraman lorik egin gabe, bere buruko amapola landaketei amore eman gabe. Oholtzari jo eta jo ari ziren beti arotzak. Jasanezina egiten zitzaion mailuaren hotsa. Bizi izan zen apartamentu guztietan, bisitatu izan zituen pentsio guztietan, beti egokitu izan zitzaion paretak zulatu edo lurra mailukatzen zuen auzokideren bat. Ihes egin nahi zion zaratari eta hartarako bateriajoleak bere danborretan hondarra behar zuen bezainbat behar zuen Bobek bere tronpeta. Ke guztia

bere begiek bereganatuko balute bezala zen, lokomotora baten ke guztia bere begietan. Ordea, ez zen bere begietan inongo trenbideren arrastorik. Mina sentitu zuen Bobek begietan. Hasteko garaia zen.

Eskuilei eragiten hasi zen bateriajolea, danbor gainera isuri zituen hondar aleak batera eta bestera labaintzen, euria ari zueneko inpresioa sortuz. Boben txanda ere heldu zen, eta lehen soloak ez zuen gau txarrik iragarri. Jo eta su aritu ziren gau hartan, kantu bat bestearen atzetik joz, geratu gabe, jendearen txalo gero eta sutuagoak piztuz. Ohartzerako, goizeko ordu biak ziren. Nikolasek sei aldiz egin zion Bob Ieregiri bukatzeko keinua, baina bere barruan bazen zerbait jarraitzera behartzen zuena, gau hura errepika ezina zelako, ezingo zuelako segur aski inoiz gehiago hain erraztasun izugarriz labaindu, *in the train through your eyes,* bere begiak zeharkatzen zituen trenean barrena. *In the train through your ice.* Klararen begi urrunak estaltzen zituen izotzaren ametsean. Trenbideko marrazek gau hartan ez zioten ebakirik egiten ezpainetan, tronpetaren ahokoa bete-betean egokitzen zi-

tzaion mingainera, arazorik gabe inprobisa zezakeen perkusioak markatutako edozein estandarren gainean. Ihes egiten zien bere lagunei, galdu gabe halere, kontrabaxuak lotzen baitzituen tronpetaren doinuak gainerakoekin, espazio askean dabilen astronauta soka batez ontzira loturik dagoen eran. Baikortasunez beterik «C'est bonne! Ez daukagu partiturarik!» esan zuenean ere, ez zuen inolaz Bobek hain gau biribila espero. Bista lausotzen joan zitzaion, toffee kolorea hartzen zuen aireak, toffee zaporea aulkiek eta ikusleek, erdizka irekitzen zen ateak ere toffee zaporea. Begiak itxi zituen Bobek *Body & Soul* kantuaren azken bihurgunea hartzeko, eta ireki zituenean, lokala hegazti tisikoz eta anakondaz beterik zegoela ikusi zuen. Denak zutiturik, txalo eta oihuka.

Argi eskasak toffee koloreko egiten zituen Nikolasen esku iletsuak ere: tarantula bi pianoko eskaileretan gora eta behera, eskailera maila batzuk garbituak eta beste batzuk berriz hautsez beltz. Bolivia auzuneko bizilagunek ez zuten alboko atekoei zegokien eskaileraren aldeko zatirik erratzez pasako. Bi tarantula berriro pianoko

eskaileretan. Katagorri ez ezik, armiarma ere izana zen Nikolas aurreko bizitzaren batean, otu zitzaion Bobi.

Bateriako danborrean hondarrak dunak osatzen zituen. Basamortu bukaezin baten tolestura kurbatuetan zaldi bat zihoan trostan. Zaldiak tronpeta urreztatu bat zeraman lepoan zintzilik. Zaldunaren arrastorik ez zen. Agorafobia ote zuen zaldun hark?

Zaldunaren arrastorik ez zen inon.

Izerdi patsetan zegoen Bob, dena emanda, ezin bere gizentasunean alkandora loturik eutsiz. Eta kontrabaxuaren harietan lau haizetara lehortzen jarritako alkandora eta emakumearen barneko-arropak ikusi uste izan zituen arte ohartu ez zen arren, erabat joanda zegoen bere baitatik, bafada bakarrean botila bat CSW hustu balu moduan, erle bat balebil bezala bere zainetan barrena, *in the train through your eyes.*

Atentzioa jarriz gero, edonor ohar zitekeen Nikolasen piano gainean lauki bat osatuz zeuden lau Heineken botila hutsek ring baten antza eduki zezaketela, lokaleko argi tolestuek soka ziruditen itzalak dibujatzen zituztela pianoaren

erdi-erdian, eta ring huts hartan eroritako garagardo tantak zirela haien artean borroka egiten zutenak, ring-etik atera, pianoaren ertzera heldu eta bertatik bere burua aurrena nork botako; suizidioa den salbazio gozoa nork lehenbizi erdietsiko. Shakespeare izeneko saxojole haren hitzak.

Lehertuta heldu ziren pentsiora. Hamabietatik aurrera moztu egiten zuten argindarra, eta gasik ez zegoenez, ura izoztuta ateratzen zen iturritik. Bobi bere maiteari deitzea besterik ez zitzaion otu, baina mesanotxean zegoen telefonotik deiak jasotzea haizu zen arren, ezinezkoa zen zenbakirik markatu eta norbaiti bertatik hots egitea; telefonoa egurrezko kutxa antzeko baten barruan giltzaperaturik zegoen, halako moldez non giderra eseki eta zintzilika baitzitekeen, baina inolaz ere ez zenbaki bat markatu. Telefono kaiolatua. Bob biziki haserretu zen, baina berehala ohartu zen alferrikako lana zatekeela kutxa hura txikitzea, Ameriketara deitzeko aurrezenbakia zein zen ez baitzuen gogoan. Estropezu egin eta komuneko iluntasunean urez bete zuen konketa, aurpegia freskatzeko asmoz. Urak soinu lehorra egiten zuen, bere bidean kartoia-

ren aurka talka egingo balu bezala. Ez zuen komunetik atera eta gelara sartzeko indarrik izan. Iturria hersten ahitu zitzaion gau hartako metxa. Dutxako errezela tapakitzat hartu eta lo geratu zen bainuontzira sartu orduko, konketaren ondoan eskegirik zegoen xukadera zuria burko gisara hartzeko paradarik izan gabe.

Hurrengo goizean, tinta eta ur arrasto urdin bat zihoan konketako urbegian behera, eta urak erdi ezabaturik, konketaren hondoan topatu zituen Nikolasek, besteak beste, *Tijuana gift shop, Flamingo, Night in Tunisia, Girl called Iceland* eta *Lullaby of Birdland* kantuentzat egin zituzten moldaketen partiturak.

Bob berriz bainuontzian zegoen, lo seko, dutxako telefono herdoildua belarri ondoan zuela, amets gozoren batean amildurik. Isil-isilik, dutxako ura zabaldu zuen Nikolasek. Bob bat-batean esnatu zen, ura belarritik sartzen zitzaiola.

– Alua, garbituko haut!

Ezin esan, ordea, Bob haserre zegoenik. Erdi barrezka ari zen esnatu berria, vodka lehortuaren itsaskortasuna zuen ur lodi hura alkandoratik xukatu nahian. Ordu laurden baten buruan, ispi-

lu puskatuaren aurrean bizarra egin, (Gillette marrazak ebaki bikoitza egin zion masailean: trenbide gorri bat zirudien zauriak, *in the train through your eyes...*) alkandora berri bat jantzi eta pentsioko leiho bakarrera zuzendu zen lur kraskakorra pauso neketsuz zeharkatuz. Leihoa bakarra bai, baina ezin esan ikusmira makala zenik. Hiri guztia ikusten zen handik, langarraren eta behelainoaren pean, itsas zabala barne.

– Polita duk benetan hiri hau, Nikolas. Ez zakiat, oso neure sentitzen diat, horko portu industriala eta guzti, nola esan, aurreko bizitzaren batean hemen egona banintz bezala.

– Bai, zoragarria duk. Berunezko saxoen antza zeukatek garabiek ere.

– Egia, aixkide, egia. Berunezko saxoak!

– Dena den, hobe duk lehenbailehen jantzi, Bob, ez zeukaagu denbora askorik, Sint Clarako estazioan egon behar diagu ordu erdi barru.

– Sint... Clara esan al duk?

– Sentitzen diat, ez neukaan gogoan.

– Ez dik axola, hermano. Nirea Klara zuan, Klara, besterik gabe –zizpuru luze bat egin zuen Bobek; behelainoa, ezarian-ezarian, gelan bar-

neratzen ari zela zirudien, bien arteko ikusmira lausotuz, gelako altzarien ertzak baporez difuminatu eta kamustuz–. Behin honetaz gero, nire izena ezkongai suizidatuko direnen zerrendan dagoela esango nikek.

– Tira, Bob, ez hadi horrela jarri. Baldarra nauk gero. Nahi al duk kaferik?

Nikolas Holoborodko pentsioaren egongelako ertz batean kokaturiko sukaldetxora inguratu, eta sutan berotzen jarri zuen kafetera. Sua piztu orduko, su-lama urdin bizietara lerratu zituen begiak Bobek. Urdin kolore elektriko hark gaztaroko auzoak ekarri zizkion gogora, eta, bide batez, Gauloises paketearen urdina ere ekarri zion akordura. Non demontre galdu ote zituen zigarroak? Paketearen bila, eskuekin poltsiko hutsei alferrik tapaka egiten zien bitartean, goibel sentitu zen Bob Ieregi, norberarena ez den amets batean esnatzen denaren sentipenak etsiturik.

Joe Panda, pisu astuna haizeak eraman

Garagardoa bazen boxeolarien izerdia, Nikolasen piano gainean lauki bat osatzen zuten lau Heineken botila berdeek ring bat marraztuz zerraiten oraindik, eta lokaleko argi keinada tolestuek soka ziruditen itzalak dibujatzen zituzten pianoaren erdi-erdian. Itzalek dibujaturiko sokek lau Heineken botilak lotzen zituzten, laukizuzen perfektu bat osatuz. Koadrilatero haren erdian borrokan ari ziren Jimmy Kolirio eta Joe Panda.

Begizulo sakonak zituelako deitzen zioten Panda. Gau hartakoa zen bere tituluaren hirugarren defentsa, ordura arte argazkietan soilik ikusi zuen Jimmy Sanchez Kolirio gaztea arerio zuela. Argazkietan baino sendoago eta garaiagoa zen aurrez aurre. Xukadera taburetearen ondoan baztertu eta estreinako kanpaikada entzun zuen unea zeukan gogoan, lehen round-ari ekin aurretik bitaminak zirela esanez eman zizkioten hiruki itxurako pastilla arrosak, hiru bat-

biko sabelean, crochet-ak eta hook-ak bata bestearen atzetik, erleen zorabioa fokuetan, ahuldadea apenas sentitzen zituen beso lokartuetan, muturreko zoritxarreko bat barailezurrean, eta sudurreko ezker leihatilatik odola zeriola, baina hortik aurrerakoez ez zen batere akordatzen. Pastilla arrosen eta kanpai hotsaren ondorengoa, bere burua ametsezko igogailu batean sartzen ikustea izan zen.

Bi emakume zihoazen bere ametseko igogailuan, bata ilegorria, oso altua, laurogeita bost bat urtekoa baina arras tentea eta ongi jantzia. Bestea, ile motzeko neska beltzaran gazte bat zen, gasa iluneko alkandora bat soinean zeramana. Joe hasi zen hizketan.

– Zein solairutara zoazte?

– Bosgarrenera.

Amona ilegorriak erantzun zuen, beltzaranak, mutu, bere sorbalda Joerenera inguratu zuen bitartean. Joe ezker hormara hurbildu zen botoia sakatzera. Igogailua oso dotorea zen, antigoalekoa, eta botoitxo gorriak eraztun doratuz zeuden inguratuak. Baina, botoitxoa sakatzera zihoan une berean, harriduraz ohartu zen Joe bost botoi-

txo gorri haietako azken bietan «4» zenbakia jartzen zuela. Ez zegoela bosgarren pisurik, bi laugarren solairu zeudela. Joek beltzaranari so egin zion. Honek beragana gerturatzeko keinua egin zuen, eskuin eskuko hatz txikia ezpain artean zuela. Nora ez zuela geratu zen Joe Panda, beltzaranak jakako botoiak deslotzen zizkion bitartean, jakaren hegaletatik heldu eta beragana erakarriz boxeolaria, belaunburu biluzia Joeren hankartera hurbilduz emekiro. Besoak Joeren sorbaldan zintzilik bezala utzi eta irribarre egin zion neskak boxeolariari. Gero, apur bat gehiago gerturatu zuen aurpegia, Joerenganantz lepoa okertuz, ezpainetara heltzeko tartea mugimendu bakar batean egiteko luzeegia balitz bezala. Neskaren ezpainak bere ezpainetara hurbildu eta mihi puntaz bereak eta Joerenak distirati uzteraino deblauki hezetu ondoren, luzaro iraun zuen musukatzeari ekin zion neskak, besoak boxeolariaren sorbaldetatik trapezio geldi eta kulunkarien gisan zintzilik kateatuta. Ondoko amona tantaiak eztul txiki bat egin zuen. *Ejem*, disimuluan eta nahi ez duenak bezala.

– Mesedez... Ez duzue pentsatuko horrela... hemen, tira...

Neska beltzaranak Joeren oinetara begiratu zuen. Itxura zarpail eta bitxia zuen Joek: zapata bat gorria eta bestea beltza zituen. Oso ahots goxoa zeukan neskak lehendabiziko aldiz hitz egin zuenean. Gaindosiaren mugan den heroinazale batenak ziren haren begiak.

– Egia da, zapata bat gorria eta bestea beltza ditu. Mila esker ohartarazteagatik, andrea.

Benetan sentsuala zen haren ahotsa. Marlene edo Marilyn izenari zegokion moduko ahotsa. Zapatak kendu zituen neskak eta berdin egin zuen mutilarenekin, belaunarekin boxeolariaren izterrartea deblauki laztantzen zerraiela. Joeri eskumuturretik heldu eta neskak bere izter leunetan behera sarrarazi zituen Joe Pandaren hatz lodiak. *Body & Soul.* Gasazko alkandora deslotu zuen gero emakume misteriotsuak. Ez zeraman bularretakorik. Joe sutan zegoen. Gonaren kremailera askatu zion, ipurmami hotzetan esku biak sartuz, hatzez azalaren leunari jarraiki, itsasoak ekarri bide zituen alga busti eta epelak bere hatz puntetan asmatuz. Ezpain-kokotsak

busti eta musuak leporaino luzatuz, izter gurutzatze besarkatzeetan hasperenei eutsiz, ipurmasailak elkarri estutuz luzatu ziren. Itsas belarren izter inguruak miazkatu zituen Joek behetik gorantz abiatuz, begirada bezain zorrotzak ziren titimutur zutak umeltzeko gero. Neska beltzaranak Joeren hankarte puztuko botoiak askatu zituen, banan-banan, ia oharkabean.

Amets bitxi eta aztoragarri haren kondarrak ezpain artean zituen oraindik, periferiako ospitale hartako gela zikinean esnatu zenean. Ez zuen inor inguruan. Bakar-bakarrik zegoen, laugarren solairu huts hartan, eta ez zuen bigarren asaltoan kaoz erori zenik gogoratzen. Bihotz ttipiak ziruditen pastilla gorrixka haiek bakarrik zituen gogoan, bitaminak eta kanpai hots bakarra.

Medikuek erotzat hartu eta pena ere sentitu zuten Rotterdameko karrika ospel batean, bazterrean botata eta urdailean hirurogeita bost gramo trofanil zituela aurkitu zuten gizon hura azken bi urteetako pisu astunetako txapelduna zen Joe Panda zela esaten hasi zitzaienean. Lekutan azaldu zen bada. Telebista bat eskatu zuen Joek: gaueko berrietan emango zuten bere

konbatearena: ikusi beharra zeukan zenbat asalto iraun zuen. Baina astebete igaro zen jadanik konbatea izan zenetik eta komunikabideek ez zuten dagoeneko hartaz hitz egiten. Gainera, hura guztia gutxi bazen, Buenos Airesko Luna Parken izan zen borroka eta Joe Panda gizajoa Atlantikoaren beste aldean azaldu zen konorterik gabe, Beluna Moon izeneko klub baten ondoan. Bere baitatik aterata, telefono bat eskatu zuen hurrena Joek. Medikuek sedante bortitz baten efektuen pean lasaitu behar izan zuten azkenean.

Joe Pandari egin zioten zakurkeria ez zen erraz barkatzeko modukoa. Tongoari engainua eta umiliazioa eransteaz gain, boxeoaren mapatik zaplateko batez ezabatu zuten. Harritzekoa zena zen, nolatan ez zizkioten Luna Parken bertan bi tiro eman. Gorpua ezkutatzeko zailtasunak-edo. Auskalo. Ikaragarri sufritu zuen Joe Pandak punching-bag bat gehiago sekula kolpatuko ez zuela ohartzean. Denboraren poderioz, ordea, bere patua onartu eta aurrekoa ahazturik, hutsetik hasita bizitza berri bati ekitea lortu zuen. Ordea, egun batean, iratzargailuaren

hotsa entzutean, konbateetako kanpaikadez gogoratu eta garai bateko ring-a jabetu zen berriro bere pentsamenduez, eta inolako motibo jakinik gabe, nahastu egin zen ostera, haluzinazioen biktima bilakatu zen, zoramenaren uppercut-en menera erori.

Bere espejismoa ez zen espejismo arrunta, entzumenezko isladura zen bere hura. Telefonoaren hotsa entzuten zuen edozein ordutan, zegoen lekuan zegoela. Bazkaltzen ari bazen, tupustean uzten zuen askotan mahaia, telefonoari erantzun behar ziola eta, mesedez, barkatzeko unetxo bat. Bisitaren baten zain zegoenean ere, edota zituen lagun urri horietakoren baten etxean, berak soilik aditzeko moduan telefonoaren hotsa sumatu uste izaten zuen, eta alferrikakoak ziren, «Joe, zure irudipen bat zen» edota «Joe, guk ez daukagu telefonorik» bezalako desenkusak, berak telefonoaren bigarren, hirugarren eta laugarren deiak entzungo baitzituen, gero eta urduriago, telefonoa non zegoen ez zekielako. Izerdi patsetan jarriko zen adrenalinak emozioa eta portaera arautzen dituen garunaren alderdia busti orduko, eta mahai azpietan, ar-

mairuetako arroparen tartean, tiraderatan, telefonoaren bilaketari lotuko zitzaion kumea kendu zaion basurdearen gisako, harik eta hamahirugarren txirrin hotsak bere entzumenezko isladura hura amatatzen zuen artean. Dei imajinario hauetako batean, hirak eta bortizkeriak harturik etxeko altzariak leihotik botatzen ari zela, bizilagunek Poliziari deitu eta errinozero bat zerraldotzeko adinako lo-pilulak eman behar izan zizkioten lasai zedin.

Joe bere senera itzuli zenean, askozaz ere lasaiago eta orekatuago sentitu zen. Amesgaizto luze batetik esnatzea egin zuela iruditu zitzaion. Gimnasio batean zegoen. Jendea entrenatzen ari zen eta eskularruek hondarrezko zakuen aurka talka egitean sortzen zuten zarata paregabe hura gozamena zen bere belarrientzat. Izerdi usaina lixibarenarekin nahasian heltzen zitzaion sudurreko usna-ildoetara. Baina begi irekiek esnatu berriaren lausoa galdu zutenean, gimnasioa izateko estuegia zen gela bat topatu zuen; lixibaren usaina benetakoa zen, baina izerdiarena uste zuena jarabearena iruditzen zitzaion orain, eta zakuen aurka entrenatzen ari ziren bo-

xeolari gazteak erizainak baino ez ziren, oheei izara garbiak jartzeko bere inguruko ohe hutsetako burkoak eta koltxoiak astintzen zituztenak. Zuringoz beteriko paretarte hark ez zuen Alaska beste izenik merezi.

Geroztik, ordu anitz eman zituen Joe Pandak «Espejismoen gela» batean isolatuta. Akoltxaturiko hormei ukabilka. Bere managerraren deiaren zain jarraitzen zuen oraindik. Bazekien bere agenteak ez zuela bakarrik utziko, eta gaur edo bihar hots egingo ziola: Jimmy Sanchez Kolirio, aurrez aurre ikusita argazkietan baino askozaz ere handiagoa zen haren aurkako errebantxa lortuko zion gaur ez bazen bihar, berandu baino lehen, hori seguru. Entrenatu beharra zegoen egun handirako. Akoltxaturiko hormei ukabilka, entrenatu.

Iritsiko zen eguna Kolirio hura mingainarekin igelak lehortzera bidaliko zuena. Bai horixe. Iritsiko zen eguna.

Erlerik eztiena

Printzeari jazza gustatzen zitzaion ikaragarri. Aspaldi gertatu zen. Gauerdiaren ondoren hondartzan feltrozko sonbreiru beltz hura azaldu zela bada makina bat denbora. Ohartu ginenez, inork baino hobeto jotzen zuen sonbreiru hark Cedarren bluesa. Norbaitek Charlie Parkerrena ote zen aipatu zuen. Baina ez, kapeluak zuen sordina itxuragatik tronpetajole batena izan behar zuen derrigor.

Gaur ere oraindik ilara luzeak egon ohi dira hirian irekita dirauen antzoki bakarraren inguruan. Bertan egiten diren frogetan parte hartzeko desiraz inguratzen da jendea, baina orain artean, inori ez zaio hondartzan aurkitu zuten feltrozko sonbreiru beltz hura behar den moduan burura egokitu.

Hiriko printze urdinari urdintzen ari zaio ilea eta nahikoa itxaropenik gabe dago azkenaldian. Badirudi –eta hala esaten du jendeak isilean– sonbreiruaren jabeak sekula gehiago ez itzultzeko asmotan alde egin zuela.

Paradiso Irratia da hau. Lurbiran dabilen lorategiz betetako satelite batetik mintzo natzaizu ni, Susana Q, plazer baduzu, eta badakit plazer duzula...

> Charlie inoiz baino hobeto ari da jotzen
> mutikoa ezkutatu da billar mahaiaren azpian
> (mutikoak badaki zer egin, badaki zer egin)
> eta Smithers andereak ezin du lorik egin
> o, ez, Smithers andereak ezin du begirik bildu
> kontrabaxuak behin eta berriro dio:
> zenbat tren leihoan insomnio guztiak dastatzeko ere

Radio Paradiso. Azken albisteak: Marvin Gaye soul abeslari ospetsua era penagarri batean hilik suertatu da gaur Los Angelesen. Bere aitarekin eztabaida latza izan ondoren, azken honek tiro egin dio oreinak ehizatzeko Winchester eskopeta batekin gaur bertan berrogeita lau urte bete dituen abeslariari. Marvin Gaye, larriki zauriturik, arrebak eraman du ospitaleraino, hara gorpu heldu dela. Medikuek adierazi dutenez, bularrean jasotako tiroa izan da heriotza ekarri diona. Marvin Gaye, Washingtonen jaiotako abeslari arrakastatsua, elizako organoa jotzen hasi zen bere jaioterrian, eta AEBetako Aire Ar-

madan hainbat urte igaro ostean, hegazkin istripu baten ondoren musikara irauli zuen bere indar guztia: Marquees izan zen hark sorturiko lehen taldea, 1957an. Geroztik hainbat talderekin kolaboratu zuen, harik eta 1961ean bere bakarkako lehen lana argitaratu zuen arte. Bereak dira, besteak beste, *Sexual Healing* eta *I heard it through the grapevine* kantu entzutetsuak edota *Let's get it on* diskoa. Musika mota ezberdinak lantzen dituzten hainbat kantarik aitortu izan dute bere aitzindaritza, hala nola, Stevie Wonder, James Taylor edota Mick Jagger berberak. Horixe da, bada, azken berri tamalgarria: Marvin Gaye, bere aitak berak, oreinak ehizatzeko eskopeta batez eraila eztabaida sutsu baten ondoren. Albisteak dioenez, kantariaren aita atxiloturik dago uneotan egoitza psikiatrikoren batera eramana izateko esperoan.

Anatolek emakumeei buruz hitz egiten du

– Ea bada, Anatol, hitz egin dezagun emakumeez.

– Ez, Nora andrea, hori ez. Nire liburuetan ez nuen sekula emakumeez idatzi.

– Zergatik ez, Anatol?

– Ez daukat esatekorik gai horri buruz. Esatekorik batere ez.

– Beldur diezu emakumeei? Gaiztoak direla irizten diozu agian, Anatol?

– Ez. Hondar bihurtuko dira Alaskako paretak, hondar bihurtuko dira.

– Ez erroak utzirik adarrei lotu, Anatol, emakumeez ari ginen.

– Adarrik ere ez da geratuko ordea, Nora andrea, ez al duzu ulertzen? Dena bihurtuko da hondar, erro eta adar...

– Hitz egin dezagun erizainez. Ez dituzu erizainak gustuko, Anatol? Zer esaten didazu Anari

buruz? Azkenaldi honetan asko begiratzen diozula esango nuke.

– Ana hegoaldekoa da, Nora andrea.

– Hegoaldekoa, ongi. Besterik?

– Hegoaldea oso leku idorra da, andrea, hegoaldean hondar asko dago, ikaragarri. Saharan egin nuen nik soldadutza eta sinets iezadazu, Saharak ez du ilargiarekin zerikusirik. Ezta hurrik ere. Horregatik esaten dizut laster hau ere hegoaldean egongo dela, neoizko hizkiak jarriko dituzte laster: ONGI-ETORRI HEGOALDERA; HAU HERRIALDE LIBREA DA; ZERGARIK GABEKO ARDI LARRUA SALGAI. GEHIENEZ ERE HIRU PARE. Baina sandalioa ez den edonork daki Waterloon behar zituztela ardi larruz eginiko jakak. Guk ez dugu horrelakorik behar. Hegoaldea etengabe handitzen delako, eta iparraldea berriz txikitu, Alaska urtzen ari da, Nora andrea, eta horixe da Napoleonek ez zekiena.

– Zer esan nahi duzu horrekin? Alaska... urtzen?

– Bai, hegoaldea handitu egiten da eta zerua aldatu, zerua handitu. Brujula berriak egin beharko dituzte erradiadoreekin. Orain modan

dago birziklatzearena, ezta? Ba hori, erradiadoreak birziklatu eta brujula berriak egin beharko dituzte hegoaldea hobekiago, zehatzago markatu dezaten. Gu ordea ezingo gaituzue birziklatu, Nora andrea, gure norabidea zuzenduko duen iparrorratz izan nahi duzue, baina ai, hori ezinezkoa da. Gure eromenaren norabidea ez dago brujula horien menpe. Brujula horiek ezin dute gurekin nahi dutena egin. Brujulak ez dira emakumeak bezalakoak, Nora andrea. Bai, brujulak emakumeak bezalakoak balira, lortuko lukete gura dutena. Baina ez. Brujulak ez dira emakumeak bezalakoak, ezta hurrik ere. Emakumeek beti irabazten dute, edozein delarik ere jokoa, irabazten utzi nahi dizutenean ere, nahi gabe, haiek irabazten dute beti. Baina brujulak ez dira emakumeak, hortxe dago gakoa.

Someday, my princess will come

Bob Ieregik ez zituen gauza asko oroitzen, gero eta gutxiago, egia esatera, amapola zelaiak hektareaka, etengabe hedatzen baitziren bere garunean barna, ahanzturaren arrasto gozoa utziz bere bidean. Ahaztea, suizidio txiki hori. Europako pentsio guztietan bonbillak sabaitik zintzilik egoten zirela oroitzen zuen bakarrik. Oinez ibiltzean pendularki mugitzen zirela. Askotan erori ere egiten zirela. Gustuko zuen ordea Ieregik bonbilla baten hotsa lurraren aurka apurtzen. Ez zekien ziur zergatik, kristal mehearen apurtzeak suizidioaren suzedaneotik zuen hura, akaso. Ahanztura, beti gogoan.

Bob Ieregik ez zeuzkan buruan Europako jira bedeinkatu hartan kontzertuak eman zituzten herri guztien izenak. Gogoan har zitzakeen konstelazioen izenak eta zigarro marka ezberdinen izenak, nahi adina, baina ez herrien izenak. Gauza da, Europako jira bukatzear zegoela, Pari-

sen ekipaia guztia eta ordura arte irabazitako dirua lurrundu, desagertu egin zirela Marguerite pentsiotik. Hiru astetako lanaren fruitua ibaiaren hondora botea, amuarrainen bazka. Pentsio sarrerako emakume kaktus itxurako eta adinean sartuxeak ordainketa atzeratzea posible zela esan zien, hurrengo astean ordain zezaketela une hartan diru askirik ez bazuten. Zer eta, hurrengo astean ordain zezaketela esan, kaktus itxurako atsoak, begiak berripaper letra ttipidunen trenbide anitzetatik altxatu ere egin gabe. Jendarmeriako buruak ez zuen gaiaz ezer jakin nahi izan. Enbaxadako idazkariordeak ostera, sentitzen zuela benetan, nahi izanez gero Estatu Batuetara dei zezaketela enbaxadatik, bost franko baino ez zizkiela kobratuko, «konfiantza dagoen lekuan, badakizue», enbaxadako idazkariordearen eskuzabala, sabai diplomatikotik bonbilla bat erortzen zenetan behintzat, ez zuten han arazorik izango, bonbillak ez zuen lurrik joko, ez, idazkariordearen esku zabal beti irekietara joango zen zuzenean bonbilla, erortzen zen lekuan erortzen zela ere, zabalaren zabala, hain zabal beti eskua, «bost franko baino ez, konfian-

tza dagoen lekuan, badakizue». Bonbilla kiskaltzen bazegoen hobe, otu zitzaion Bobi, enbaxadako leihotik argi izpi gorrizta bat sartzen zenarekin batera. Nikolasek, haserre bizian, errusieraz arrapostu zion zerbait paperkume hari (Bobek ez zuen sekula Nikolas errusieraz hitz egiten entzun, honek bere izen artistikoa Nikholai Holoborodko mantentzen bazuen ere) eta enbaxadako lanariak begi gaiztoez so egin zien biei, «falta zitzaidana, beltz bat eta gorri bat, koadro kubista baterako ere, aukeran» esanez bezala bere kabutarako. Komunista eta disidente izateagatik biak auziperatu aurretik, Nikolas zintzurretik heldu eta kanpora aterarazi zuen Bobek.

Zerua goian eta lurra behean, eta tartean ezer ere ez, ez ezti, ez ezko. Erabat lur jota geratu ziren. Parisko Latin Auzoko kontzertu hura maldan beheraren jarraipena izango zen, itxura guztien arabera. Baina hara non, batere erritmo eta jam-ik gabeko kontzertuaren atsedenaldian, Bob eta Nikolasen kamerinoan kaxk, norbaitek jo zuen atea.

Bera zen.

Ispiluan ikusi zuen Bobek, boneta gorria eta soineko estu hura jantzita zituela. Jiratu eta aurrez aurre ikusi beharrean, ispiluan begiratu zion Iuzaro, ispilu hark ere marihuana erre balu bezala, ispilu ero hark ozeanoaren bestaldeko irudiak ekartzeko ahalmena nola izan zezakeen ba, bestela.

– Kaixo Bob.

– Klara Miao! Fundi nadila! Baina zer egiten duzu zuk hemen?

Ordea, galdera hark ez zuen erantzunik eskatzen, ez berehalakorik behintzat. Besarkada batean batu ziren biak. Luzaro egongo ziren besarkaturik, ezen Bobek begiak ireki zituenerako Nikolas kamerinotik desagertua baitzen, katagorri isil bat bailitzan bere zuhaitzaren enborreko barrenutsean galtzen.

– Akabo, Bob, ezin nuen gehiago. Senarra tximeletak ferratzera bidali dut, doala igelak mingainarekin lehortzera. Ez dakit non eduki dudan orain arte burua. Nik beti maite izan zaitut, Bob. Bob Ieregi, nirea zara orain. Eta betirako. Nireak dira zure jabetza kredentzialak.

Parisen kobratutakoarekin hogei gramo marihuana eta hiru tren txartel erosi zituzten. Trena hartu eta, agentearen argibideei jarraiki, bederatzi orduko bidaiaren ostean heldu ziren heldu behar zuten erlauntzera: Rotterdam. Han, Bolivia izeneko auzo bat bilatu behar zuten, lau pisutik gora luzatzen ez ziren etxaldeek basituriko kale estuek osatzen zuten auzoa, eta Boliviara iritsirik, itsasaldera begira zegoen lokal bat zuten jomuga. Beirate zabalak ei zituen lokalak eta hiria eta itsasoa ikusten ziren barrualdetik: *Beluna Moon* izena zuen. Behin hura aurkituz gero, Sonny Piqueras delako bategatik galdetu behar zuten. Piquerasen lokalean kontzertu bakar batzuk emanda aise berreskuratuko omen zuten galdutako dirua. Hala esan zien behintzat agenteak:

– Piqueras honek xanpain frantsesarekin garbitzen ditik eskuak. Mafia kontutan sartuta zabilek, bai, baina nondik ateratzea nahi duk bestela dirua? Zuek zaretelako bidaltzen zaituztet hara, ez pentsa. Dexter Gordon izan zuan hara bidali nuen azkenekoa, eta badira hartaz urte batzuk. Aholku bat bakarrik emango dizuet arazorik izan

ez dezazuen: ezta okurritu ere Piquerasen baratzean sartzerik. Ulertzen?

Benetan lokal zoragarria zen hura. Ate birakor batetik sartzen zen. Egurrezko oholtza zabala zen oso, eta musikarientzat lekua arras erosoa zen haiek ohituta zeudenerako. Barra luzea eta billar mahaia zeuzkan, eszenatokiaren bestaldean. Sonny Piqueras zen han jaun eta jabe. Bere sikarioek eta lokaleko langile guztiek *Doktorea* izenez ezagutzen zuten, zuriz janzten zelako-edo, apika. Bazituen, dena den, bestelako ezizenak ere: *Lepogabea* esaten zioten zenbaitek, ez baitzuen trantsizio gunerik enborraren eta buruaren artean. Oskolaz babesturiko dortoka baten antza ere bazuen, mahaian eserita.

– Barkatu, Doktore. Bi musikari daude kanpoan, zurekin hitz egin nahi dute. Parisko ez dakit nork bidali omen ditu.

– Sarraraz itzak.

Berrogei bat urte izango zituen Sonnyk, atzeraka orrazten zuen beti ile beltz gomina aniztuna. Jendeak kontatzen zuenez, billarreko bola bat irentsarazi zion behin bere neska zirikatu zuen bizkartzain bati. Doktoreak jotzen ikusi nahi

zituen musikariak. Perkusiorik gabe egin zitekeen gauzarik txukunena egiten saiatu ziren. Lepogabeak baiezko keinu bat egin eta mahaira hurbiltzeko imintzio bat egin zien musikariei. Eskua estutu zioten Doktoreari. Agenteak gezurra esan zien, labanda usaina baitzuten Sonny Piquerasen eskuek. Bizkarraldean min ematen zuten egurrezko aulkietara bihurtu zirenerako, bi orri zeuden mahaiaren gainean, orri bat aulki bakoitzaren parean, tarte bakarrean mekanografiaturik, biek ala biek beheko aldean, ezkerraldean, Sonnyren sinadura zutela. Eskuinaldean, haien sinadurak botako zituzten zuriunearen gainean, bien izen-deiturak, haien harridurarako, mekanografiaturik hauek ere. Ez zen Doktorea denbora galdu zalea. Ez zien kontratuak irakurtzeko astirik ere eman.

– Dolarretara itzulita bost mila dira asteko, eta astelehenetan jai. Zergarik gabe noski, hori esan beharrik ere ez dago. Nice Katilun har dezakezue ostatu, auzoaren bestaldean dago. Ez da Sheraton hotela, baina tira, ez duzue leku hobeago batetik etortzeko itxurarik. Bihar bertan hasiko zarete.

Hurrengo gauean, beren estreinaldian, Beluna Moonera heltzean, klubera sartzeko ate birakorrean barneratu zirenean, ateak errebolber baten danborrak legez biratu ahala, beraien itzalak ikusi ahal izan zituzten ateko kristaletan. Sartu ahala, haien aurpegiak baino askozaz ere betizuagoak zituzten bi gizaseme atera ziren kalera. Haietako batek, bere aurreko bizitzan zaldi herren izanaren traza guztia zeukan, eta Bobek bezala, tronpeta-zorroa zeraman aldean.

Batzuei lekua egiteko, beste batzuek alde egin behar, halabeharrez.

Amesgaiztoa

Basamortu bukaezin baten tolestura kurbatuetan zaldi bat zihoan, erritmo biziz, galop infernalean. Begi opakoak zituen, marmol beltzean landuak, eta itsututa zihoan trostan, urrunean, oso urrunean, zerura ke-ildo fin bat luzatzen zeneko puntua erreferentzia hartuta. Harantz zihoan zaldiak tronpeta urreztatua zeraman lepoan zintzilik. Zaldunaren arrastorik ez zen.

Zaldunaren arrastorik ez zen inon ere. Ke-ildoa gero eta gertuago zegoen, ordea, eta detaile horretarantz desbideratzen zen ametsa, ezarian-ezarian.

Tigreak ehizatzeko argibideak

– Tronpeta jotzen duzunean, eszenatokiaren gainean, zera, fokuen argipean tronpetak urretan bustitako fusila dirudi, mila tximista jaurtikitzen dituen arma bat, fisikoki inofentsiboa, bai, baina hemen goian, hemen goian, buruan, eta hemen beheraxeago, Bob, hemen alkandoraren poltsiko parean zart egiten duen arma bat... Begira, ikusi zintudan lehen aldian... Pistoiei eragin ahala, zure gorputza makurtu eta indar betean mugitu ahala, zeru puskak harilkatzeko faktoria industrial bat martxan jartzen duzula dirudi, makinaria musikal perfektu bat... Tronpeta jotzen duzunean tigreak-edo ehizatzen ari zarela ematen du, tigreen arimak, esan nahi dut. Zoragarria zara, Bob.

– Tira, ezin ekidin dezaket, horrelakoa naiz, muntatuta ekarri ninduten fabrikatik.

– Ez naiz txantxetan ari, Bob.

– Ni ere ez... Esan gauza bat, Klara: berdin maitatuko al nindukezu musikari ez banintz?

– Zu ez zinateke Bob Ieregi zure musika tresnarik gabe. Zure jotzeko era, zure grabaketak, hor geratuko dira, Bob, betirako... Ez zara horretaz jabetzen?

– Begira, ni ez naiz beste munduko ezer... Ez gaizki ulertu, harro nago naizenaz, badakit tronpeta jotzen ona naizela, onenetakoa, konturatzen naiz, baina anbizio gutxikoa iruditzen zait bere obra unibertsal edota inmortal ustekoa izango delakoan bere burua estimulatu eta aurrera jarraitzeko indarrak hortik ateratzen dituena. Arras ingenuoak iruditzen zaizkit artista, aktore edo musikari edo dena delako horiek, inmortal izango direla-eta gustura hiltzen direnak, gingiletik gingilerako irribarre batekin... Inmortal izatea betirako balitz sikiera... Baina hemendik hamabost mila urtera ez da gure munduaren aztarna txikienik ere geratuko. Ez dit konpentsatzen ehun, bostehun, bi mila edo hamabost mila urtetan zehar nitaz –demagun interes minimoki arkeologiko batez– akordatuko direla pentsatzeak. Betikotasuna horren gainetik dago, jauzi

egin behar da horren gainetik, sonbreirua galtzeko beldurrik ez izan haizearen aurrean eta kondenatuarena baino latzagoa den sortzailearen trosta horri amorerik ez eman sekula. Zuk diozun bezala, hemen goian, hemen goian dago betikotasuna, edota beheraxeago, Gauloises paketea gordetzen dudan alkandorako poltsiko horren azpian. Baina inork ez luke gogoratua izatea merezi behar, ahanztura baino gauza gozoagorik ez dago.

– Baina adibidez Shakespeare...

– Shakespeare? Kristoren saxoa, hark jotzen zinan hark, *to be or not to bop, that's the infection...*

– Ez dut ulertzen. Ez dakit, Bob, ez dakit. Oraintxe bertan, zuk hala nahi izanez gero, New Yorkeko estudiorik onenean zeundeke grabatzen...

– Nik bai, Klara, nik ulertzen dut. Tipo korriente bat besterik ez naiz, zigarroak erre eta poteko tomatean ogia bustitzea gustatzen zaiona eta noiz edo noiz eskutitzen bat bidaltzen duena, ia beti, alferrik. Eskutitzei buruz ari garela, badau-

kat galdera bat, zera, beti galdetzeko eta sekula...

– Miao eta Ieregi! Azkar demonio gosaltzera ez bazatozte, tigreei botako dizkiet zuen ogi-zerrak!

– Bagoaz, Nikolas, bagoaz!

– Kafea hoztuko zaizue lehenbailehen ez bazatozte, eta Siberian esango luketen eran, sei milioi judutar akabatzearekin batera, dagoen humanitatearen aurkako krimen handiena da kafe hotza hartzea.

Siberian beti izan dira exajeratu samarrak.

Boliviako pareta pitzatuak

Ezin esan Bolivia auzunean ostatu hartu zuten Nice Katiluko apartamentu estu hura beste munduko gauza zenik. Paretak pitzatuak zeuden goitik behera eta bonbilla biluzi haiek lanpara bihur zitzaketen feltrozko oihal zurrunen arrastorik ez zen inon. Sabaiko bonbillak pendularki mugitzen ziren korridorean norbait oinez ibiltzen zen bakoitzean. «Petrolioa bilatzeko bonbillak», esan zuen txantxetan Ieregik hara heldu bezain pronto, Rotterdameko portu erraldoiko petroliontziak gogoan. Horma zuriak nikotina geruza batek hartzen zituen sabairaino, hormako igeltsua ore fin eta hori batez estaliz.

Gramola behintzat bazebilen. Gramolaren ondoan berunezko hontz txiki bat zegoen, kolore urdin biziko begi irekiak zituena. Bazuen irudi hark zerbait beldurgarri bilakatzen zuena. Klarari ordea, gustatu egin zitzaion halere iruditxoa eta handik joatean oroigarri gisara eramateko asmoa agertu zuen. Gainerakoan, ez zegoen han gauza handirik, apartamentuko paretetan, altue-

ra ezberdinetan eskegitako Van Goghen koadroen kopia merkeak salbu. Mesanotxearen gainean beste bonbilla biluzi bat, wolframio hariaren mugimendu bibrakorrek ekilibriorako kable arriskutsu bilakatzen zutena eltxoendako. Hobe hura ez piztea eulien borrero bihurtu nahi ez bazuten. Mesanotxean hiru disko: Kenny Dorham, Miles Davis eta Thelonious Monk. Apartamentua txikia izanagatik ere, sabaia behintzat altua zuen eta metro kubikoen aniztasun hark itogarritasuna kendu eta abegikorrago egiten zituen gelak. Nikolasek hartu zuen gelarik txikiena, atzealdekoa, eta Klarak eta Bobek hartu zuten bestea.

Egongelan eseri ziren, Nikolasek pentsioko sukaldetxoan kafea prestatzen zuen bitartean. Gauza batzuk ez ziren sekula aldatuko. Egongelako gortinak irekitzean, leihotik hiria bistatu ahal izan zuten: zubi altxagarria alde batean, urruti antzean egon arren garbi bereizten zen, eta katedral gotiko zatar hura bestaldean, gotiko dekadentearen kopia hutsa, hiriko turistentzako katalogoek ere zuritzerik lortzen ez zuten katedral neogotiko itsusia.

Leiho ondoan telebista txiki bat ere bazen. Kafea hartzen hasi bitartean piztu zutelarik, lehiaketa bat egokitu zitzaien parean.

«Ikus-entzule elektrikoak, alerta! Gure lehiaketa hastera doa. Baina hasi aurretik, zein xanpu erabiltzen duzu, adibidez zerorrek, andrea? Edozein xanpu erabiltzen al duzu? Ez, noski, ez horixe, nik eta nireek olioa ez gehiegi eta ez gutxiegi, neurri-neurrian duen Blay Oilarraren xanpua erabiltzen dugu...».

– Zelako lerdejario aurpegia –esan zuen Nikolasek katilurik ez zegoela-eta aienatu ondoren–. Tozak zabor fotograma mordoa. Telebistako programetara joaten diren ikusle pasibo horiek harritu izan naute beti. Hain da absurdoa. Askotan pentsatu izan dut hor atzealdeko ikusle horiek hiri handietako espaloietako kartoien azpietatik erreklutaturiko homelessak ote diren, zopa bero bat eta gau baterako arropa garbia eskaini eta txukun orraztu ondoren hortxe paratzen dituzten gizagaixoak. Txalo batzuen truke zopa beroa. Ez legoke gaizki. Hala balitz telebistak zerbaiterako balioko luke, arranopola, ez legoke batere gaizki. Funtzio soziala, zopa beroa, zerbait litzateke.

Gortina irekiak zituen leihotik argi izpi berdekarak barneratzen ziren. Nikolasek, katilurik ezean, beirazko edalontzietan ekarri zien azkenik kafea.

– Kontuz heldu, hermano, kristala infernuko pertza baino beroago dago-eta.

Ez zegoen munduan kafea Nikolasek bezain ona prestatzen zuenik. Nikolasentzat erritu bat zen kafea prestatzearen hura, errezo baten antzeko zerbait. Bakarrik utzi behar izaten zuten beti sukaldean honek kafea prestatzen zuenetan. Kafe aleak eiheratxoan xehatzeak bazuen terapeutikotik anitz, kafe ale haiek gustuko ez zituen bere bizitzako tuberkulutxoak-edo izan behar zuten, hala imajinatzen zuen Bob Ieregik, eta eiheratxoarekin kafe ale hauek xehatu ahala, egundoko lasaitasunak erne behar zuen bere buruan, egunak emandako hondakin ahaztu beharrekoak hauts bihurtzen zituelarik, ez mentalki bakarrik, baizik eta benazko eta erreal zen mugimendu fisiko batekin: bere eskumuturrarekin errotatxoari eraginez, Nikolas Holoborodkok bakarrik ezagutzen zuen neurriko kadentzia batez. Irakitear zegoen urak sendagai eta elikagai be-

harrezko bilakatuko zuen hauts ilun hura. Benetan beltza ateratzen zitzaion, gainera. Ieregirendako misterio bat zen belztasun hura nola lortzen ote zuen; bere baitarako zegoen, hildako blues kantariren baten errautsak erabiltzen ote zituen txikoria gisara. Kafea egiteak betetzen zuen Nikolasendako, Bob Ieregirendako burmuineko amapola landaketak elikatzeak betetzen zuen funtzio bera. Ahanztura, suizidio txiki hori. Gauza gozoagorik.

Argi berdexkak sala osoa hartu zuen. Tronpeta-zorro irekiraino heltzen ziren argi keinadak, belar luze eta estuak bailiran. Musika tresnak lotan zegoen piztiaren antza hartzen zuen, edozein unetan, bere kasa zutitu eta oihuka has zitekeen piztiarena.

– Niko aluita hori, ggozoak bebetan hie oggizerra hauek! Jainbkoaren ezpaibnak bainno xamurraggoak!

– «Jainkoaren ezpainak»? Um, sujerentea duk *mood* bati izenburua jartzeko.

– Tira, hermano, jainkoarenak... jainkoarenak, Klararenak esateko beste era bat baino ez duk...

– Begira ezazu edalontzira, lerdea darizu-eta kafera.

– Oporto botilatxo bat falta zaigu orain gosaria ongi bukatzeko, ez zaizue iruditzen?

Beirazko edalontzi jada hutsen hondoan kafe kondar lokaztu bat geratu zen, koilaraz zapazturiko erle murtxikatua bailitzan. Bob Ieregi aulkitik altxatu zen ardoaren bila. Telebistak pizturik jarraitzen zuen, bere presentzia aldizkari pornografiko batean testu idatzi batena bezain estimatua bazen ere. Txuri-beltzezko irudiak horituta ageri ziren, alabastro geruza batez iragazirik baileuden, galsoro bat balitz bezala pantaila hura.

«Entzule elektrikoak, adi, hiru ateko No-Frost izozkailu elektrikoaren jabea nor den jakingo baitugu une batetik bestera. Baina aurretik, galde diezaiegun gure lehiakideei zer duten gogokoen gosaritarako...»

– Oportoa! Oportoa dugu guk gogoko gosaritarako, bazkaritarako, eta baita afaritarako ere! Hiru ateko No-Frost izozkailutik atera berria den *vintage* oportoa! –Bobek alegera kendu zion kortxoa botilari–. Alehop! Ekarri zuen edalontziak,

hau behin irekiz gero hustu egin behar da-eta; osterantzean, alferrik galdu egiten da.

Bobek errana entzunik, Klarak eta Nikolasek mesfidantza samurreko –*jainkoen ezpainen* samurtasunaren adinako mesfidantzaz– begirada bat elkartrukatu zuten, oportoa edalontzien beira finaren ibai meandroetatik ezpainetaratuz.

Hurrengo egunera arte jo behar ez zutenez, erretzen eta hizketan igaro zuten arratsa, baina hirurak ere nekaturik zeudenez, aurki oheratu ziren. Gauak trostan harrapatu zituen. Bonbilla kulunkari haren peko ohean jarrita, belauniko eta aurrez aurre elkar biluztu zuten Bobek eta Klarak. Botoi bakoitza bi hatzekin deslotu, alkandoraren beso bakoitza bi hatzekin heldu eta irristarazi. Klarak eskutada gatz hartu eta Boben ezpain urtsuetan sartu zizkion bere hatz meheak, Bobek gatza dasta zezan. Ondoren, biak erabat biluzik zeudela, vodka botila mesanotxetik eskuratu eta trago bat edan ostean, bere kokotsean behera, lepoan behera, bularretan behera, isurtzen utzi zuen vodka, Bobek, Klararen gorputzean goitik behera miazka zitzan vodkak sorturiko meandro eta ibaiak, Klararen azal tinkoan

ezpain eta mihi nahastuz hiru puntako eraso labainkorrean, bi eskuak Klararen hatzei katigatzen zizkiela. Gauak trostan harrapatu zituen eta haiek gaua. Trosta polikian Klararen lepoa atzerantz, ile beltzarana korapiloetan nahastua aurrerantz, betazalak hertsirik. Boben eskuak Klararen gerria katigatuz. Zarama kamioiaren zarata. Intziriak. Trostan harrapatu zuten gaua eta gauak haiek ere, trostan.

Lehenengo gau haren erdian, amesgaizto batek izerdi patsetan esnarazi zuen Bob. Oheko malgukiek sekulako kirrinka atera zuten bertatik jaiki zenean. Klara zerraldo zetzan, ahuspez, ile beltzarana alde batera, biluzik, bular zuri eta mamitsuak koltxoiaren aurka zapaldurik eta izterrak distirati, gauaren beroan.

Bob Ieregik komunera inguratu eta iturritxoa ireki zuen. Ura konketako zulotxoan beherako zurrunbiloan desagertu ahala, egundoko hoditeria zarata entzuten zen. Nice Katiluko apartamentuko iturritxoa irekitzen zuten bakoitzean, hor azpian nonbait, piztiaren bat elikatzen zutela pasa zitzaion burutik Ieregiri. Esku ahurrean ura hartu eta konketako ur-begitik behera –ba-

daezpada ere– ahalik eta ur gutxien amildu zedin saiatuz, aurpegia freskatu zuen bizpahiru aldiz. Gero, besoak konketa gainean tenkatu eta lepoa tentetu zuen ispilu hautsian bere begi puztuei so egiteko. Baina ez zion ispiluak ezer berezirik bueltatu, bere aurpegia, ez besterik. Bainuontziaren ertzean eseri zen. Lasaitu orduko, zerbait ikusi zuen ziztu bizian bainuontziko zulotik atera eta herdoil kutsuko bainuontzi zurian gora igo ezinean irrist egin eta behera amiltzen. Hiru hazbeteko arrabio bat zen. Ia atera zitzaion bihotza alkandora barrutik. Altxatu eta jauzi batez bestaldera zuzendu zen, konketaren aldera, aterantz.

Ez zen ostera bainuontzira zuzenean begiratzera ausartu eta ispilurantz so egin zuen zeharka. Oraingoan ordea, ispiluak bainuontzi zuria bueltatzen zion bere lasaian, ez zen bertan arrabiorik: pentsio merkeetako bainuontzi zuri orok duten herdoil arrastoa bakarrik.

Erdi lotan zegoen eta auskalo ikusi zuen hura benetan zer zen. Eta zerbait izatekotan, non ote zegoen orain? Bainuontziko zulotik behera desagertu ote zen, etorritako bidetik? Ala agian, bere

hankapetik igaro eta arrabioaren azalaren kolore bera zuen egurrezko lurrean kamuflaturik zegoen orain geldirik, biktimaren baten zain? Klararen bularrak oroitu zituen koltxoiaren aurka zapalduak, batere izararen babesik gabe, bi eskuez bizkarraldetik astiro laztan-erasotzeko tentazio hura. Pasilloko lur kraskatsuan barrena bonbillen mugimendu pendularra buru gainean sentituz, presaka abiatu zen bere gelarantz, ez halere bainuontzia eta konketa, berunezko tapoi banarekin estali baino lehen, zer gerta ere.

Mesanotxeko erlojuan ordua begiratu eta erre gabe zeramatzan orduak zenbatu zituen behatzekin egurrezko lurra kolpatuz.

Erloju hark derrigor egon behar zuen atzeratuta. Ez zen posible hain ordu gutxi igaro izana. Isilik sartu zen berriro izarapera.

Marihuana bila irteten dira gauez arrabioak

– Badakizue? Gaur gauean lo egin ezinik nengoela, jaiki eta komunera joan naizenean, arrabio bat ikusi dut bainuontziko zulotik ateratzen.

– Ziur arrabioa zela? Ez zen bada, arratoiren bat izango?

– Ezetz, arraioa, Nikolas, ikusi izan bazenu... Egundoko izuikara eragin dit. Bihotza, josteko makina bat bezala hasi zait taupaka.

– Beharbada, ehiza saio bat antolatu beharko genuke, hermano. Nork daki, akaso iraungitze bidean dagoen espezieren batekoa dateke arrabioa, diru kopuru majo bat emango ligukete zooan piztiaren truk.

– Nikolas, ez nabil txantxetan, badakit gezurra dirudiela, baina...

– Bob, Bob, Bob, esan nizun bart marihuana gehiegi erre zenuela. Gramola ondoan utzi nuena ere ez zenuen bada erreko?

– Zuei hitz egitea baino hobe dut Van Goghen erretratuari hitz egitea.

– Ba bai, Bob, hark ere harrikada handi samarra omen zuen. Belarria moztu eta bizilagunari oparitu zion, sobre batean sartu eta postara bota ondoren.

– Hala duk, ez pentsa, kartazalari erremitea jarri ziolako zekitek belarria berea dela Bob, izan ere, beste edozeinena izan zitekeen...

– Bai, gaur egun edozeinek mozten dik belarria lagun hurkoari oparitzeko.

– Entzumena fintzeko-eta, badakizu...

– Hori dun, Klara, labanarekin fintzen dun ongien entzumena, areago, zorroztu ere egiten dela esango nuke nik.

– Eta belarria moztuz gero zer esanik ez.

– Zoazte tximeletak ferratzera.

Klara gramolara inguratu zen Monken diskoa jiratzera. Bobek leihotik begiratu zuenean ez zuen euririk ari, gramolaren orratz zikina zen diskoaren binilozko eraztunetara kateatzean, deblauki, euria egiten zueneko soinu baxu berbera sortzen zuena.

– Bob, serio, non utzi duk gramola ondoan laga nuen marihuana?

– Zer marihuana baina? Nik ez dinat hirerik hartu... Badakin zenbat ordu diren erre ez dudala? –erlojuari begiratu zion–. Jainkoarren, erloju horiek guztiek atzeratuta egon behar dute...!

– Bob, nik hemen, atzo gauean, hazbete marihuana utzi nian gramolaren ondoan eta orain ez zagok, ez zagok ezer, Bob.

– Ez zeukanat gezurretan aritzeko arrazoirik. Ez ninan nik hartu, Klara, benetan.

– Noski, orduan hontzak erre zian, ez duk? Horregatik zauzkak flipatu begi horiek berunezko hontz aluita honek!

Alferrik zen. Bobek hontzari begiratu zion. Litekeena zen begi berdedun hontz hark erre izana Klararen marihuana, nola iraun osterantzean esnai hainbeste denbora. Berunezko izanik ere ezin. Gero, ordea, ezetz deliberatu zuen, hontz hura ez zela erruduna, nahiz eta haren begietan zegoen marihuana desagertuaren nondik norakoaren erantzuna. Gramola ondoan zegoen berunezko hontzatxoak, tinko begiratzen zion horman zintzilik zegoen Van Goghen autoerre-

tratuari. Vincent azeri zahar hark bizarra hazita zeukan eta lastozko kapeluak eskainitako itzalak, nekez ezkutatzen zizkion ohiko espresio erasokorraz gain, goiz hartan, bestetan ez bezala, gorrituta zeuzkan begi salatariak. *Hermano, hermano, hi izan hintzen, beraz.*

Radio Paradiso

– Egia da. Ez da berdin maitatzen lehendabiziko aldian eta bigarren aldian. Ohiturak sortzen dira, noski, baina ez hori bakarrik. Ez horixe, maitasuna ere portzentajeetara biltzen da, eta zenbait emakume maitatu ditugunean, emakume bakoitzaren baitan utziz goaz gure maitasunaren, demagun, ehuneko portzentaje bat, batzuetan inkontzienteki, bederen gorrotoaren baitan mozorrotuta bada ere, maitasun hori ez dago berreskuratzerik, eta une horretatik aurrera ematen den maitasuna, ez da benetako maitasuna, maitasunez mozorroturiko gorrotoa baizik...

– Interesgarria benetan. Baina ez al da gehitxo sentimenduak formula matematikoen baitan bildu nahi hori?

– Bada ez pentsa, enpirikoki froga daiteke hau guztia. Hamar urte luzez egin ditugun ikerketen emaitzek adierazitakoaren arabera, eta hau noski, zehazki esaterik ez dagoen arren, kasuan-kasuan ezberdinak dira kasuak, baina kasua da, kasu gehienetan... zera, maitasun ko-

puru osoki metatuaren hamarren bat-edo uzten dela emakume edo gizon bakoitzaren baitan.

– Aja. Beraz, zure teoriaren arabera gizon batek hamar emakume baino gehiago maitatzea ezinezkoa litzateke bizitza bakarrean; edo alderantziz, emakume batek hamar...

– Tira, eta zergatik ez beste bi konbinazioak ere aipatu?

– Bai, bai, ulertzen dut, baina hau irrati publiko bat da eta gaitik desbideratzen ari garela deritzot...

– Tira, tira, esaten ari nintzena... Portzentajeak alda daitezke, noski, hori da psikiatron lana, baina zaila da maitatzeko erabiliriko portzentajeak berreskuratzea...

– Mila esker zure iritziengatik, H doktorea, eta hurrengo astera arte.

– Mila esker zuri, Susana.

– Eta zuk gogoratu, entzule, hemen izango gaituzula goizaldera arte, Paradiso Irratian: zure irratiko 22.2an, bila itzazu dialeko hiru zisneak. Arrastiri on denoi eta zorionak, aukeratu zenezaketen irratirik onena aukeratu baituzue: Paradiso Irratia. Hogei mila entzule eta gehiago, eta go-

rantz goaz, merkurioarekin batera, bai, gorantz. Hementxe etzan zaitezkete, Q-ren ondoan, edo kulunkaulki batean bezala eseri, hala nahiago baduzue. Hementxe, Smithers anderearen lorategian, bi sahatsen artean zure hamaka, eta hiru zisne urmaelean: 22.2... Paradiso Irratian... non bestela? Hogeita bi graduko tenperatura hor kanpoan. Ez pentsa horratik, entzuleok, hemengo soto honetan Islandian baino hotz handiagoa egiten du; demontre, guk egingo ditugu guk hozkirriarekikoak, soto ospel honi su eman behar badiogu ere. Gure sintoniara etorri berriak bazarete, jaso ezazue Susana Qren ongi-etorria, guretzat zuen maitasunaren portzentaje txiki bat gordeko duzuelakoan bihotzeko kaxoi blindatuan... Gure kutxa blindatuan sartzeko konbinazioak gogoratu: 31269 eta 42344. Horiek dira gure telefono zenbakiak. Banku atrakatzaile onen bila gabiltza.

Charlie inoiz baino hobeto ari da jotzen
mutikoa ezkutatu da billar mahaiaren azpian
(mutikoak badaki zer egin, badaki zer egin)
eta Smithers andereak ezin du lorik egin
o, ez, Smithers andereak ezin du begirik bildu
kontrabaxuak behin eta berriro dio:

zenbat tren leihoan insomnio guztiak dastatzeko ere

Zer den jazza erranen dizut:
betikoa whiskya den hiztegi bat, den hiztegi bat...
Billar mahaiaren gainean larrutan ari diren bi emakume,
disimuluan non dago takoa? galdetzen duen agure zelatia
konturatu orduko oinen azpialdeetatik
gorputzaren barrua zeharkatuz bortizki
bururaino igotzen den begirada bertikal
tren abiadurako bat

O Mrs. Smithers' flowers, Mrs. Smithers' poor flowers

Barka entzuleok, kanta hau hotz-hotzean eta bat-batean eten beharra, baina gure programazioa eteteko modukoa da iritsi berria zaigun flash informatiboa, flash informatibo tristea benetan, inon halakorik bada, eta ezustean harrapatu gaituena: gaurko gauak ez du John Lennonentzat amaierarik izan. Mark David Chapman, hogeita bost urteko gazteak, Central Park inguruan dagoen Dakota eraikineko kantariaren apartamentuaren pegoran itxaroten zion. «Ei, Mister Lennon», Chapmanek dei egin dio bere emazte Yoko Onorekin zihoala abeslariari, eta hau jiratu orduko, bere 38 milimetroko kalibreko errebolberraz bost tiro egin dizkio Lennoni.

Ero bat, desgizarteratu koitadu bat, horiexek dira hiltzaileari eskain dakizkiokeen adjektiborik amultsuenak. Bere bizitzaz eta izaeraz apenas dakigun ezer. Diotenez, arratsaldez, John Lennon grabaketa estudiorantz abiatu denean, Chapman Lennonengana inguratu da honek atera berri duen *Double fantasy* bakarkako LPa sina ziezaion.

«Jendeak kalean hitz egiten dit, autografoak eskatzen dizkit, baina ez dit horrek trabarik egiten», aitortu berri zuen duela bi egun abeslariak.

Baina autografo ehiztari honek gaueraino itxaron dio. Chapman arlote alderraia da, diote agentziek. Liverpoolen ehunka pertsona espontaneoki atera dira kalera negarrez.

«Lennon, 38 milimetroko balek bular, ezker beso eta bizkarrean sorturiko zaurien ondorioz hil da; behin eta berriz saiatu diren erreanimazio ahaleginek nahiz odol transfusioek eta bestelako teknikek ez dute bilatzen zuten emaitza positiborik erdietsi», adierazi du New Yorkeko Roosevelt ospitaleko arduradun Stephan Lynn doktoreak. Poliziak, *maniatiko* izendatu duen Mark David Chapmanen izaera zurrunbilotsu eta beatle-

zalea azpimarratu du; lanbide iraunkorrik izan ez, eta zeregin ezberdin asko izan omen ditu gazte desorekatu honek. Hogeita bost urte dituela, bigarren aldiz ezkondurik omen dago.

Datu berriak etengabe agertzen ari diren arren, ezer gutxi gehiago dakigu oraindik berari buruz, hamar delitu penal ezberdinengatik kondenatua izan dela salbu, eta birritan saiatu dela bere buruaz beste egiten. Etxeko egongelan Chapmanek Salvador Dalik Lincoln-en erailketaren motiboa hartuta margoturiko koadroaren erreprodukzio bat duela ere jakin ahal izan dugu.

Hiltzaileak ez du iheserako saiaketarik burutu: lekukoek adierazi dutenez, Lennonen gorpuaren ondoan zutik geratu da, Yoko Onoren silueta Lennonen gorputzaren ondoan belaunikatuari begira. Errebolberra espaloira erortzen utzi ondoren, zigarro bat piztu du patxada betean. Dakota eraikineko etxezainak Chapmani ea zer egin duen ba ote zekien galdetu dionean, honek honela erantzun omen dio:

«Bai badakit, Mister Lennon hil dudala uste dut».

Galdera bat bakarrik darabilgu buruan: zergatik? Miresmena eta mimetismoaren arteko nahasketa zoroaren emaitza, ala burutik egindako baten bat-bateko ekintza inkontzientea? Ez dago jakiterik, baina batzuetan, entzuleok, heriotza da gauzarik sinpleena.

Van Gogh kristalaren kontra

Hirugarren astearen buruan, Sonny agurtzeko asmotan inguratu ziren Belunara, goizean goiz. Doktore lepogabeak ez zituen, ordea, musikarien asmoak begi onez ikusi. Isiltasun luze baten ostean, zigarroari sakatu eta luze bota zuen kea, bere eskrituarreko bonbilla hautseztatua –eta hau bai, mugiezina– desagerrarazteraino.

– Ezin duzue alde egin.

– Ez dut ulertzen, Sonny –arrapostu zuen Bobek.

– Kontratu bat sinatu zenuten, ahaztu egin al duzue? Aspertzen naizen arte nireak zarete –Doktoreak bere mahaiko tiraderatik Colt errebolberra eta tabako pakete bat atera eta mahai gainean utzi zituen, kaxoian beste zerbaiten bila jarraituz–. Hemen nonbait behar dute egon... Hementxe. Hementxe daude kontratuak.

Sonny Piquerasek hirugarren paragrafoa seinalatu zien hatz erakusleaz. Lehendabiziko astea aproba gisakoa zen eta musikariek alde egiteko aukera zuten gustura sentitu ezean, baina biga-

rren astea osatuz gero, kontratua mugagabeki luzatzen zen Sonny Piquerasek bale-nahikoa esan arte.

– Zintzoki hitz egingo dizuet. Nik ez dut musikaz gehiegi entenditzen... baina zer nahi duzue esatea, jada izen bat duzue hirian, egunkariko kritikariek ere hitz gozoak, eta areago, koipetsuak erabili dituzte zuekin. Ongi doakit, Bob, lehengoekin baino kaxa lodiagoa egiten dut zuekin, nabarmen gainera, eta ez dizuet orain hain erraz alde egiten utziko.

– Begira, Sonny, eskertzen dizugu gugatik egin duzuna, ezin gusturago gaude Belunan, baina hasiera-hasieratik gure asmoa laster samar itzultzekoa zen, ezin dugu hemen askozaz ere gehiago luzatu.

Sonnyk kea hartu zuen berriro eta ilea atzerantz lisatu zuen eskuaz. Eskrituarretik altxatu eta oinez ibiltzeari ekin zion bere gelan batera eta bestera, bere krokodilo pauso txikiez. Errebolberrak mahai gainean segitzen zuen. Bere danborrak ate birakor bat zirudien, balaren batek habitatuko ote zuen oldoztu zuen Ieregik. Baiezkoan zegoen, Sonnyri buruz entzundakoe-

tatik erdiak egia baziren behintzat, ezin zuen hori zalantzan jarri.

– Gauza bat egin genezake. Billar partida bat jokatuko dugu. Zuek irabazten baduzue, hamar mila dolar emango dizkizuet eta aske izango zarete nahi duzuenean alde egiteko. Nik irabazten badut, ordea, geratu egin beharko duzue. Nork jokatuko du?

Nikolasek Bobi berak jokatzeko esan zion begiradaz. Urteak ziren billarrera jokatzen ez zuela, baina bazuen abildaderik hartan. Sonbreirua kendu eta bizkarrean min egiten zuten aulki haietako batean utzi zituen bai hau, bai gamuzazko gabardina. Parisko deskalabrutik salbatu zen gabardina bakarra zuen gamuzazkoa. Sonnyk makila eta hirukia helarazi zizkion Bobi.

– Har ezak, Bob. Jar itzak herorrek bolak.

Bob Ieregik marradunak eta marrarik gabeak egokiro kokatu zituen, beltza ere bere lekuan, baina erpineko bola falta zitzaiola ohartu zen. Sonny Piquerasek, mendekuaren inguruan grabitatzen zuen irribarre gaizto bat egin zien Boben begi erikor eta galdetzaileei: begi distiratsuak zituen Doktoreak, denbora guztian malkoei eusten

ariko balitz bezala begi argi haien estetika mantentze hutsagatik, edota agian krokodilo izan zelako bere aurreko bizitzan, eta kosta egiten zitzaiolako ohitura zaharrak baztertzea, nork daki. Berrogei urte ondo beteak eduki arren, deseroso eta berri zitzaion agian bizitza hura, aurrekoan zingira narrasetan ibili ondoren.

– Ez hadi kezkatu, Bob, bola hori aspaldiko kontu bat kitatzeko erabili nian. Hemen bola bat gutxiagorekin jokatzen diagu. Marradun bat falta duk, hala duk etxeko ohitura, eta norberaren etxeko ohiturak ezin aldatuko ditiagu... ez zaik hala iruditzen, Bob?

Bob Ieregik Van Goghek bere buruari eginiko erretratua irudikatu zuen. Begiak gorriturik zituen, baina oraingoan, argi urrakoan ez bezala, lepoa nabarmenki puztua zuen Vincent zaharrak, eztarrian zerbait sartu izan baliote bezala, billar bola baten antzeko zerbait. Orduan jakin zuen Bob Ieregik ez zeukala zereginik krokodilo zuri haren aurka, eta irabazteko aukerarik izanez gero ere, ez zitzaiola komeni Sonny Piquerasen aurrean garaile atera eta hau haserrarazterik. Kontrako eztarrira joan zitzaien hiri hartatik ihes

egiteko lehen baldintza bizirik irautea zen. Baldinbaitere hiria izango ahal zen kontrako eztarritik joango zitzaien gauza bakarra. Tipo arriskutsua zen Doktore lepogabe hura. Ez zen Bob izango etxeko ohiturak aldarazi eta bi bola gutxiagorekin billarrera jokatzekoa jarriko zuena Doktorearen etxean, ez horixe.

Aste batzuk gehiago luzatu beharko zuten beren egonaldia, ispiluek marihuana erretzen zuten hiri hartan.

Gaul

Estreinako pausoetan gaizkiegi joan zitzaienik ere ezin esan. Beluna Moonen hilabete bete zutenerako Nikholai & Ieregi Banden izen ona polbora arrastoa bezala hedatu zen hiri osoan. Eskualdetik ateko kazetariak ere agertzen hasi ziren Beluna aldera, Amsterdam hiribururaino ere heldua omen zen jam session haien oihartzuna. Jotzen zutenero, leporaino egoten zen lokala. Asteburuetan goizeko laurak edo bostak arte luzatzen ziren saioak eta Sonny ere bere baitan ezin kabiturik zegoen giro harekin, eta batez ere, hark ematen zituen etekinekin, garagardoaren prezioari ehuneko hogeiko gehigarria jartzen baitzion saiorik zegoenetan. Laster baino lehen, diskoetxe batek diskoa grabatzeko eskaintza luzatu zien, bai eta azkar asko onartu ere.

Zoritxarreko grabaketa hartan eman zituen Bobek bere nahasmenduaren lehen seinaleak.

Grabaketa, alderdi musikalari dagokionez, ezin hobeto joan zen. Bobek jotzeko era berezia zuen, beste gauza bat zen, puntu eta aparte, tre-

naren abiadura handiarazten duen lokomotora ikusezin bat berezko lokomotoraren aurretik jartzen zena, beste erritmo bat zeukan, beste erlauntza batetik etorritako erlea zirudien. Beste zer bat zen, eta kitto. Ordea, grabaketa hartan, denak harrituta utzi zituen zerbait gertatu zen. *Pinocchio* zoragarri bat eta *Confirmation* kantua jo ostean, *Girl called Iceland* grabatzera zihoazenean, denak jo eta ma utzi zituen esaldi bat esan eta estudioa utzi zuen Bobek.

– Zaldiari jaten ematera noa, oraintxe nator.

Bobek Sonny Piquerasen morrontzapetik askatzeko eroarena egitea erabaki zuen. Klara eta Nikolasek ez zuten oso begi onez ikusi, arriskutsuegi irizten zioten bide hari, eta baita bide hura urratzeko edaten zituen whisky botilei ere. Berehala bete zuen pentsioko telebistaren gaina CSW botila hutsez. Bobek, ordea, Piquerasek burua galtzen ari zela ikusten bazuen tximeletak ferratzera bidaliko zituela uste zuen ziurtasun osoz. Beste bide bat, sormena agortu zitzaiela esan eta ohe elastiko bateko malgukiak bezala jotzen hastea zatekeen, jendea asperraraztea. Piquerasek berak aitortu zien ez zela musikan

entenditua, baina ez zuen Bobek uste Doktoreak halako sasisartzerik sinetsiko zuenik. Eta gainera, beraien izen ona sobera hedatua zenean ez zitzaien barregarri geratzerik ere komeni. Horrela bada, ostiral hartan, grabaketaren ondorengo kontzertuan, bi kantu jo orduko esaldi bera errepikatu zuen berriro ere.

– Zaldiari jaten ematera noa, oraintxe nator.

Jendeak ez zekien ateraldi hari nola heldu: trufatzat hartu zuten, beraz. Ordea, gauez gau, Ieregik gero eta sarriago errepikatzen zituen behin eta berriz hitz berak, bariazioren batekin batzuetan, hala nola: «Zaldia egarri izango da honezkero; Gaul zain edukiko dut; atzo Paradiso Abenidan trostan nindoala semaforo batean moja batek halako esan zidan, ea bataiatu al nuen zaldia». Edo antzekoren bat.

Entzuleek baina, showaren zatitzat jotzen zituzten ateraldiak.

Nikolas eta Klara seko haserretu ziren Bobekin grabatzera joan ziren bigarren aldian, grabaketa estudioan gertatu zen deskalabruaren ondotik. Estudioan debekatuta zegoen erretzea, baina Belunan jotzen hasi zirenetik ohikoan

baino marihuana gehiago erretzeari lotu zitzaion Bob, eta estudioan bertan ere, arrainontziaren bestaldeko soinu-ingeniari, bisigu eta teknikarien aurpegia adiskidantzazkoa izatetik urrun zegoen arren, marihuana kiribildu eta Nikolasen esanei entzungor, erretzen hasi zen. Porroa erdi errean utzi zuen atrilaren gainean eta inoiz baino indar gehiagoz ekin zion Churchill eta Moreyren *Someday, my prince will come* hari. Berehala ordea, bere tronpetaren tinbrea ezin hobe mantentzen zen arren, keinu bitxi haiek egiteari lotu zitzaion, ikusezin bilakatu zaion zaldiari eutsi ezinik dabilen zalduna balitz legez.

Bere mugimendu bortitz hauetako batean behintzat, atrila hankaz gora bota zuen. Bertan zegoen marihuana porroa lur moketatura erori eta honek su hartu zuen. Ohartzeko betarik izan zutenerako, ketan zegoen arrainontziaren barruko aldea. Arrainei kea zerien ahotik. Sua bafleetan gora hedatu zen, berehala sabairaino helduz. Eztulka atera ziren denak arrainontzitik. Bob, ordea, arrastaka atera behar izan zuten, berak, ezer gertatu ez balitz bezala jarraitzen baitzuen jotzen, begiak hertsita, bafle sutuen alboan, ke

artean. Deskalabrua ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula izan. Doktorearen manupeko zirenez, hark ordaindu behar izan zituen galerak. Sonnyren pazientziak noizbait behar zuen agortu. Bob Ieregik gertu ikusten egun hori.

Handik astebete ingurura, gau batez, Sonnyrengana inguratu zen Bob. Marihuana gehitxo erre izanaren begiak zituen eta propio erakutsi nahi zizkion, gainera, krokodilo lepogabe hari; bere itxura penagarria begien aurrean jarri zion. Hiruzpalau egunetan luzatzen utzitako bizarra zuen, hortzak gero eta horiago, alkandora erdi aterean. Goizegi zahartutakoaren itxura zuen, eta ahotsa ere nahikoa erlastua.

– Sonny, baduk unetxo bat? Hirekin hitz egin nahi diat.

– Noski, Bob. Dirurik behar duk? Ez daukak batere itxura onik, aixkide.

– Dirua baino areago, kontratua berritzea nahi nuke, Sonny.

– Zer diok baina, kontratua berritu? Ez al huen bada duela bi aste hemendik hanka egiteko gogoa? Nolatan bat-batean kontratua berritu nahi hori?

– Bai, Sonny, badakik, zaldiagatik.

– Aja, hori duk orduan. Zaldi lasterketetan dirua galdu duk, ez duk?

– Ez zehazki, Sonny, nire zaldia duk.

– Hire zaldia? Zein zaldi baina? Zertaz ari haiz? Heroina hartzen al duk, Bob?

– Ez didak ulertzen, Sonny...

– Zer duk orduan zaldiaren hori?

– Badakik, Gaul, nire zaldia, jaten-eta eman beharra zagok, mehar samar zagok eta, ba hori, dirua eskuetatik hondarra bezala irristatzen zaidala bateko hau eta besteko beste hura, albaitaria dela eta zaldiaren bataioa eta ez zakiat zer kakazahar.

– Zaldi bat erosi al duk?

– Erosi ez, Sonny, erosi ez. Nirekin eduki izan diat beti, apartamentuan zeukaat, baina badaezpada isilpean, armairuan. Aireportua ere ezkutuan pasa nian. Badakik, Sonny, aduanan ez ditek animaliarik onartzen, eta...

– Gehiegi edan duk, Bob, hoa ohera eta argi urrakoan hitz egingo diagu honetaz.

– Baina Gaul mehar zagok, Sonny, jatena behar dik, jatena behar dik lehenbailehen.

– Hoa ohera, Bob, har ezak dutxa hotz bat eta hoa ohera.

Bobek gero eta gehiagotan aipatzen zuen zaldiaren hura, edozein unetan, obsesio bilakatzeraino. Zaldia gora eta zaldia behera, ez zuen besterik ahotan izaten. Tronpeta jotzean ere, keinu bitxiak egiten jarraitu zuen jendearen harridurarako, trostan doan zaldun baten keinuak. Entzuleak apur bat aspertzen hasi ziren inozokeria zentzubako eta betiberdin haiekin. Klarak berriz, ez zion Ieregiri hitz egin ere egiten, Beluna aurreko zuhaitzera igota adar batean zaldikomaldiko jarri eta jam session bakarti bezain zoragarri bat eskaini zuen egunetik haserre baitzegoen harekin. Nikolas hura kontsolatzen arituko zen une hartan ere. Baina Bob Ieregi hantxe zegoen, tinko berean, arrabioendako tranpa bat baino ez zen hiri itogarri hartatik lehenbailehen alde egiteko txartelaren zain.

Sei hilabete zeramatzaten han, baina hura azkar bukatuko zen. Belunako barran te konfidentzial hark kamuflatzen zuen CSW kikaratxoa hustu ahala te berri bat eskatuz, zain jarraitzen zuen berak, ziur baitzegoen, une batetik bestera,

Sonny Piquerasek Belunako ate birakorretik sartu eta hitzaurrerik gabe esanen ziola akabonahikoa-da, kalean zeudela. Bitartean, zaldiaren ateraldi berriei buruz pentsatu, bere oroitzapenak errepasatu eta ahal zuen neurrian ahazteko beta zuen. Horixe egiten zuen arratseroko te hotzen artean.

Bobi ez zitzaion sekula burutik pasa ere egin, Sonny Piquerasen ezizenaren zergatia hura medikuntzan lizentziatua izatea izan zitekeenik. Horregatik deitzen zioten Doktorea. Hau guztia gutxi balitz, Piquerasen emaztegaiak ere medikua behar zuen izan, hiriko psikiatriko bateko burua baitzen, postua Sonnyren botereari esker lortua izango bazuen ere, ziur aski. Horrela bada, arratsalde hartako bere hirugarren te konfidentziala husterako, Sonny bere neskarekin eta bi bizkartzain zuriz jantzitakorekin azaldu zen Belunara. Elkarri hitz erdirik ere esan gabe, bakelitazko telefonoa baino beltzagoa zen autoan sarrarazi zuten Bob Ieregi, *Now's the time* haren ahaire latatua entzuten zela Belunako gramola gero eta urruntzenagotik.

Alkandora hertsagarri zuri batez lotu zuten. Autoko leihatilatik, ilunabarreko bizikletak ikusten zituen Ieregik putzuak gainezkatzen. Jendea korrika zebilen ganibetak bailiran erortzen ziren euri tanta zorrotzen pean ezker-eskuin mugituz bizkortasunez, euri tantek beren gabardinak zula ez zitzaten eginahalak eginez. Galtza motzez jantzitako mutiko bat ikusi zuen eta hura bere zaldia ebastera zihoaneko sentipen batere ez lasaigarriak zeharkatu zuen Ieregiren garuna, bere buruko tabako landaketetara heltzeraino. Orduan ohartu zen Bob egin zuenaren larritasunaz. Benetan erotzeko bidean jarri zuen bere burua, eromenaren mugetarako arrastoa zulatu besterik ez zuen egin azken asteetan. Bere zaldia ebastera zihoan mutikoak sobre bat zeraman eskuetan. Zubi altxagarriaren ondoan, ibaiertzean zegoen buzoian sobrea bota zuenean, lasaitu egin zen Bob Ieregi. Finean, hiri hartan ere bazen, bera bezala, biktima zenik anitz. Buzoietako erleen biktima.

Erronbo itxuran alanbraturiko zubi altxagarria beheraturik zegoen. Azkar zeharkatu zuten honenbestez, gurpilen pean hosto erori berrien

kraskatakoak entzunez. Klarari bere gutunik jaso ote zuen galdetzea ahaztu zitzaiola konturatu zen. Bere erleen teoria benazkoa ote zen jakin gabe geratuko zen berriro ere. Klarak ez zion azken asteetan hitz erdirik ere zuzendu, eta bere egoera zen bezain penagarria izaki, litekeena zen, berriro bere begietako trena sekula gehiago bueltan ez ikustea. Zubi altxagarriaren bestaldera heldu zirenean, bertan ere beste buzoi bat zegoela ikusi zuen Ieregik. Buzoiaren ondoan, beltzez jantzitako gazte bat ikusi zuen zigarroa pospoloaz pizten. Zigarroa piztu ondoren, pospolo oraindik izekia buzoiaren ahotik bota zuela iruditu zitzaion.

Auto arrotz hartan, soinean zuen alkandora hertsagarri hark bere egoera animikoa ezin hobeto islatzen zuela konturatu zen. Bakarrik zegoen, bere buruari besarkatuta, ez baitzuen, hala nahi izanda ere, besarkatu ahal izango zuenik beste inor.

Kentuckyko zaldiak

Alaskara eraman zuteneko bere estreinako oroitzapenak forma geometriko jakin batekin zuen lotura: hexagonoa. Beira lodiko leihoetan, barroteak ez ezik, hexagono formako alanbreak zeuden, paisaia erabat kaiolatuz. Burura etorri zitzaion hurrena berriz, arrazoi jakinik gabe itxuraz, bere buruko ahanzturaren amapola landaketatik harrigarriro bizirik ateratzen zen hitz bat izan zen, umetan ikaragarri beldurrarazten zuen hitz bat: kontserbatorioa.

Izan ere, Bob txikitandik zaletu zen musikara. Bob Ieregi, Kentuckyko euskaldun baten eta Jamaikako emakume ezin ederrago baten seme zen, eta bere aita –Teo Ieregi– herriko klub bakarreko atezaina izanik, berau arduratzen zen gauero klubeko sotoan musika tresna guztiak garbitu eta distirant utzi ostean afinatuta gordetzeaz. Umetatik ikusten zuen Bobek aita musika tresna bakoitza zegokion zorroan jaso eta kontu handiz garbitzen, tronpetei pistoiak kendu eta olioa nola ematen zien, swahiliaren hain antze-

koa zen hizkuntza bitxi hartan abesten zuen bitartean, siouxek euriari etor dadin erregutzeko erabiltzen dituzten errezo horietakoren bat murmurikatzen ariko balitz bezala. Ez zuen, ordea, Teok Euskal Herriko argazki, ez oroigarri, ez bestelakorik ere etxean, ez Bobek zekienik behintzat. Aberria, zapataren hondoko harri kozkorrarekin alderatzen zuen beti bere aitak, Bob sekula erabat ulertzera heldu ez zen metafora bitxi baten bitartez. Aberria oroitzeko ez zela ezer askorik behar-edo, traba egiten zuen zerbait zela, halako zerbait adierazten zuen hark. Berak behintzat hala uste izan zuen beti.

Zazpi anaiaren artean gazteena izanik, bera baino bi urte zaharrago ziren anaiarekin konpartitzen zituen arropak. Hortik zetorkion arropa eroso eta zabalak erabiltzeko zaletasuna. Garai hartan Hego Carolina aldean aurki zitekeen jakirik merkeena, Kentuckyko zaldi haragiz betetako kontserba latak ziren, hori beilegi bateko etiketadunak, eta familia behartsukoa izanik, halako franko dastaturikoa zen Bob. Zaldiaren isatsa suertatzen ez bazitzaion, pozik.

– Kontrabaxuetarako arkuen sokak zaldiaren isatsaz egiten ditiztek bada, hara bestea… Pozik egon haiteke Bobby, horrelako asko janez gero egundoko jazzlaria izanen haiz egunen batean –esan ohi zion txantxetan semea kexatzen zenero aitak, txantxak egiteko zeukan era berezi harekin, aurpegia beti bezain serios, haserre ia, zirkinik ere mugitu gabe, benetan ala gezurretan ari ote zen jakiterik ez zegoela.

Gurasoek, semeak zuen musikarako zaletasun setatia ikusirik, neke handiz bazen ere, diru apur bat aurreztu eta kontserbatoriora bidaltzea erabaki zuten. Bob izuak, ordea, ez zuen batere begi onez ikusi kontserbatoriora joatearen kontu hori, *kontserbatorioa*, umeak zaldi haragiaren gisan kontserbatan sartzen zituzten lekua ote zen ustea baitzeukan. Eta bata zuridun gizon bik, bortxarik gabe baina tentsio handiz, alkandora hertsagarria jantzarazi ondoren Alaskara sarrarazi zuten egun hartan ere, *kontserbatorio*, hitz huraxe izan zen ezer baino lehen burura etorri zitzaiona.

Ordurako, diru pixka bat pilatu eta Kentuckyko zaldi haragi potoak, Kentuckyko haritzezko

upeletan zaharturiko bourbonarekin ordezkatu zituen. Eta bourbonik ezean CSW, Castro Scotch Whisky. Baina ez zen hain justu haritzezko upeletan zaharturiko bourbonarena Bob Ieregik Alaskan sumatu zuen usaina: kontserba poto gisakoetan kaiolaturiko jarabearen usain horia baizik. Erizainburu zen Nora delako hankaluze beltzaranak lepoa gorantz jasoa zeukan beti, neurrigabeki jasoa ere, ostruka bailitzan: beso-hankak lotuta putzu ilun batean itotzen ari denak lepoa uretatik atera nahian egingo lukeen azken keinua imitatuz bezala. Aurpegia, ordea, hienarena zuen.

– Beraz, Ieregi jauna, zer ikusten duzu marrazki honetan?

– Partiturarik gabe larrutan ari diren bi gazte. Musika lehen konpasean sar dadin saiatu behar dute beti.

– Ikustagun... Eta beste honetan?

– Zaldi beltz bat, bridatik aske dagoen zaldi beltz bat, galop infernalean trenbide amaigabe batean gaindi.

– Tximino aurpegia ikusten al didazu, akaso, Bob?

– Ez zehazki, andereño, gehiago esango nuke hiena eta ostrukaren arteko nahasketa bat dirudizula.

Kontserbatorio. Hitz hark etsiarazi zuen bereziki Bob, fitxa bete, marrazkien test zentzugabe hura egin eta bere gelara zuzendu zutenean. Leiho alanbratuetako hexagonoek berriz, erlauntzak ekartzen zizkioten gogora. Eta erlauntzek, bide batez, hiriko buzoi publikoetan bizi ziren erle madarikatuak zekarzkioten bere buruko amapola landaketen tartetik begietaraino.

Eta amapola landaketen tartetik trostan zihoazen Kentuckyko zaldiak. Klarari hau azaltzen zion aldiro neskak barre egiten zion arren, garbi zeukan Bobek: hildakoan bere gorputza erraustua izan zedin nahi zuen, izugarri ikaratzen baitzuen kanposantuetako hilobi-lapurren batek bere gorputza ebatsi, eta arropa zabalen barruan ohitutako bere haragi samurra, zaldiena balitz bezala, *envased in Kentucky* zioten etiketa beilegidun kontserba itogarrietan saldua izan zitekeela pentsatze hutsak.

Galileok iradokizun bat egiten du gorpu bat ezkutatzeko

Barealdiko elkarrizketa baten arrastoak

Bobek kartoizko pakete urdina zabaldu eta gauloiseak banatu zituen gaixoen artean. Haiei zigarroak ematea ume bati jostailuzko tren bat ematea bezala zen. Inori ez zitzaion zigarroari su ematerik bururatu. Batek hozkaka jango zuen zigarroa, bestea zigarroa sudurretik sartu eta «adarbakarra naiz!, adarbakarra naiz!» oihukatzeari lotuko zitzaion korridorean garrasika.

Galileo, Anatol eta Joe zeuden zokora bildu zen azkenean. Eroen artean ere, graduak eta graduak zeuden, eta hiru haiek ziren bere antzik handiena zutenak. Zigarroa pizten bazekitelako bakarrik bazen ere.

– Gauza da –hitz egiten hasi zen Galileo zigarroari nola heldu oso ongi ez zekiela, erdi eztulka; hitz egiten zuen bitartean, ihesi zihoan keari eskuaz eragiten zion bere ahora itzul zedin, kea

airean linburtzea lurrin preziatu bat alferrik galtzea bailitzan–, gauza da Poliziak gorpua ez aurkitzeko leku aproposak gutxi direla. Noski txakurreria inozo samarra dela, baina gero eta ikastaro gehiago egiten dituzte. Esan nahi dudana da, zama gisara lastairaren bat jarri eta ur sakonetara botatzea ez dela jada garai batean bezain segurua, eta are gutxiago ibai batera botatzea biktimak, zuk egiten zenuen bezala, Anatol. Batzuetan, aurkitua izan ez dadin, hildakoa leku nabarmen eta ageri batean uztea izaten da onena.

– Orduan, zera, onena erronbo itxurako burdineriatik zubi altxagarrian zintzilik uztea nuen, arropa balkoiko hedagian lehortzen uzten den era berean zintzilikatzea biktimen gorputzak zubian, ageri-agerian, eta Gabonetako zorion-txartel bana jarrita gainera, etiketa moduan. Hori al da esan nahi duzuna?

– Horixe. Adibidez, horixe bera. Dena den, hildako baten gorpua ezkutatzeko erarik onena, zalantzarik gabe, beste hildako baten ondoan da.

– Nola beste hildako baten ondoan?

– Ez zitzaizuen sekula bururatu, ezta? Izan ere, hiltzaile profesionala izatea ez da dirudien bezain erraza. Entzun: hildakoa akabatzea izaten da errazena, baina behin akabatu duzunean, zer? Hor hasten dira komeriak. Hona zer egin behar den: autoan sartu eta gauerdian kanposantu bateraino karriatu. Behin kanposantura heltzean, ahalik eta aspaldien hildako baten hilobi desanparatu bat bilatu, hilobiko marmolezko xafla altxatu eta gorpua bertara bota. Ondoren, jauzi zalu batez hilobira jaitsi, zerraldoa ireki eta bertan sartu gorpua. Eta kitto. Zerraldo hori ez dute sekula gehiago irekiko; eta deskuiduan, egunen batean irekiko balute ere, aspaldi hildako baten zerraldoa aukeratu dugunez, orduko erraustua legoke lehen hildakoa, bigarrenaren hezurdurak lehenengoaren errautsak ohantze hartuta...

– Ez da metodo makala.

Anatol zen zigarroa dotoreen erretzen zekiena, xuabe, ezpain ertzean sostengatuz filtroa artetsu; Joe ostera, ezinean ari zen, eta honengandik ihesi zihoan kea bereganatu nahi zuen orain

Galileok, bere zigarroaren kearekin aski asetuta ez, itxuraz.

– Ikusi nuen behin antzeko zerbait film batean. Kartzelan zegoen tipo gazte baten istorioa zen. Kartzelakideek pribilegiatutzat zeukaten gazte hau, espetxe hartan bizi osora kondenaturik ez zegoen bakarrenetarikoa zelako. Berak, ordea, gauzak beste era batera ikusten zituen: gaztea zen, odolberoa, eta ez zegoen bere bizitzako sei urte zuloan galtzeko prest. Kartzela hartatik mila eratara irteten saiatu ostean, beti harrapatu zuten, bere zigorra areagotzea baino ez zuen lortu. Konturatu zen handik ateratzen ziren bakarrak hildakoak zirela, handik zerraldo baten barruan bakarrik ateratzen zirela presoak, gaixotasun ezezagunen batek edota lupu gaiztoren batek jota hil ondoren. Hala bada, kartzelako medikua sobornatu eta hurrengo hildakoarekin batera, bera ere hilkutxan sartzeko tratua egin zuen, behin kanposantura heltzean medikuak berak kutxa ireki eta ihes egiteko asmoz. Garai hartan, itxuraz, kartzelako medikuak pertsonalki arduratzen ziren presoak kanposantuaren harresiaz bestaldean, hildako arruntengandik aparte,

ohorerik ez zutenen esparruan lurperatzeaz. Horrela, kartzelatik atera eta kanposantura heltzean, medikuak zerraldoa irekiko zion, bera zerraldotik atera eta kitto, aske izango zen behingoz eta betiko. Plana biribila zen. Ez zen nahi ordurako heldu hurrengo hildakoa, baina azkenean behintzat zendu zen norbait. Hainbeste denbora igaro zen, ze jada, hiru hilabete baino ez zitzaizkion kondenaren osotasuna betetzeko geratzen. Zalantzan ere egon zen, itxarotea ez ote zen hobe, baina bere planak huts egitea ezinezkoa zenaz ziur, aurrera jarraitzea erabaki zuen. Ezkutuan, zerraldoan sartu eta hor atera zen kartzelako harresien bestaldera zerraldoaren barruan, hildako oraindik beroa kide zuela. Egundoko beldurra eta higuina ematen zion hildako batekin bizkarrez bizkar joateak. Ez zion begiratu ere egin nahi izan kanposantura bidean. Behin hara heltzean, ordea, hilkutxa zulora nola jaisten zen sumatu zuen izu laborriz. Hasieran, medikua adar jotze makurrean ariko zitzaiola iruditu zitzaion, baina lurra eta harri-txintxarrak palakadaz palakada zerraldoaren goiko oholaren kontra talkatzen sumatu zituenean, erabat larritu

zen. Oihu batean lehertu zen. Kartzelako medikuaren hitzaz fidatu izanagatik inozo hutsa izan zela otu zitzaion. Pospolo bat piztu zuen hilkutxa irekitzeko moduren bat aurkitzeko itxaropenarekin, eta une hartantxe, zurbiltasunak jan zion azala, pospoloaren argipean, bere ondoan zegoen hildakoaren aurpegia bistatu zuenean: berak sobornaturiko medikua zuen zerraldoan lagun.

– Beldurgarria, alajaina! Zer uste duzu zuk honetaz, Bob?

– Nik? Ba... nire ustez Cadillac zaharrak ez dira inoiz hiltzen, gertatzen dena da Ogasun Ministerioak konfiskatu egiten dituela ezerezean utziz. Lastima da. Eta gero zaldiz ibili beste erremediorik ez zaigu geratzen.

Denak isildu ziren orduan, begi pare pentsatiak bakoitza norabide batera begira, kea sabaian esekita zegoela. Geldirik zeuden denak, Galileo salbu, zeina aulkiaren gainean zutitu eta sabaiko kea bereganatu nahian baitzebilen, hura ere irentsi nahian. Orduan, irratian, betiko blues baten ahots kementsu baina kexatiak urratu zuen jarabearen eta lixibaren usaina, pasillo gar-

bitu berrien kutsua zuen egongelako isiltasuna hautsiz.

> Bakarrik nago ez dudalako
> sekula zu bezala inor maitatu
> begira nire ametsa esku artean hautsita daukat
> petalo horiaren lorautsa bazina ere
> haizeak zaitu barreiatu
> zergatik taupatzen du nire bihotzak orain
> zu ez bazauzkat
> ez du eta zentzurik taupada batek
> Bakarrik nago ez dudalako

Joek zigarrokina hartu, lurrean belaunikatu eta telefono bat marraztu zuen lur axedrezatuko koadro zuri baten barruan. Errebolber bat ezkutatzea erraza zen. Gorpu bat ezkutatzea erraza zen. Baina errazagoa zen beti telefono bat ezkutatzea, gorriz lakatutako telefono elektriko bat ezkutatzea munduan zegoen gauzarik xinpleena zen, «eskolume batek ere erraz egingo lukeen zerbait» pentsatu zuen Joek, telefonoaren xerka etsian begiekin sabaia eta pasilloko apargailuak ikustatuz. Gorriak ziren apargailu guztiak, Alaskako erizain aluita haiek ezkutatzen zituzten telefonoak bezain gorriak. Eta bera dei garrantzitsu baten esperoan zegoen aspaldi. Eta non

arraio, non arraio ote zegoen etengabe eta gauero esnarazten zuen telefono madarikatu hura.

Ttu egin zuen Joek lur axedrezatuan trazaturiko telefonoaren gainean. Euriak kristalak erasotzen zituen, eta noiz edo noiz, bonbilletako argiak dardara egiten zuen, erle batek betazalak kliskatzen dituenean bezala.

Elektroshock

Den-dena. Argi guztia. Semaforo horixketako argi guztia. Hiritik hirirako argindar kable bustietako argi guztia. Autoetako urrutirako argi guztia eta kriseiluetako argi guztia. Kirofanoetako sabaitik hari batez eutsirik zeuden entsaladera metaleztatu eta alderantziz zintzilikatuetako argi biribil guztia. Erleen ziztaden argi hexagonal guztia. Hiriko bonbilla guztietako argi guztia. Edisonen hortz aparatu zuzentzaileetako argi guztia eta nahigabe ekidin diren aire katastrofe guztietako argi guztia. Baldin eta norbait baldin balego patio batera begira sumatuko zukeen argiaren dardara afalorduan sukalde guztietan, dardara egingo zuten fluoreszenteek, erle batek betazalak kliskatuko balitu bezala, argi guztia baitzihoan ziztu bizian Alaskara, lurpetik, estolderiatan barna, lur gainetik, autobideko arraia zurietan barna, arraia etenak arraia jarrai itsugarri bihurtuz, zubi altxagarriko erronbo formako burdinetatik barna, tximistek argituriko aterkien barilletan barna, argi guztia amiltzen zen. Hegazkin zi-

larreztatuetako argi guztia. Tximistorratzek bi milurtekotan pilaturiko argi guztia. Sutan erretzen ziren ibaiertzetako argi guztia eta hildakoen begi horiztatuek abandonaturiko argi guztia. Kaleargietatik ibaira eroritako argi angelutsua. Insomnioak jota esnatzen diren guztiek pizturiko fluor-kriseiluak. Bat-batean autobusetik jaitsi eta emakume ezezagun bat kalean zehar pertsekutatzera garamatzan inpultsoen argi guztia. Gauloises zigarro guztien argi guztia eta monarken hiletetako kandelen argi guztia. Gramola guztietako diskoek salto eginen zuten eta diskoa marratu; entxufe proletario eta holguradunetara zihoan argi guztia ez zihoan orain entxufe proletario eta holguradun haietara, Alaskara baizik eta ez beste inora.

Ohatilaren gurpiltxoek zarata kirrinkatsua ateratzen zuten munduko argi guztia pilaturik zegoen kirofanora zihoan bitartean: garaiz heldu behar zen, munduko argi guztia hara heltzen zen une berean. Kirofanoetako ateak errestauranteetakoak bezalakoak ziren: bi aldeetara ireki edo herts daitezkeenak eta leihatila biribildunak, *«kalamarrenabatgehigoo, xolomonakbii».* Ba-

rruan zegoen azkenik ohatila eta munduko argi guztia biribilak diren leihoetan kiribiltzen zen, zain. Erizainburuak tertziopelotan bilduriko bi zapata jarri zizkion lokietan, azalak atsegin har zezan –*elektrodoak* zioten bere garuneko amapola artean ezkutatzen zen hamasei urteko neska biluziaren ezpain busti eta lohiek, *elektrodoak, elektrodoak*–. Bi zapatak kable banarekin zeuden loturik hormara –alegia, munduko argi guztira– eta laster, bere buruan barneratuko zen munduko argi guztia, suzko gezi bat bezala, bere garuneko amapola landaketak errez, tabako landaketak errez, behin eta berriz irudikatzen saiatzen zen hamasei urteko neska biluziaren ezpainak erraustuz, dena kiskaliz bere bidean igarotze bortitzarekin. Purkinje nerbio guztiak arkutuko ziren bat-batean, eta larruzko hedez lotuta egon arren, gorputza ere arkutu egingo zen gorantz, Wagnerren sinfonia baten antzeko konbultsio bortitz batean, munduko argi guztia baitzegoen bere barruan eta gorputzak ez zuen gorantz arkutzea beste erremediorik izanen, gezia jaurtikitzen duen arkua bailitzan, gorantz, auskalo noraino, kirofanoko sabaian argien funtzioa bete-

tzen zuten entsaladera metaleztatu eta alderantziz zintzilikatuak zeharkatuz, urrutira helduko zen dudarik gabe gezia.

Hiri guztiko argiak itzali ziren. Orain bere barruan zegoen munduko argi guztia. Bere biriketan, munduan diren eta izan ziren tentsio altuko zutabe guztiak. *All the things you are.* Deus ere ez gehiago aipagarririk, marihuana erretzeko gogo izugarri bat salbu.

Shocka jaso ondorengo minutuetan ez zuen Bobek batere ongi ikusten eta oraindik haluzinazioak zebilzkion buruan. Bere inguruko medikuak xanpain beilegiz beteriko kopak altxatu eta *xanté* esanez, zerbait ospatzen zutela iruditu zitzaion. Argi soberakoarekin topa egingo balute bezala.

Eta bizkar biluzi haiek guztiak. Munduko argi guztia, eta guztia alferrik.

Paradiso Radio

Ezagutzen duzue aho-soinua jotzen zuen itsuaren istorioa? –ahots sudurkari hark isilune luzeak egiten zituen esaldi batetik bestera–. Eskean ematen omen zituen egunak eliz atarian, harik eta norbaitek aho-soinu berri bat oparituko ziola esan eta aho-soinuaren ordez ganibet zorrotz bat ezpainetaratu zion arte...

Eta gure ezpainak ere, ez ote dira, antzinako borroka bateko zauri, zauri gorri, zauri bikoitz...

Kontsola zaitezte: ziur badagoela beste nonbait, beste ezpain bikiren bat zuengan jarrita dauzkana bere pentsamenduak. Nik adibidez... zugan... bi sahats badira munduan, gure lorategian dago elkartuko dituen hamaka... Goizeko bostetarako hamalau minutu doi falta diren honetan, laztan bat bidaltzen dizuet kariñoa zer den ahantz ez dezazuen. Eta muxu bat ere bai. Hortxe. Gehien maite duzuen zauri bikoitz gorri horretantxe. Gogoratu 22.2, hiru zisneen irratia dela hau, Paradiso Irratia.

Susana Qrekin hitz egin dezakezue hala nahi izanez gero. Gogoan izan gure lorategira sartzeko kutxa blindatuaren konbinazioak: 31269 eta 42344. Amodiorik bada gure parkean, hemen, Paradiso Irratian, zu entzuteko gaude… Smithers anderearen lorategian noski, non bestela.

Charlie inoiz baino hobeto ari da jotzen
mutikoa ezkutatu da billar mahaiaren azpian
(mutikoak badaki zer egin, badaki zer egin)
eta Smithers andereak ezin du lorik egin
o, ez, Smithers andereak ezin du begirik bildu
kontrabaxuak behin eta berriro dio:
zenbat tren leihoan insomnio guztiak dastatzeko ere

Zer den jazza erranen dizut:
betikoa whiskya den hiztegi bat, den hiztegi bat…
Billar mahaiaren gainean larrutan ari diren
bi emakume,
disimuluan non dago takoa? galdetzen duen agure zelatia
konturatu orduko oinen azpialdeetatik
gorputzaren barrua zeharkatuz bortizki
bururaino igotzen den begirada bertikal
tren abiadurako bat

begi elektrikoz betetako zoru batean oinez ibiltzea
oinez ibiltzea hogei zentimetro zoruaren gainetik
zure buruan zaldi karrerak egiten direla sentitu
apustu egin eta zerbait irabazi edo dena galdu
funerariako kotxe beltz bat baino beltzagoa den
bakelitazko telefono baten ondoan zain egon

(zure deiaren zain, ulertzen duzu)

O Mrs. Smithers' flowers, Mrs. Smithers' poor flowers

Gure sintonia eten beharrean gaude: berrien txanda da orain. Atzo, agentzien arabera, Marcos Vicente Machado, hogei urteko gazteak bere buruaz beste egin zuen Brasilgo erdigunean dagoen Goianian. Hil aurretik idatzitako gutun batean adierazi zuenez, bere asmoa, *Mamonas Assassinas,* joan den larunbatean Brasiliatik Sao Paulora zihoazela hegazkin istripuz hilik suertatu ziren rock taldeko kideekin bat egitekoa zen. «Mamonas taldekoekin eta Edsonekin (bere lehengusu berriki hilaren izena zen Edson) elkartzera joan naiz. Ez negarrik egin. Elyne eta Kellen maite ditut», idatzi zuen Marcos Vicente Machadok aizto elektriko batekin bere buruaz beste egin aurretik.

Bitxikeria bezala erantsi, igarkizunetan trebe den astronomo batek rock talde honetako kideek hegazkin istripua izanen zutela aurreikusi zuela, eta halaber aurreikusi duela Brasilgo presidentearen hegazkin istripu molde bertsuko bat gerta daitekeela ondorengo egunetan. Fernando Hen-

rique Cardoso, Brasilgo presidenteak, ez du, ordea, igarkizuna aintzakotzat hartu eta 1958an eraikitako bere aireplanoan bidaiatuz jarraituko duela adierazi du.

Zeru puska handiagoa

– Jendeak hemendik autoz pasatzen jarraituko dik noski, baina inork ez dik Alaska faltan botako. «Zeru puska handiagoa ikusten duk gaur» pentsatuko ditek koitaduek eraikuntza erraustu eta desagertu denik antzeman gabe, zeru puska handiago bat, zeru puska handiago bat, pentsa zenbat axola zaien... Inozente hutsak dituk hor kanpokoak, mokasin hutsak. Baina gu hemen arriskuan gaudek, Bob. Hik nik bezain ongi dakik, isilik hagoen arren.

Egongela nagusian eserita, bazkalosteko abagunea baliatzen zuten gaixoek eguneko konfidentzietarako. Erizainak kafea hartzeko bildurik zeuden eta lasai hitz egin zezaketen orain gaixoek inork entzungo zituen beldurrik gabe. Batzuetan, egongelako egurrezko irrati handia piztu eta irrati barruko zomorroek zer esango atezuan geratzen ziren; ez zuten zalantza izpirik, han barruan zomorro-profeta hizlariren batek –ziur aski bat baino gehiago ziren, ahots molde ezberdin haiek guztiak nola egiten zituzten ulertzea gaitza

zen bestela– egon behar zuen kaiolatuta. Egun hartan ez zuten ordea irratirik piztu, Anatol oso hiztun zegoen. Arrazoi ezezagunengatik basamortua hartzen zuen aspaldi hartan hizpide, basamortua eta hondarra. Bere lotarako sendagaien dosia handitu bazuten ere, azken gauak esna igaro zituen, idazmakinarik gabe makinaz idazteko imintzioak egiten, eta goiz hartan, shockaren bidetik jotzea komenigarria ote zen aritu ziren sendagileak eztabaidatzen.

– Hemendik urte batzuetara desagertu egingo duk leku hau. Inor ez duk ohartuko. Zer uste duzue? Baietz dena hondar bihurtu! Jendeak goizeko seietan jarriko dik orduan ere iratzargailua eta erdi lo irekiko dik izozkailua, ardien burueta-ko begi tristeak ikusiko ditik apalean... Eta muzin egingo ziotek zenbaitek gosaltzeari, beste batzuek berriz ez; arrunta iritziko diote ardiaren begiradari. Eta horixe da gizaki on eta gaiztoak bereizten gaituena. Izozkailu ireki baten aurreko jarrerak egiten du on eta gaiztoen arteko hautapen naturala.

– No-Frost izozkailua, ezta?

– Horixe duk, Bob, No-Frost, hik behintzat ulertzen duk.

– Ardiez ari garela, behin ezagutu nian ardi bat. Écolier kalean bizi zuan, zazpigarren pisuan. Charlie Parkerren disko bilduma osoa zeukaan eta oso kafe ona prestatzen zian gainera, hori bere alde.

– Hago isilik, Joe... Ez duk txantxetakoa. Ez pentsa, ez dituk hainbeste urte behar izango. Dena bihurtuko duk hondar. Berunezko gauzek baino ez ditek iraungo, «ei mesedez lagundu» esanez bezala harea artetik, pentsa, berunezko oasi txikiak –hitz egiten zuen bitartean, Anatolek besoak zabaldu eta keinuak egiten zituen harat honat, benetan esaten duena sinesten duenaren keinuak; zaila zen zehazki deskribatzea, baina politikari batek ez zukeen sekula halako keinurik egingo–. Kafetera eta erradiadoreek. Haiek bakarrik iraungo dute dena hondar bihurtzean. Basamortu bat dena kafeteraz betea.

Bobek ahalik eta ahalegin handiena egiten zuen elkarrizketa haietan ez sartzeko, egunetik egunera ero madarikatu haiek esaten zutena gero eta gehiago sinetsi egiten zuela iruditzen

baitzitzaion. Egunetik egunera handitu egiten zitzaion errealitatearekiko amildegia, eta gerturatu egiten zen, halaber, zoro koitadu haiengana. Gero eta indar handiagoa erabili behar izaten zuen bere senean zegoen Bob Ieregiren eta txoro aldra haren arteko etena mantentzeko, ero haiei kasu gehiegirik ez egiteko, txorakeriak esaten zituenean txorakeriak nahita esaten zituela ohartzeko, eta bere buruari inozokeriak saihestu eta errealitateari branka emateko gai zela baieztatzeko. Hainbeste clorpromazina eta reserpina pastillak nahastu besterik ez zuten egin.

Gauza bat garbi eduki behar zuen une orotan: haiek guztiak erotuta zeuden eta bera ez. Berak handik ihes egin behar zuen, hori zen dena, zerbait asmatu behar zuen lehenbailehen. Ez zen batere ideia ona izan isolamendu hark bere alde joka zezakeela pentsatzea.

Baina halere, elkarrizketa hartatik urruntzen saiatuagatik, erdi-erdian zegoela ohartu zen, eta berak ere, nahi ez izanda ere, gogoetak egiten zituela gaiaren inguruan. Ezin izan zuen bere buruko tabako landaketen artetik pentsamendu batek ihes egitea saihestu. Eszena irudikatu

zuen: dena bihurtuko zen hondar, basamortu... erradiadore bat imajinatu zuen burezur bat kaiolatuz. Eta burezurraren gainean dortoka bat, oinez: Galileoren dortoka. Arraioa, burua galtzen ari zen, horixe behar zuen ba! Pentsatutakoa baztertzen saiatu zen, Cedar Waltonen bluesa bere buruko amapola landaketetatik berreskuratzen. Ezin zuen horrela segi. Batzuetan, benetan erotzen ari zela iruditzen zitzaion, eta bere burua hartara abandonatzea zuela ihesbide bakar. Indartsu izan behar zuen, arraioa, indartsu. Cedar Walton, Cedar Waltonen bluesa. *Blues*, hori zen tren baten onomatopeia posible bakarra.

– Troiako zaldia ere hondar bihurtu zen, Anatol.

– Nik ez dut hala uste. Troiako zaldia ez zen hondar bihurtu. Troiako zaldia egurrezkoa zen eta handiegia, inondik ere, hondar bihurtzeko. Kiskali egin zen Troiako zaldia. Baina gu ezin kiskal gaitezke –paretaren alde bietara zintzilikaturiko apargailuei begiratu zien zeharka–. Litekeena da, dena den, erietxea hautsontzi bihurtzea ere. Hautsontzi bat, orube bat, dena errautsez betea. Jainkoen hautsontzi esan nahi dut. Begira

ezazue era honetan: jainkoak beren gurutziltzatuetatik jaisten dira eta zigarro bana erretzen dute, garai batean hil-hurren ukatu zitzaien desioa... Zer gutxiago, ezta? Ez al da bidezkoa? Zigarro bat erretzen dute, markakoa noski, Winston, Picayunnes, hori da gutxienekoa, baina jainkoek markako zigarroak erretzen dituzte, eta gero zigarroa hartu eta gure gainera erortzen utziko dituzte errautsak. Gure bizkar gainean amatatuko dituzte zigarrokinak.

– Troiako zaldia kiskali egin zen beraz. Arraioa, ez nuen sekula usteko horrelakorik!

– Horixe da, Joe, kiskali.

– Elektroshocken baten ondorioz, akaso, Anatol?

– Hago isilik, sandalioa!

Denak isildu bezain pronto, Galileok hartu zuen hitza, Joe eta Anatolen arteko elkarrizketaren norabidea apurtuz. Eskua kokotsean paratu eta pentsakor agertu zen.

– Ez. Ez diat uste hori benetan horrela gertatu zenik. Troiako zaldiari kafetera bat erori zitzaioan buru gainera eta konortea galdu zian. Hori duk. Jendea hil egiten duk eta zaldiak ere

bai. Jendeari kafeterak erortzen zaizkiok buru gainera, hori egitate egiaztagarri bat duk, gaur niri eta bihar hiri... Hori duk legea. Alaskak hemen jarraituko dik, baina guk ez, horretaz arduratuko dituk kafeterak; oreka homeostatikoa lortzean zatzak gakoa. Ez zagok aterkirik zerutik erotzen diren kafeteretatik babestuko gaituenik. Jaiotzen garen egunetik denok diagu geure kafetera propioa amildegiren baten gorenean zain. Eta ez itzazue zeuen buruak engaina, inork ez gaitik faltan botako. Troiako zaldiak irrintzi egiteari utzi zionean ohartu al zen akaso inor?

– Nik behin ezagutu nian zaldi bat. Écolier kalean bizi zuan, zazpigarren pisuan. Tira, egia esatera, konfiantza gehiegirik ere, izan ez genian. Kaixo egin elkarri kalean eta abar, hori bai, noski. Edukazioa edukazioa da. Ez genian sekula kaferik hartu tamalez, Kolirioren aurkako konbatea prestatzen ari ninduan garaian izan zuan eta...–Joe Pandaren bekainak gorantz arkutu ziren, pentsamendu lausotuen artean galdutako aukeraren bat hausnartu eta begizuloetan putzu ilunak ziruditen itzalak proiektatuz.

Bob isilik zegoen, erretxinduta apur bat. Eramanezina zitzaion jainkoen eta zigarroen kontu ergel hura, zer arraio; hirurogeita hamarreko koefizientea zuen edozein eskolaumek zekien jainkoek Gauloises erre izan dutela betidanik, baina laga egin ziotela erretzeari filtrorik gabekoak egiteari utzi eta agintariek tabakismoaren aurkako kanpainari ekin ziotenetik, birika kartoitu eta belztuak jasotzen zituzten argazkiak agerrarazten hasi zirenean autobus geltokietako markesinetan, *Birika hauek bizirik zeuden duela 24 ordu* mezuaren pean.

Eta hori gutxi balitz, Troiako zaldiaren hura. Berak bazekien Troiako zaldiaren istorioa. Baina alferrik zen haiekin. Erotuta zeuden denak. Boliviako paretak baino pitzatuago zeuden haien buruak. Ez zegoen bakar bat ere itoginik gabe. Ondotxo zekien jakin berak, baina nola hasi haiei azaltzen, nola adierazi Troiako zaldia ere, Kentuckyn hankamotz jaiotzen ziren zaldi guztiak bezala, txiki-txiki egin eta *envased in Kentucky* zioten lata horitan zabaldu zutela mundu guztiko ghettoetako harategirik merkeenetara.

Zakur ametsa

Makinistari ez diote esan zein den daraman kargamentua. Hiroshima eta Nagasakiren gainean bota zituzten lehergailu atomiko haiek hegazkinean eraman zituen pilotua oroitzen du. Abiadore hark bezala, berak ere ez zekien zein zen zeraman merkantzia, baina bere baitarako zegoen, oso argitsua zela bere bizkarrean zeraman hura. Argizko perretxiko atomiko erraldoia ote zen zeramana?

Kiskalitako lautada zabalen erditik doa trena, ziztu bizian. Makinistak burdinazko markotik ateratzen du burua, ikatzez zikindurik dauzka kopeta eta masailak. Berari ere ezezaguna zaio orain-dik sudurreko usna-ildoetatik barneratzen den amapola hosto erreen usain sarkorra.

Blues da trenaren onomatopeia ulergarri bakarra. Harmonika bat. Trenbidea gorri eta mehe bihurtzen da geroxeago, eta inguru kiskalia izotzezko zuringo. Trena tunelean sartzen da, argi izpi bat begi-ninian barneratzen den erraztasun berdinarekin. Eta bai. Tunelaren hezeak –malko

bat– adierazten dio makinistari hipotesirik sinesgarriena dela tunel hori begi ilun bat besterik ez izatea.

Satorrak

Begiak irregularki arkutuz, beldurtuta egin zuen galdera hura Nikolas Holoborodkok, intxaurrik gabe geratu den katagorri desanparatuaren aurpegiarekin.

– Hainbeste denbora hemen barruan... Itxura ona daukak hala ere, Bob.

– Hago isilik, nire aurpegiak autopsia bat ematen dik-eta.

– Zera... bihar alde egin beharra zaukaat, Bob, horregatik etorri nauk gaur... Ezin diat egoera honetan hemen luzaroago jarraitu. Ez zakiat, oso gauza arraroak ari dituk gertatzen. Zirkulua hersten ari zaiguk, Bob: Piquerasen aurkako taldea indartzen ari duk hirian, egoitza baimena ere ez zigutek luzatu eta... Kanpotik saiatuko gaituk hi ateratzen, ea Parisen edo laguntzarik ematen diguten...

– Ulertzen diat, hermano, ulertzen diat... Eta... Klara?

– Klara? Zera... Klarak ezin izan dik etorri... Ez zagok... oso... nahiko zeratuta zagok, ba hirearekin, badakik... Nola esan?

– Utz ezak, hermano, ulertzen diat.

– Gauloises pakete batzuk ekarri ditiat. Eta disko pare bat ere bai. Gramolarik-edo baduk hemen?

– Bai, gelan bazagok bat. Ez zabilek oso ongi baina tira... Zer duk?

– Txorakeria bat...

– Arraioa... *Zadel Taxi Quartet!* Nondik eskuratu duk? Hau agortuta zagok aspaldi!

– Kontaktuak, Bob, kontaktuak eduki behar...

– Nikolas...

– Zer?

– Estimatzen diat bisita egin izana.

– Tira, estepa errusiarreko katagorri batek berera alde egin aurretik egin dezakeen gutxiena duk hori. Ahaztu aurretik, hik eskatu bezala, Manuel de Fallaren diskoa ere ekarri diat.

– Zer? Manuel de Fallaren diskoa?

– Bai, gizona, ez al haiz gogoratzen? Mezua barru-barruan dik bere musikak. Goitik behera arakatu behar dituk bere musikaren koloreak,

udazkena bezain marroikarak bere tonuetan. Hik esana duk. Ez al daukak gogoan?

Harri eta zur geratu zen Manuel de Fallaren ateraldiarekin. Berak ez zion sekula Manuel de Fallaz hitz egin, eta are gutxiago bere musika eskatzeko. Nikolas besarkada batez agurtu eta bere gelara heldu zenean, aurrez sarrerako zaindariak miatutako pakete irekitik atera zuen diskoa. Diskoa azaletik atera eta argitara jarri zuen: ez zegoen bertan inolako mezu ezkuturik. Kartoizko azala hartu zuen gero. Kanpotik ez zeukan, itxuraz, ezer berezirik: *El sombrero de tres picos* delakoaren Londresko Orkestra Sinfonikoaren grabaketa soila zen, Barbara Howitt sopranoa laguntzaile zutela. Azaleko irudian bi emakume ageri ziren mantoi bati helduta, soineko argiz jantzita, eta bi hauen atzealdean bi gizon beltzez, hauetako batek aurpegia erdi estalita zeramala.

Zer esan nahi ote zuen ordea, «mezua barrubarruan du bere musikak» hark? Bobek gelako gramolan diskoa jarri eta grabazioa hagitz arrunta zela ziurtatu zuen. Erabat intrigatuta, bere gelan harat honat zebilela, barruan diskorik

gabe, azalak ohikoek baino gehixeago pisatzen ote zuen iruditu zitzaion. Bizarra mozteko aitzurrarekin ebaki txiki bat egin zion azalari. Orduan ikusi zuen barru faltsuan Manuel de Fallaren irudi marroikara, ez behin bakarrik, baizik eta askotan errepikaturik: hogei duroko billeteak ziren, diskoaren azalaren barruan ezkutaturik zeudenak. Billete guztietan, Manuel de Fallaren irudi burusoil eta betaurrekoduna ageri zen. Manuel de Fallaren billeteen pean berriz, florinak eta frankoak. Diru mordoxka zegoen han, Holanda utzi, Frantzia zeharkatu eta Espainia aldera pasatzeko adina bai, behintzat. Euforiko sentitu zen: ihes egitea lortzen bazuen, bere aitaren jatorri zen Euskal Herri hainbat aldiz imajinatu hura bisitatu ahal izango zuen, beharbada.

Dirupaper haietan guztietan bilatu zuen antsia handiz Bobek *hirugarrena ez da urdina* mezua tatuaturik izan zezakeen baten bat. Hura zen Klararen izaera bereziaren beste alderdi bat: bere eskuetatik igarotzen ziren billete guztiak, boligrafo batez *hirugarrena ez da urdina* izeneko mezu bitxiarekin hornitzen zituen ertz batean, bere probabilitate kontuak edo auskalo zer

egiaztatzeko asmoz, mezu berbera zuen billeteren bat noizbait berriro bere eskuetara itzultzeko zeuden aukera urriak neurtzeko, akaso. Baina Nikolasek diskoan ezkutatuta helarazi zizkion billeteen artean ez zegoen Sara Vaughanen kantu batetik ateratako hitz haiek tatuaturik zituenik.

Diru pixka bat bazuen, ez zen gutxi. Ihesa gauzatzeko bigarren pausoa askozaz ere nekosoagoa suertatuko zen, ordea.

Ederki kosta zitzaion Bob Ieregiri ero koadrila hura konbentzitzea. Baina azkenean, Joeri telefonoak lurpean ezkutatuta egon zitezkeeneko kontua aipatu eta Galileo lurperatzaile izana zela baliatuz, nolabait erakarri zituen zoro haiek klarionaz marrazturiko mugaren bere aldera, askatasunerantz zuzenduko zituen lurpeko tunela zulatzen hasteko.

Bi hilabete pasatxo eraman zien zelaia beheko aldetik zeharkatuko zuen tunela patio erdialderaino luzatzeak. Ez zen batere lan samurra koilaraz eta eskuez tunela urratzen aritze hura. Zorionez, lurra nahiko biguna zen, eta alde horretatik ezin kexatu ziren. Bestalde, eskergaitzak izan ziren Galileoren esperientzia eta Joe Panda

bezalako gizaseme gihartsu baten lana. Jangelatik lapurtutako bonbilla dardaratiz argitu zuten bidea, eta argindarra haraino heltzeko, patio sarrerako kable bat luzatu ahal izan zuten lurpetik. Kanpotiko argindar kablea laburregia zen, ordea, eta tunelaren lehen metroak bakarrik argitzen zituen. Hortik aurrera, ez zuten linternak erabili beste aukerarik.

Asteazken batez egin zuten patioaren erdigunea seinalatzen zuen zuhaitzaren sustraiekin topo. Joek zauri handi samar bat egin zuen bere boxeolari beso zuztarra zuhaitzaren zainekin urratuta. Odola zerion besoko zauritik zuhaitzaren sustrai-kapilarrak ezarian-ezarian gorritzeraino.

– Zuhaitza erdi-erdian dago! Zer egin behar dugu aurrera jarraitzeko? Sustraiak txikitu?

– Ezta pentsatu ere: alferrikako lanik ez. Lotu besoa ahal duzun ongien eta saihets dezagun zuhaitza ezkerralderantz zulatuz. Utz iezadazu zauria ikusten –Anatolek, erabakiak hartzeko zuen gaitasuna berriro ere erakutsiz.

Arropa garbia jasotzeko eguna zen, goizean goiz, murruaren lurpeko aldearekin topo egin zu-

tenean. Irrikaz zegoen Bob kanpoaldera ateratzeko. Metro pare bat gehiago zulatu eta libre izango ziren, murruaren bestaldean.

Ihesa burutu behar zuten arratsalde hartan, bi ordu baino ez zuen Bob gizarajoak lo egiterik lortu. Amesgaizto latz batek bereganatu zuen bere loaldi laburra: izara artean kiribilduta, momia zuri bat zen lehenbizi, maindireak itsatsi egiten zitzaizkion geroxeago, bere gorputzaren inguruan kiribil perfektu bat osatuz eta besoak gorputzari erantsi, hankak paralizatu eta bata besteari pegatuz; behatz puntak baino ezin zituen mugitu. Hatz puntetako poroek, izarek testura fin bat hartzen zutela adierazten zioten. Begiekin alboetara begiratzen hasi eta preso hartzen zuten izaren gainean *sesio* hitza osatzen zuten hizkiak baino ez zituen ikusten ahal, beltzez idatzirik. *Jam session,* inprobisazio sesioren bat, apika. Bere tronpeta galdua zuen, ordea. Hitz luzeago baten zatia ziren dudarik gabe hizkiok, baina ez zuen hitz osoa irakurtzerik lortu, lepoa ere mugiezin baitzeukan. Ohetik erortzear zegoenean ohartu zen ohea kartoizko kutxa urdin bilakatua zela, zigarro pakete erraldoi eta

urdina zela orain bere ohea. Bere aurpegiaren alboan, ia garden bihurtu zen maindirearen alboan, makillajea kentzeko zilindro itxurako ponpoiak topatu zituen. Aurki jabetu zen ponpoi erraldoi haiek zigarroen filtroak zirena, bera ere izara artean zigarro bihurtua zela, *sesio* hizkiak ez zirela Gauloises tabako markaren alderantzizko irakurketa eginez gero lortzen diren azken bost hizkiak baino, bere inguruko zigarroak ere, bera bezala, gaueko deskuiduan tabakoa egiteko lantegiren batek bahituriko gizagaixoak baino ez zirela, gutxi fida: Alaskako gaixoak ziur aski. Eta Bobek paper zuri ia gardenaren bestaldean beste zigarroen filtroak ikus ahal bazituen, bera bihurtu zen zigarro hura paketetik erdi aterata zegoelako zen, norbaitek bera aukeratu zuelako paketeko zigarro guztien artean; eta berehala –aurresentitzen zuen–, bere hanka puntetatik gora berotasun kiskalgarri bat sentituko zuen gorputz papurtuan gora luzatzen, pospoloak zigarroari sua erantsi bezain pronto.

Joek esnarazi zuenean izerdi patsetan zegoen. Keinu egin zion lepoaz. Bazela garaia joateko. Bobek izan berri zuen amesgaiztoaren berri

eman zion Joeri. Pandaren loa ere ez zen batere sosegatua gertatu. Zuloaren amaieran, tunela kanpoalderantz irekitzean, telefono kabina baten azpian ateratzen zirela egin zuen honek amets. Bakoitza bere eroak darabil. *Dream darabil.*

Gaua oso zen euritsua. Tunelaren sabaia osatzen zuen lur bigunetik behera, euria irazten zen haien jantzi zurien gainera. Tunelaren bukaeraraino heldu ziren Joe, Galileo, Anatol eta Bob, azken bi metroak zulatu asmoz. Gauerdia zen ia –*round about midnight*–, berandu inondik ere, labanderiako kamioia ezohiko ordu hartan Alaskara heldu zenean. Kamioiaren zarata entzutean, une batez, Bob elbarrituta bezala geratu zen. Klararekin maitasuna egiten zuenetan, zarama kamioia pasatzean bakarrik uzten zioten plazer intziriak erreprimitzeari, kamioiaren zaratak beren maitasun oihuen estalgarri zirelako, gainerakoan, kartoizko pareta haien bestaldean norbaitek entzungo ote zituen beldur izaten baitziren. Zoriona ezkutatzeko dugun joera *and what is that little thing called love.* Tunelaren

goialdetik erortzen ziren euri tantek ekarri zuten berriro ere Bob orainaldira.

Egundoko ekaitza ari zuen eta labanderiako kamioia, putzuz beteriko bidetik ez pasatzearren, desbideratu egin zen apur bat patioko zelairantz, zuhaitza saihestuz sarrerara heltzeko asmoz. Patioaren erdialdean zegoen zuhaitzera heldu aurretik, ordea, lur bigun bustiak amore eman zuen kamioiaren pisupean eta bertan behera erori zen labanderiako kamioiaren aurreko gurpila, lau hilabete eta zazpi egunez zulaturiko lurpeko tunela agerian utziz, eta azpian harrapatuz, lau linterna eta zortzi kutxare parez gain, Txindasvinto, Galileoren dortoka gizajoa.

Zigor modura eta zentzabidez astebete norbere gelatan isolaturik igaro ondoren, astelehen eguzkitsu batez eman zioten lur Txindasvintori patioko zuhaitzaren azpian. Bob Ieregik, tronpetarik gabe bazen ere, *Isiltasuna* interpretatu zuen, solemneki. Bi adartxoz egin zioten gurutzetxoa eta hilartitza ere jarri zion Galileok. Izan ere, ez zen bera alferrik lurperatzaile izana:

La notte piú chiusa
lugubre tartaruga

annaspa

Eppur si muove

Geroztik, gauak, armiarma erraldoien sabelak baino pisutsuago igarotzen ziren Alaskako izotzezko zoruan barna, irristaka bezala, *in the train through your ice.*

Zer eternalagorik lore artifizial bat baino

Kaixo, kaixo, kaixo, Paradiso Irratia da hau eta Susana Q ari zaizue hizketan, zazpietan hasi eta goizaldera bitartean zuekin. Gure sintonia, lehenbailehen osa zaitezen, zuri eskainia dago gaur Elena, nori bestela. Hemen, 22.2, urmaeleko gure zisneen txokoan...

Ez dakit aurrez esan dudan, hemeretzi gradu zelsius ditugu, zerua lainotuta ageri da eta antizikloiaren eraginak desagertzen ari omen dira, euria izan dezakegu beraz, hurrengo orduetan; galerna arriskurik ere ba omen da. Ez kezkatu, halere, Paradiso Irratian zaudete, palmerapean babesturik, hemen ez da inor bustitzen, eta ni Susana Q naiz: Susana Q, zuen zerbitzura.

Charlie inoiz baino hobeto ari da jotzen
mutikoa ezkutatu da billar mahaiaren azpian
(mutikoak badaki zer egin, badaki zer egin)
eta Smithers andereak ezin du lorik egin
o, ez, Smithers andereak ezin du begirik bildu
kontrabaxuak behin eta berriro dio:

zenbat tren leihoan insomnio guztiak dastatzeko ere

Zer den jazza erranen dizut:
betikoa whiskya den hiztegi bat, den hiztegi bat...
Billar mahaiaren gainean larrutan ari diren
bi emakume,
disimuluan non dago takoa? galdetzen duen agure zelatia
konturatu orduko oinen azpialdeetatik
gorputzaren barrua zeharkatuz bortizki
bururaino igotzen den begirada bertikal
tren abiadurako bat
begi elektrikoz betetako zoru batean oinez ibiltzea
oinez ibiltzea hogei zentimetro zoruaren gainetik
zure buruan zaldi karrerak egiten direla sentitu
apustu egin eta zerbait irabazi edo dena galdu
funerariako kotxe beltz bat baino beltzagoa den
bakelitazko telefono baten ondoan zain egon
(zure deiaren zain, ulertzen duzu)

eta zorua begi elektrikoz beteta beti
klank bumm
piano bat erori da seigarren pisutik
eta zapaldu ditu pianoak Smithers anderearen loreak
o Mrs. Smithers' flowers, Mrs. Smithers' poor flowers

o, bai, piña zukua edanez barre egingo genuke guk ere
Smithers andereak loreak gorrotatzen zituela
ez bageneki
gogotik eginen genuke denok barre ez bageneki
Smithers andereak ez zeukala lorerik
pianopean datzan Smithers andereak
lore bakarra zeukala eta hura
lastozko sonbreiruan baino ez zuela erabiltzen

O Mrs. Smithers’ flowers, Mrs. Smithers’ poor flowers…

Gogoratu, entzule, programa honen babesle dela: Blay Oilarra, inon denik eta sobreko zoparik naturalena, koloranterik gabea, burukominik pisuenen aurkako erremediorik eraginkorrena, non denik eta irratsaiorik atseginenean; hemen, Paradiso Irratian.

Euria negutegietan

– Zergatik kendu ziguten telebista, horixe jakin nahi nuke nik.

Inork ez zekien zergatik erretiratu zuten Alaskako salatik telebista, baina iheserako saiakera frustratu hartaz geroztik, ez zuen tramankulu hark gehiago piztu nahi izan. Kutxa haren barruan argia ematen zuten ipurtargi guztiek hegan ihes egin zuten hexagono formako burdin saretik, gauren batean, oharkabean, denak lo zeuden bitartean. Anatolek, beti bezala, bazuen bere teoria: negua inguratu ahala, Alaska inguratzen zuten harresiek itzala egiten zutelako zen. Hura zen telebista ez ikustearen arrazoia, itzalak argia jaten zuela.

«Argi ibil hadi, aixkide, kale hauetan zutunik dabiltzanak itzalak dituk, espaloietako mantxa koipeztatu horiek dituk bertoko biztanleak, norbaitekin traturik egitekotan, itzalekin egin beharko duk berba». Norbaitek, noizbait, nonbait ikusiriko film hartako aholkua, bonbilla zurien inguruko oroitzapenak osatzen.

Handik denbora luzera, hilabete askora –nahiz eta Alaskan egonik denbora neurtzea zaila zen–, erizainburuak telebista erretirarazi eta sala bazterrean zegoen egur iluneko irrati tzarra egongela erdiko mahaian jartzeko agindua eman zuen. Geroztik, irrati hura bihurtu zen grabitazio zentro, haren inguruan biltzen ziren denak. Denak, Bob izan ezik, honi jasanezina baitzitzaion inguruko zoro haiek guztiak, elkarri begira, irratiak esaten zituen inozokeriak entzuten zituzten bitartean zorionaren aduanatik gertu zeudela ikustea; jasanezinak zitzaizkion helduen aurpegietan umeenak ematen zuten irri inuzente eta aldi berean inozo haiek. Irratiaren inguruan lerdea zeriela pasatzen zuten denbora ero koitadu haiek. Ezin zituen pairatu.

Ez zuen Klararen bisitarik jaso. Hura ere itzulia izanen zen, ziur aski, senarraren arrimura. Burua tomate kontzentratu poto batean sartu eta bertatik ostera atera baliote bezala sentitzen zuen: hiru elektroshock eman zizkioten Bobi ihes saiakeraz geroztik. Baina azkena eman ziotela baziren hamabost egun. Erizainburua maitekor zebilen berarekin azkenaldian. Ez berarekin ba-

karrik: Joeri, esate baterako, lorategi ingurua zulatzen utzi zion; inguru haietan telefono lurperaturik topatuko zuelakoan zebilen boxeolari gaixoa. Gainerakoak pasieran ibiltzen ziren bitartean, hazbete bat ere arakatu gabe uzteko asmorik gabe, lorategia zulatzen aritzen zen Joe, automata bat bailitzan.

Nora andreak Ieregirekiko zuen jarrera abegikorrari susmagarriegi irizten zion, ordea, azken honek.

– Ieregi jauna, zer duzu?

Bobi su lamada batek argituko zizkion une batez begiak, eta gero, bere sudurraren aurretik euli edo erleren bat uxatu nahi duenaren keinua egingo zuen eskuaz, ez du garrantzirik, inozokeria bat, uztazu, nire gauzak, txoratzen hasita nago, edo, ez egin kasurik, esan nahi duenaren imintzioa; eta, umore onez baldin bazegoen, gezurren bat botako zuen gehienera, Nikolas katagorriaren begikera betizuaz.

– Deus ere ez, andereño. Euria entzun dut negutegiko plastikoen kontra eta norbait txaloka ari zela iruditu zait.

Lo kamutsa versus bisturi zorrotza

Lobotomia ebaketa hasteko orduan, garun ireki batek azalore gorri eta irristakor distirati baten antzeko izan behar du mediku esperimentatu eta ohitu baten begiendako. Lehenengo urratsa, burua makinilla batekin soiltzea, noski. Gero anestesia. Bisturiarekin buruan alderik alde ebaki luze bat egitea da hurrengo pausoa, eta gero, latexezko eskularru meheekin, ebaketan gidari den zirujau esperimentatuak buruko azala banatzen du garuna den azalore gorria agerian utziz. Garunaren hemisferio biak elkarrekin komunikatzen dituzten hariak ebaki beharko ditu gero, eta kitto. Ebaketa honen ostean, ero arriskutsu zen hura hitz egiteko gaitasuna galdurik eta ia mugitzeko gauza ez dela geratuko da. Dozenaka aldiz egin du medikuak ebaketa berbera; gogorrak dira oso lobotomizatzearen ondorioak, bai, ezin uka, baina behar beharrezko direnetan baino ez dira halako ebaketak egiten.

Oraingoan, ordea, mediku esperimentatu eta ohituak burua ireki duenean, ez du inolaz ere azalore gorririk topatu.

Buru barruan erabat ezohikoa zaion ikusmira topatu du kirofanoko sabaian alderantziz zintzilikaturiko entsaladera metaleztatu haren argipean. Espejismo bat zela uste izan du hasieran, baina bere inguruko erizain eta laguntzaile harrituek ikusten zuenaren egiazkotasuna baieztatu diote: paisaia bat ikusten da buru barruan. Garunaren alde batean amapola landaketa gorriak, egundoko zabalera duten landaketak, ehunka eta ehunka hektareatan zabalduz, haize leun batek astinduriko amapola zelaiak. Eta garunaren bestaldean berriz, tabako landaketak. Bi landaketok banatuz, ibai bat, alkohol kirats izugarria daramana bere auskalo norako isurian behera. Ibai ertzean hildako zakur bat. Bat-batean, ibaiaren ondotik datorren biz-biz zarata ezeroso bat sortuko da, gero eta jasangaitzago. Ibaiaren kontrako norakoan eta hemisferio bien artetik txiki lehenik, kirofano zurian barneratuz handiago gero, ehunka eta ehunka erle matxinatuk inbadituko dute kirofanoa, ebaketa egiten zutenen

artean izu laborria sortuz. Azkenean behintzat, kirofanotik erleak uxatzea lortuko dute zirujauek, bata zuri eta latexezeko eskularruen tarteetan zein azulexu zurietan borrokaren zeinu zulatuak present geratuko badira ere.

Orduan medikuak josi egingo dio berriro ere burua gaixoari, josteko makina batekin baino arinago, presaka, seko ikaratuta, erlauntza bat josten ari den sentipenaz. Lasaitu, latexezko eskularru berriak estreinatu eta ikusitakoa ahazten saiatuko da. Medikuntza liburuetan agertzen ez den oro, hobe ahaztea.

– Hamaika ikusteko jaioak garela baina, halako azalorerik, arranopola.

Love for sale

Nora andrearen despatxukoa zen Alaskan burdin sarerik ez zuen leiho bakarra. Nora ia beti egoten zen bere despatxuko talaian, leihotik begira. Bitartean, behean, erizainak batera eta bestera ibiltzen ziren patioan, noiz edo noiz, erizainburuak bere lekuan geldirik jarraitzen ote zuen ziurtatzeko eraikuntzako azken pisuko leiho hartara begiratuz. Nora andreak bulegoan jarraitzeak zera esan nahi zuen: ez zuela erizainburuak gainerako erizainen laguntzaren premiarik, eta lasai jarrai zezaketela zeuden lekuan, edo areago, lasai jarraitu *behar* zutela zeuden lekuan, bakean utz zezaten gustuko izaten baitzuen Norak. Erizainburuaren lorratza leihotik desagertzen zenean, ordea, presaka zuzentzen ziren erizain-laguntzaile guztiak barrurantz, zer gerta ere.

Egun hartan, Bob Ieregik erizainburuaren deia jaso zuenean, ez zion Nora andrearen eskaerari batere traza onik hartu.

Nora andrea bere mahaian eserita zegoen. Aurpegian zerbait berezia sumatu zion Ieregik, hiena izan zela aurreko bizitzan, hori aspaldi idoroa zuen, baina beste zerbaiti igarri zion egun hartan: makillaturik zeukan aurpegia.

– Eser zaitez, Bob, mesedez –Bobek otzan obeditu zion, inolaz ere abandonatzen ez zuen feltrozko sonbreiru beltza kendu eta magalean jarriz–. Hara, Bob, egia esango dizut, ez zaitut hemen ongi ikusten. Hau ez da zure lekua, ez duzu uste? Zuk kanpoan behar zenuke, musika jotzen. Badakit zure eromen hori itxura hutsa dela.

– Ez dakit zer esan gura duzun, Nora andrea.

– Argi dago, bada. Nik daukadala zu hemendik aterako zaituen giltza. Eta nik esandakoa egin besterik ez duzula askatasuna erosi nahi izanez gero, Bob maitea. Horixe besterik ez.

– Zer egin dezaket, bada, nik zugatik?

Azken hitzak esaten zituen bitartean, Nora andrea zutunik jarri eta Boben atzealdean kokatu zen, esku biak aulkiaren bizkarrean bermatuz.

– Inor desiratu ez duzun eran ni desira nazazun nahi dut. Niganako sentitzen duzun gorroto

guztia sexu gose bilaka dezazun nahi dut. Zure fantasia bortitzenak nigan asetzea. Hori bakarrik, Bob.

Norak gortinari tira eta ateko kisketa itxi zuen. Ondoren, banan-banan askatu zituen bata zuriaren botoiak, horretarako ezker eskua erabiliz, eskuin eskua izterrartera biltzen zuen bitartean, bata zuria hankarterantz bilzimurtu eta bere izterren bolumen neurtua agerian utziz. Bob atearen aurka bultzatu eta bataren artetik mediadun belaunburuaz gogor laztandu zuen haren izterra, zakilerainoko bidaia zirkularra iradokiz eta lepoa atzerantz erortzen utziz, Bobek hozkatu zezan. Bobek, bien bitartean, bere burua ur- jauziaren menpe erortzen utzi zuen. Nora inoiz baino erakargarriago zitzaion, galtzetako botoiak askatu eta hatz puntez zakilaren inguruko biloak kiribiltzen hasi zitzaionean. Norari sorbaldaraino heltzen zitzaion ile beltzarana arabiar zaldi batena begitandu zitzaion. Botoiek zarata lehorra atera zuten bata portzelanazko lurrera erori eta Nora erabat biluzik geratu zenean. Bobek banan-banan laztandu zizkion bizkarrezurreko koskorrak, ipur-ildora heldu eta bi izterren

artean atzetik aurrera esku biak barrurantz bilduz alga lehor haiek hatz puntez sumatzeraino. Norak izterrak estutu zituen une horretan. Boben eskuak bere hankartean harrapatu eta irribarre lizun bat erne zitzaion. Musu luze batean kordokatu ostean, Bob, erabat ur-jauziaren menera jada, Noraren bular mamitsuak milikatzeari lotu zitzaion, bi aho izatea desiratuz, bular bakoitzarentzat bana. Hankartetik gero eta urrunago, plazer iturri izugarri zuen marrubia egosten sentitu zuen alga ilunez babesturiko labearen atakan. Noraren gerria esku biez oratu eta beregananantz erakarri zuen.

Lur axedrezatuaren gainean, erregina eta zaldia, biak horizontalki eroriak, korapilaturik lurrean. Anabasaren silueta mugikorra. Bridarik gabeko zaldiak.

Geroago, ohatilan lo hartzear zegoela, *Mrs. Nora T.* zioen plakatxoa josita zeukan bataren azpian biluzik, Nora andrearen bularrei begiratu zien, izara zuriaren aurka zapalduak. Ordura arte ohartu ez zen arren, Doktorearen baratzean sartu zen. Barroterik gabeko leihoaren gardenta-

sunak eskaintzen zuen ikusmiraz gozatzen saiatu zen arren, urduri zegoen oso.

Klararekin gogoratu zen. Une hartantxe Klara ere beste norbaitekin ohean egon zitekeela pentsatu zuen. Bere gogoeta hura luzatzen saiatu zen, Klararekin ohean zegoenaren aurpegia ikusten. Piqueras bera akaso. Ezin bereiz zezakeen, burua jiratu zuen arte: Vincent Van Gogh zaharraren aurpegia ikusi uste izan zuen orduan bere irudimenean, Klararekin ohean. *Maitasuna labezomorroak bezalakoa da: jaio, hazi, Niagarako ur-jauzi bilakatu, eta Cruz Verderekin, hil eta desagertu egiten da.* Sirenots urrunak sumatu zituen murruaren bestaldean. Errudun sentitu zen. Sirenots haiek nondik etorriko ote ziren galde egin zion bere buruari, entzun ahal izango ote ziren Klararenean sirenots haiek, eta hala balitz, Klararengan ere erruduntasun sentipen berbera piztuko ote zuten beragan sortua zuten bezala, ala estasi une hartan egin zezakeen gauzarik onena estasi hartaz gozatzea zen sentipenak garaituko ote zuen Klara ere, bera garaitu zuen bezala.

Zelata

Hurrengo ilunabarrean Nora andrearen deia errepikatu zen. Bata zuria besterik soinean ez zuela hartu zuen oraingoan ere. Ohatilaratu ondoren zigarro bat piztu zuen, Bob Ieregiri beste bat eskainiz. Ez zen Gauloises, baina tira, eskertuko zioten ke pixka bat bere garuneko tabako landaketek ideiak argitzeko. Nora eta bere arteko ke gortina batek aurrez aurre elkarri begiratzea galarazten zien unea baliatu zuen Ieregik hitz egiten hasteko.

– Zer pentsatuko luke Doktoreak honetaz?

– Doktoreak... –Iur axedrezatura begira zegoen, kosta egiten zitzaion hitzak kateatzea, buruko makinaria goroldioak hartu balio bezala–. Doktorea... Iurrundu egin da, desagertu... Ez didazu esango ezer ez zenekienik, ezta Bob? Ziur zuk eta errusiarrak ere eduki duzuela zerikusirik. Mafiako taldeen arteko kontu garbiketa bat, hori diote batzuek, baina auskalo. Ez dut uste bere gorpua sekula agertuko denik. Baina hilik dago, ziur dakit hori.

Noraren amorruak malkoei aurpegiratzeko lekurik ez uzteak harritu zuen Bob.

– Badakizu zer dioten hirian? Badakizu? Nahi duzu esatea zer esaten duten hirian? Billarreko bola bat irentsarazi ondoren itsasora bota zutela bere gorpua. Entzuten al duzu, Bob? Billarreko bola bat irentsarazi eta itsasora! Nazkagarri alaenak!

Ieregi zur eta lur geratu zen. Ez zuen halakorik espero. Gutxiago espero zuen, ordea, Nora andreak, despatxuko eskrituarrera inguratu eta, oraindik biluzik, entseatua zirudien keinu bat eginez kaxoitik kartazal hori bat aterako zuenik, erizainaren begietako amorrua maltzurkeria ankerrean antzaldatuz.

– Ondotxo dakit errusiarraren eta zure neska horren kontua dela hau guztia. Sonnyri egin diozuena. Baina hau ez da horrela geratuko. Ikusi bestela kartazala, Bob maitea.

Bob Ieregik ez zuen ezer ulertzen, baina mendekua plater hotza zen. Batez ere Alaskan. Plater hotza edo plazer hotza, nondik begiratzen zen. Kartazal horia zabaldu eta zuri-beltzezko argazkiak atera zituen bertatik. Bezperan, ilunaba-

rrean ateratakoak ziren: Bob bera ageri zen argazkietan Nora andrearekin larrutan. Kartazalean, Klararen izen abizenak eta Bolivia auzuneko helbidea zeuden idatzirik.

– Urdanga nazkagarria. Zerrama zaborjale bat baino ez zara.

– Zerrama *marrubijalea*, esango nuke nik –eskrituar gaineko arkatz gorri bat eskuratu eta ezpain artera eraman zuen, arkatza ezpain artean kiribildu ahala, mendekutik lizunkeriatik baino gertuago zegoen begirada mespretxati bat botaz–. Eta orain alde egizu nire betazalen aurretik.

Burumakur itzuli zen Bob bere gelara. Gramolan Cedarren bluesa jarri eta dena ahazten saiatu zen. *Amapola, lindísima amapola.* Pasilloan, kanpoaldeko sarrera zaindu ohi zuen zaindariarekin egin zuen topo; maltzurki begiratu zion honek. Bob ziur zegoen: hark atera zituen ezkutuan argazkiak. Ez ote zerien oraindik magnesio usaina haren zerri atzaparrei?

Kartazalarena alferrikakoa izango zen. Klarak hiria utzia izanen zuen honezkero. Edo beharbada ez? Bobek ez zuen beste erantzunik aurkitzen

Alaskan Klararen bisitarik ez jaso izana azaltzeko. Sobera minduko zuen Boben jokamoldeak eta itzuli egingo zen ziurrenik New Yorkera. Begiak itxi zituen bere indar guztiekin. Baldinbaitere erle gosetirik egongo al zen, kartazal hura botako zuten buzoian.

Zapata bustiak

Bisitan zetorrela adierazi eta aise utzi zioten sartzen. Barruratu eta berehala bukatu zuen lana, uste baino gutxiago kosta zitzaion, gainera. Bere gela aurkitu eta ilunpean haren itzal urdina baino ez zuen ikusi leiho ondoan jarrita, berari bizkarra emanez. Baina apuntatzeko aski zen, hala ere, itzal urdin hura; hobe tirokatzen zuenaren aurpegia ez ikusi eta erdi ilunpe hartan erasotzea.

Tiro bakarra entzun zen. Gorpua mortu eta pisutsu erori zen ilunpetan zegoen gelako zorura, harri puska zurrun bat bailitzan. Hilotzek arinagoak izan behar zutela iruditzen zitzaion Klarari, hori bai, baina pentsatzekoa da eraile guztiak harritzen direna beren ekintzen ondorioen formaz norbait hiltzen duten estreinako aldian. Pareta setati eta mutu bat tirokatzea bezala izan zen. Polbora zen lore horail baten izena.

«Zailagoa izaten dun behin bakarrik erortzea, sekula ez erortzea baino». Apaizaren esana etorri zitzaion burura bizikletaren eserlekuaren gai-

nean gona hutsean barruko arroparik gabe eseri eta izter-zokoak eserlekuaren aurka laztantzea gustuko zuela konfesatu zion eguna berreskuratuz urduritasunaren sekuentzietan. Zenbaketa azkar bat egin eta gehiegizkoa iruditu zitzaion azken aldiz inork gerritik oratu eta bere izter arterainoko bidea egin zuenetik igarotako aste kopurua. Besoetan egundoko dardarizoa zeukan, zainetan mizto bilakatu balitzaio bezala odola.

Pertxero batean topatu zuen bata zuria jantzi, eta bataren botoiak lotzeko betarik hartu gabe, ate nagusitik irten zen, lorategian erradiografiei begira bildurik zeuden erizainen begiradetatik ihesi. Murruaren ondoko garitan, aulkian erdi etzanda, zigarrokin bati azken sakatuak ematen ari zen sarrerako zaindariak diosal egin zion, berari baino gehiago, bere eskoteari, hala iruditu zitzaion behintzat, xaharrak egin zuen keinuaren arabera. Berak, ordea, eskuaz baino ez zion erantzun. Presa zuen alde egiteko. Dena den, burumakur zihoalako-edo, zaindariaren aulkipean ezkutatzen ziren 3D-ko betaurreko gorriurdinak begiztatu zituen –eklipsea ikusteko, otu zitzaion hasieran– bai eta betaurrekoen azpian

pilatzen ziren *Penthouse* aldizkari zimurtuak ere. *Hiru dimentsiotako erotika ukigarria, bertan bazeunde bezala!,* iragartzen zuen aldizkaria alderik alde zeharkatzen zuen letra larriko tirak. Bai zera eklipsea ikusteko. Eskoteari begiratu zion, bai horixe, urde hark.

Marmolezko estatua zuri haien parean utzitako autora sartu eta ziztu bizian ekin zion ihesari. Geroxeago, ezpainak margotzeko kariaz gasolindegi batean geratu eta autoko ispiluan bere ezpainen gorri zatarra begiztatu zuenean, bere ezpainetan arrotz zen karmin hura dastatzean, erabat zurbilarazi zuen detaile batez jabetu zen: konturatu zen egia zela, hiltzaileek badutela, inkontzienteki, fetitxe gisara, beren biktimen objekturen bat gordetzeko ohitura, eta bera ohartu ez zen arren, odol hotzean, hiru metrokoa kalkulatzen zuen distantzia hartatik bere biktimaren bizkarrari tiro eman ondoren, hildakoaren poltsatik lapurtua zuela ezpainetako gorrilun, lohitsu, zatar hura.

Erietxea zegoen muinotik jaisten ari zela, itsasoaren baimenaz eraiki eta bere aurrean etzaten zen hiri hura tiburoiez beteriko putzua

iruditu zitzaion. Portu industrial erraldoia berriz –apenas eutsi zion malko bati ezker begiko trenbide gorritik deskarrila ez zedin– arrabio arriskutsuz betetako hareatza. Mila puskatan hautsitako diskoez gizendutako marrazoak, zauriak eta mina besterik sor ezin zezaketenak, zain zeuden urpean. *Shark in the mist, Una noche con Francis.* Uh-uh, uh-uh u-uuh uuu-uh. Portua igerian harrapatzen zutenek ere ez zuten luzaro iraungo, arrabio ezkutuen ziztadapean pozoiturik zenduko ziren.

Ospitalea utzi zuenean «ez da nahikoa inolaz ere eguzkitarako betaurrekoak erabiltzea» bere hasierako burutazioak berreskuratu «zailagoa dun behin bakarrik erortzea, sekula ez erortzea baino», eta honezkero *hirugarrena ez da urdina* esaldia tatuaturik zeraman billetea hiruzpalau aldiz eskualdatua izango zela pentsatzeak lasaitu zuen.

Hontzaren irudia etorri zitzaion berriro ere burura: pertsiana irekiko antigoaleko ospitale hark, begi berdeak zituen hontz izugarri baten gisara zorrotz erasotzen ziola gibeletik, horixe

otu zitzaion. Baina benetako hontzek ez dutela barroterik izaten begietan. Horixe ezetz.

Betirako geratu zitzaion ezker begiko zain paraleloen erdian –*in the train through your eyes*– hontzaren begirada hura, edozein giza begiradak baino aztarna sakonagoa utziz. Gero, burdin sarez inguraturiko aireportua igaro eta zubi altxagarria bigarren aldiz zeharkatu zuen, lumaje bilduan, bere apartamentura abiatuz. Abenidako semaforo batean geratu zenean, musika tresnaz betetako erakusleiho bat ikusi zuen. Lepoa luzatu zuen giharrak zurrunduz, nahigabe, erakusleihoko isats-pianoaren estalkipean katuren bat ikusteko itxaropen urrunarekin, akaso.

Lehenbailehen etxeratu, jada baturik zituen maletak eskuratu, eta hegazkinean egoteko gogoa sentitu zuen. Pentsioa hiriaren beste puntan zegoen ordea, urrun, eta negutegi erraldoiak ere ez zituen oraindik atzean utzi. Lore horail baten izena baino ez zen polbora.

Leihotik burua atera eta, doi-doi bazen ere, zerua zeharkatzen zuen McDonnell Douglas konpainiako hegazkin bat identifikatu zuen. *Ornithology*. Izan ere, txikitan, etxebizitza agentzien

arabera munduko isilena zen aireportu haren alboan bizi zirenean, hiritik at bizi ziren eskolako kideek txori mota ezberdinak lumajearen kolorearen eta kantatzeko eraren arabera bereizten zituzten era berean, Klara abioi konpainia ezberdinak bereizteko gai zen, aitona ingeniariak erakutsi baitzien berari eta bere bi ahizpei ateratzen zuten zarataren, edota zituzten kolore eta marka ezberdinen arabera hegazkinak bereizten.

Eskaileratan gora, dena inbaditzen zuen usain min batek bere eginbehar gertuenak gogorarazten zizkion: leihoko arasan lehortzen jarritako antezko zapatei igurtzi bat eman eta alde egitea.

Egongelara sartzean, sofan etzan eta apur bat lo egitea okurritu zitzaion. Gramolan ahaztuta utzi zuen diskoak biraka zerraien artean, kale berean kateaturik oraindik.

Loak hartu eta handik minutu gutxira, amesgaizto batetik esnatzea egin zuen Klara Miaok. Pentsioko gela tren bateko bagoi bilakatu zela egin zuen amets. Trenak, kraska-kraska, egundoko zarata ateratzen zuela, bere bidean karramarroen oskolak zapalduko balitu bezala. Trena-

ren etorrera sumatu asmoz belarria trenbidean jarri zuen indio gorraren patu tristea oroitu zuen. Trenbide gorriak beti euripean. Eta euripean, trenbideko trabesek arrandegietako kutxa apurtuez eginak ziruditen. Arrantzalearen eskumuturrari azken erresistentzia egiten dion amuarrainaren gisara, alde bietara kulunkatu zuen lepo txingurritua Klarak. Lepoa minberatu zioten sofan etzanda erdi lo igaro zituen minutuek.

Ohe ondoan, lurrean botata, Gauloises pakete urdin bat zegoen hutsik, eta polbora hitza ez zen lore horail baten izena besterik.

Leihora inguratu eta abioi zilarreztatu bat bistatu zuen teilatuen gainetik hegaldatzen. Fokker bat. Leihoa ireki eta kaletik egunkari orri bat ekarri zion tupustean haizeak barrura, begien aurrean zapaztuz paper tolestura bikoitza. Zerua gurutzatzen zuen zilarrezko abioiari begiratu eta ezker hegoa desorekatuta zeramala iruditu zitzaion. Zenbat barre ez ote zuen Klarak egin Boben kontura, honek hegazkinei zien beldurra zela-eta. Batez ere, hegazkin ezberdinen istripu estatistika gezurrezkoak asmatu ahala botatzen zizkionean, edota hegazkin-gidarien ganora

ezari buruzko istorioak asmatzen zituenean. Leihotik gelara sartu zen egunkari orria baztertu, leihoa itxi eta ohean pilaturiko arroparen erdian zegoen hontzatxoaren figurari so egin zion. Bazuen xarma berezi bat azkenaldian bere lagunik leialen bihurtu zen hontzatxo hark.

Ispiluko bikiaren aurpegiari begiratu ostean, bi lerro paralelo gorri marraztu zituen ispiluan ezpainetakoaz. Trenbide gorri bat. Ezpainetakoa konketaren ondoan utzi eta aurpegia freskatu zuen. Bere ile beltzaran luzea irauli egin zitzaion konketan, eta ile matazak atzeratu beharrak Boben gorputz biluzia goitik behera musukatzen zuenekoa ekarri zion akordura. Aurpegitik zentimetroz zentimetro jaitsiz, Boben izter zokora sudurra emeki-emeki, hats urduri eta izoztua sumatzeko lain soilik inguratzean, Boben begiradetatik bere begiak babesteko ilea aurrerantz nola botatzen zuen, Bobek Klarak bere ezpainez eta mihiaz eginiko milikatzea ikusterik izan ez zezan. Pudore apur bat bazuen, bai, Klarak. Klara beti azaltzen zen jendaurrean, eta areago Boben aurrean, emakume indartsu eta ausartaren moduan –bazuen Bob ikustera ez joan nahi izatean

hark zerikusirik– eta, azken finean, bere papera sinestera ere heldu zen azkenerako.

Jokatzen diren paperak sinetsi egiten dira bukaeran, galde ziezaiotela bestela Bob gizajoari. Ez gara jokatzen ditugun paper guztien hibridoa baizik. Gure benetako nia aerosolaz lokartutako zomorro bat besterik ez da. Indartsu agertu nahi izaten zuen, bai, baina halako txikikeriatan bere aspaldiko izaera lotsatia berreskuratzen zuen, aerosolaren lozorrotik esnatzen zen bere zomorroa. Eta zomorro hark, zerumugan galtzen ari zen hegazkin zilarrezkoak legez, deskonpetsatua zuen ezker hegoa.

Bob egoera hartan utzi beharrak lastimatzen zuen gehien. Baina erabat eskuetatik joanda zegoen ordurako. Telebistaren gainean lerraturiko dozena inguru whisky botilak ikusi besterik ez zegoen. Nikolasek ere alde egitea beste aukerarik ez zuen izan, egoitza baimena berritu nahi izan ez ziotela-eta. Erabat bakarrik zeuden han eta kanpotik egongo omen zen Bob kartzela triste hartatik ateratzeko zerbait egiteko modurik. Baina alferrik zen. Jabetza kredentzialez mintzatzea. Zelako txorakeria. Inor ez da inorena, eta

galtzea beti da errazena. *Maitasuna labezomorroak bezalakoa da: jaio, hazi, Niagarako ur-jauzi bilakatu eta Cruz Verderekin, hil eta desagertu egiten da.* Halaxe esan ohi zuen Bobek. Baina Klara Miaok beti eduki izan zuen esperantza zomorro inmortalen hipotesian, hipotesi honi benetakoa izateko kalkulatu zizkion probabilitateak abioi konpainia seguruenaren katastrofe estatistikak baino urriago baziren ere.

Mesanotxean, Bobek irakurri ohi zituen liburu bitxi haietako bat zegoen: *Sumatrako orangutan galduak* izenburuko bat. Ohe ondoan botatako Gauloises pakete hutsa eskuratu eta barruko zilarrezko paperarekin hegazkin bat egin zuen Klarak. Fokker bat. Salara jaurti eta gramolako diskoaren gainean hartu zuen lur.

Kalean oihuka zebiltzan umeak jolasean. «Tiro traidoreari!» edo «Apuntatu bihotzera!» oihukatu, eta korrika denak traidorearen atzetik. Berari ari zitzaizkiola iruditu zitzaion.

Armario arropaz hustu berriak bagoi-fantasma bat zirudien, Oesteko karabana huts bat. Oraindik ez zekien zer egingo zuen. Itzuli? *Itzuli,* ausardia hektarea dezente eskatzen zituen hitza

zen. Bobek kontatu izan zion istorio harekin akordatu zen. Zapatak mina ematen zionaren istorioa burutandu zitzaion, zapata berriek min ematen ziotelako dendara kontu eske inguratu zenarena:

– Oraintxe erosi berriak ditut eta min jasanezina egiten dit ezker hankapean zapatak.

Saltzailearen deiaren aurrean, dendako jabea inguratu zen. Ezker zapata buruz behera irauli zuenean, harri-txintxar bat jausi zen lurrera.

– A, barkatu, nola ez ote naiz lehenago konturatu? Aberria besterik ez zen-eta! –ihardetsi zuen orduan, erdi lotsaturik, erosleak.

Zapatek eta itzulerek sorrarazten zituzten arazoak. Ausardia hektarea asko eskatzen zituen hitza zen, itzulera.

«Apuntatu bihotzera!». Leihoan lehortzen jarritako antezko zapatetara lerratu zituen Klarak bere jatorri txinatarra agerian uzten zuten begi apur bat horizontalak, instintiboki, begirada hartan balego legez iraupenaren azken horizontea.

Dominiskiku egin zuen. Lorauts horail baten izena baino ez zen, polbora.

Loaren errea kiskaltzen

Basamortu bukaezin baten tolestura emeki kurbatuetan gaindi, zaldi bat zihoan trostan. Begi opakoak zituen, marmol beltzez eginikoak, eta itsututa zihoan trosta bizian, urrunean, oso urrunean, zerura ke-ildo fin bat luzatzen zeneko puntua erreferentzia hartuta. Harantz zihoan zaldiak tronpeta urreztatu bat zeraman lepoan zintzilik. Zaldunaren arrastorik ez zen inon.

Trosta luzearen ondoren, ke-ildoa sortzen zeneko puntura heldu zen azkenean zaldia. Buzoi gorri bat zegoen basamortuaren erdi-erdian, buzoirik egoteak zentzurik ez duen leku batean, sutan. Buzoiaren ahotik ateratzen zen kedarra mugagabe luzatzen zen zerura. Zaldia, tupustean geratu ostean, bueltaka hasi zen buzoiaren inguruan, biraka eta biraka, zirkuluak deskribatuz erretzen ari zen posta kutxaren inguruan.

Klariona batekin

Hurrengo gauean, Joeren laguntzaz, Bob Ieregik murruaren bestaldera espartzuzko soka gotor bat bota eta Napoleonen garaiko soldadu frantziar baten itxura zeukan marmolezko irudia harrapatu zuen bertan abandonaturik zeudenen artetik. Lagun ona zuen Joe. Ederki kosta zitzaien estatua altxatu eta haienganatzen, baina merezi izan zuen eginahalak. Perfektua zen marmolezko estatua hura Bob Ieregik nahi zuenerako. Murruaren alde hartan abandonaturik zeuden irudien artetik burua falta ez zuen bakanetakoa zen hura. Kapelu hark, gainera, Bobek nahi zuen forma ematen zion buruari, zera bat, erizain kofia bat jantzita edukiko balu bezala. Ezin aproposago. Joek eta Bobek arrastaka eraman zuten irudia bigarrenaren gelaraino, eta ohe azpian ezkutatu ere bai, zaindaria irratia piztuta *Penthouse* aldizkariaren azken alea *irakurtzen* ari zela baliatuz. *Aste honetako alearekin doan: 3D-ko betaurrekoak. Hiru dimentsiotako erotika ukigarria, bertan bazeunde bezala!*

Hurrengo eguna gorabeherarik gabe igaro zen, geldi eta makal, koskarik topatu gabe bere bidean.

Ilunabarrean, Nora andrearen deirik jaso gabe zuzendu zen Bob erizainburuaren bulegora. Pasabide zuriaren alde bietara kokaturiko estintore gorriak zeharkatu eta Nora andrearen despatxuko atea igaro zuen poliki, soinurik ez ateratzeko lur axedrezatuan hankak irristatuz: Nora andrea lanean ari zen bere eskrituarrean eserita. Harriduraz begiratu zion Bob Ieregiri. Honek, mahaira inguratu eta Norari gerritik heldu ondoren, ohatilan etzanarazi zuen erizainburua, ahuspez: burkoaren kontra zanpatu zuen, bere marru etsiak entzun gabe, zainak moretzeraino mugitzen zituen hanken astinduei eutsiz, harik eta argizariz eginiko txorimalo baten gisako geratu ziren arte, bai zango, bai aurpegi, zurrun erabat.

Nora andrearen burua burkoaren gainetik apartatu eta erizainburua itoarazi izanaren benetako kontzientzia izan zuenean, nekeza egin zitzaion Bobi zigarroak erre eta tomate potoetan ogia bustitzea gustatzen zitzaion tipo korriente

bat besterik ez zela sinestea. Ez zegoen, ordea, gogo jardunetan galtzeko denborarik. Gorpua ezkutatu eta iheserako lasaitasuna emango zion koartada prestatu behar zuen orain.

Marmolezko estatua izara baten gainean kokatu zuen irudia korridorean hobeki labain zedin. Ahalik eta zaratarik txikiena ateraz eraman zuen gelatik despatxuraino, arrastaka, ahal izan zuen bezala. Despatxura heldu zenean, leihotik begira jarri zuen irudia, zutik, Noraren bata zuria soinean. Mahai gainean utzi zuen Nora andrearen poltsatxoa, eta poltsatxoaren barruan ezpainetakoa, boligrafo bat eta aurrez diruz husturiko kartera. Denak beharko zituen Bobek handik irtetean. Esan bezala, ez zion estatuari erizain kofiarik jarri beharrik izan, buruan tailaturik zuen militar sonbreiru frantsesak erizainburuaren antza ematen baitzion estatuari. Ezin hobea zen. Patioko erizainek, Nora andreak bere despatxuko leihoan jarraitzen zuelako ustean, lasai demonio jarraituko zioten beren solasari, barrurako asmorik gabe.

Estatua bere lekuan kokatu zuenean, ohatilaren pean ezkutaturik utzi zuen Noraren gorpua

hartu eta atarirantz abiatu zen. Arina zen oso gorpua. Berarekin eraman beharko zuen eta nonbait gorde. Denbora irabaztea zen kontua, pentsa zezala Poliziak Norak berarekin ihes egin zuena, maiteminak jota.

Ordubete zeukan, doi-doian, ihes egiteko. Asko jota ordu eta erdi, egun hartan, eklipsea zela-eta, despistatu antzean ibiliko baitziren erizainak, ohiko lanak albo batera utzita. Bere alde hura. Salaraino jaitsi zen. Kanpoko zelaian erizainak bildurik bazeuden –adi beti, erizainburuaren siluetak bere leihoan jarraitzen ote zuen–, era bertsuan zeuden barruan Anatol, Galileo eta gainerakoak, irratiaren inguruan jarrita.

– Joe, Anatol, Galileo! Kanpora noak, aske izango nauk berehala! Nirekin etorri nahi duenak oraintxe dik aukera...

Tomate poto huts baten barrunbeak bezain isilik geratu ziren denak.

Bob Ieregi haserretu egin zen zeharo zainetan odolaren ordez argizaria zuten gizaseme haiei begira. Berak ere ez zekien ziur zergatik luzatzen zien iheserako eskaintza, Bob ez baitzen inolaz ere haietariko bat. Jenio biziz itzali eta en-

txufea kendu ostean, besapean hartu zuen egurrezko irrati tzarra. Denak begira geratu zitzaizkion. Ez zuten, itxuraz, Bobek adierazi nahi zienetik deus ere ulertzen.

– Baina zer arraio, zuen bizitza osoa hemen pasatzea pentsatzen al duzue? Ez al duzue hemendik kanpora joateko gogorik? Ei, Anatol: hator hona, hau dena hondarrezko bihurtu aurretik ihes egin nahiko duk, ez? Galileo... zer esatea nahi duzu... Mugimendua kanpoan dago, Galileo, kanpoan, hau dena mortu dago, arraioa... Ez al zarete konturatzen? Ez al duzue ulertzen? Joe, hi bai, hi behintzat etorriko haiz, ez duk?

– Ez, Bob, eskertzen diat, baina nahikoa lan zaukaat lorategian. Telefonoen bila, badakik –azken hitzak soberan daudela esan nahi duenaren keinua egin zuen, lepoa okertuz. Esku artean zeukan koadernoan marrazten jarraitu zuen gero, telefonoak marrazten.

– Baina orduan, tunela? Zertarako lagundu zenidaten tunela zulatzen?

Orduan ulertu zuen Bobek tunelarena nobedade bat izan zela haientzat, monotoniaren hausle zen ekintza bat denbora beste era batera

banatzeko, bost axola zitzaiela ihesa. Bidea egiteak bazuen zentzua haientzat, ez, ordea, inora heltzeak; helbururik ez zuten, bide bat bakarrik, edo agian bide asko, Niagarako ur-jauziek adina bide. Alferrik zen, ez zuten ezer ulertzen. Ezer ere ez. Edo beharbada bera zen fitsik ulertzen ez zuena. Beharbada, maitasun portzentajeen kontua ere bazen hura, eta Bobek, berak uste baino portzentaje handiagoa utzi zuen *alde hartan, bestaldean,* pertsona *haiengan*. Une hartan, ez zen inolaz ere eromena zein aldetan zegoen esatera ausartuko. Kalean klarionaz marra bat egin eta mundua bitan zatitu, edo agian marra soila baino areago, hiri osoa bildu behar zen klarionaz egindako markaren barruan, espaloian hilda datzan gorpu bat balitz bezala hiria. Klarionaz marra bat egin eta hiria bitan zatitzeko gauza zen, baina ezgai zen alde batean eta bestean zeudenen artean bereizteko. Azken ahalegin bat egin zuen, itxaropen gehiegirik gabe, halere.

– Irratia eraman egingo dut. Ulertzen? Nirekin ez bazatozte hor konpon, baina irratirik gabe geratuko zarete. Nirekin eramango dut, eta akabo betirako irratia. Aditu al duzue?

Klarionaz seinalaturiko marraren alde berean jarraitzen zuten denek lerraturik.

– Ongi iruditzen zaigu irratia eramatea, Bob. Neronek bilduko dizut paper batean –esan zuen Anatolek, hain usualki bereganatu ohi zuen ordezkari paperean–. Gure oroigarriren bat izan dezazun.

Eta hala egin zuen: enbalatzeko paper gogorrez antigoaleko irratia bildu, eta espartzuzko sokaz lotu zion Anatolek oparia. Korrika atera behar izan zuen Bobek handik, irratia besapean zeramala, sala hartan zeudenak besarkatzeko esaten zion sentimendu jasanezin hura errepримitu ahal izateko.

Noraren gorpua, arropa zikinarendako zaku batean bilduta zeraman berarekin. Murruraino heldu eta lau oinetan zeharkatu zuen kanpo mundura, askatasunera gidatuko zuen sarrera –edo irteera, nondik begiratzen den–, autoei sarbidea galarazteko aduana-barra zurigorriaren azpitik. Arrastaka pasa zuen haren petik arropa zikinarendako zakua ere. Kanporatu aurretik, zaindariaren garita barruan, lurrean zegoen CSW

botila ia betea hartu eta gabardinapean gordetzeko astia izan zuen.

Noraren gorputza batetik eta kartoizko paperez bilduriko irrati tzarra bestetik, kargaturik zihoan. Irratia uztekotan egon zen, baina «gure oroigarriren bat izan dezazun», hitz haiek zebilzkion buruan bueltaka. Murruaren paretik oinez zihoala, soldaduen estatuen ondoan, Chevrolet beltz bat topatu zuen aparkaturik. Intuizio ezkutu bati jarraiki, maleteroko sarrailari sakatu eta irekita zegoela baieztatu zuen. Eureka. Halako aukerarik. Birritan pentsatu gabe, Noraren gorpua maleteroan sartu zuen, bere bidean jarraitu aurretik.

Ea zorterik izaten zuen hildakoa beste norbaiti egotzita.

Kopetako izerdi ilintiak gabardinaren besoarekin xukatu, eta hatzak azalaren gainetik pasatzean, arrain baten ezkatak bezain zakar sumatu zuen kopeta. Alde ederrean zihoan orain, arin antzean. Irratia bildurik zuen paketea esku batean eta whisky botila bestean; kortxoa hortzekin kendu eta lehen trago luzea eman zion. *Boti-*

laratutako zakur bat bezain lagun ona, hedeen beharrik gabe, gainera.

Kanpoan gauzek berdin jarraituko ote zuten galdetu zion bere buruari. Oinez abiatu zen, gamuzazko gabardina soinean, sonbreiru beltza buruan eta Gauloises paketea alkandorako patrikan, bihotzaren ondoan. Besapean, kartoizko paperez bilduriko pakete handi hura, «gure oroigarriren bat izan dezazun». Ero nazkagarri haiek bihotza harrikatu zioten, pentsatu zuen, CSW botilari kortxoa kendu eta trago berri bat zintzurreratuz, maldan behera zihoala. Eskerrak alkandorako patrikan zuen tabako paketeak blindatzen zion bihotza. Geldialdi bat egin zuen. Hiri osoa menperatzen zuen handik. Erdi-erdian zegoen katedrala. Harantz zuzenduko zituen bere pausoak.

Bere pentsamenduak beste norabait lerratzen saiatu zen, edozein txikikeriatan arreta jartzen; edozer gauza, irakurtzen zuen lehen hitza, otutzen zitzaion lehen burutazioa: adibidez, gorrotatu egiten zituela kleenex paketeak, eta zer den artifizialagoa lore artifizialak baino, eta munduan gehien maite zuen bluesetariko bat zela

Cedarrena. Harekin jotzen zuen bateriajolea ez zela oso ona, markapauso bat jartzeko premia zuela erritmoa hobeto markatzeko. *Birika hauek bizirik zeuden duela 24 ordu,* propaganda mezu bat eta bozina zarata, «zer moduz, ondo, ze egualdi e? ze egualdi, bai». Jendeak ez zekiela ezertan pentsatu gabe lasai egoten, isilik egoten ere ez zekiela, bestalde, izu laborria ziola minutu beteko isiltasunari, *minutu hutsaren sindromea* zela hori eta horren aurrean nahiago zuela jendeak edozer gauza esan isiltasuna zerbait definitiboa eta atzeraezinezkoa bihurtuko zen beldur zelako. Isiltasuna goma pusketa bat bezala luzatzen bazen, gero eta zailagoa zen absurdoa izango ez zen edozer esatea, gomak askatzean muturreko ederra ematen zuela, denbora luzez pentsaturiko erantzun jenialak denbora luzez pentsatua izate hutsagatik galtzen zuela jenialtasuna. Eta Bob beldur zen, ez ote zitzaion bere musikari ere hori gertatuko.

Bera ez zen zahartzen hasitako tipo arrunt bat besterik, tomate potoan ogia bustitzea gustatzen zitzaion tipo korriente bat, edozein gauren erdian arrabioek izutzen zutena, burkoarekin

emakume bat akabatu berri zuen tipo korriente bat, mimoa egiten zuen aktore horietako baten malkoa bezain korrientea masailean behera. Eta sinzeroa. Eta *Birika hauek bizirik zeuden duela 24 ordu:* kartoi edo kortxozkoak diruditen bi birika ilunen argazkia markesina bateko kartelean.

Noraezean alderrai zihoan Bob kaleetan, ikusmena apur bat lausoturik. Hiri erdiguneko okindegietan, okinek ogia labetik ateratzean eskuak ez erretzeko boxeo-eskularruak erabiltzen zituztela iruditu zitzaion. Ziutateko bazterren batean, postal sepia baten itxurako gela hautseztatu eta lorontzi hautsidun batean, telefono gorri ezpain koloreko batek jotzen zuen tinbre grabe, interruptore gisako batez. Inork erantzungo ez zuen dei bat, premiazkoa, agian.

Klariona batekin bitan banatuko zuen hiria eta bera klarionaren gainean bakarrik ibiliko zen euriak klarionaz eginiko marra ezabatu arte, ez batera ez bestera lerratu gabe, euli ekilibrista bat bezala bonbilla apurtu bateko wolframio harian gaindi. Bonbilla gaixo haiek guztiak itzaliko ziren halako batean, eta haiekin itzaliko zen, halaber, bonbillei zerien argi berdekara.

Urte sasoi hartan, artifizialak ziruditen lore horiz mukuru zeuden hiriko lorategiak. Oraingoan, begirada jaso zuenean, bere aurrean plantatzen zen katedrala ez zitzaion hain itsusia iruditu.

Body & Soul

012/6564-QW B.B. Forentsearen informea.

BIKTIMAREN IZENA: Marmolezko irudia, izenik gabekoa.

ODOL KLASEA: ez du.

ITXURA: marmol zuria, 1,84 metroko altuera. Hanka finegiek oreka gutxiko bihurtzen dute irudia, zangoak prestuegi landu gabe, baina gorputza eta aurpegia oso ongi tailatuak. Napoleonen garaiko soldadu frantziarraren moldeko jaka solapatua eta botak ere taxu gehiegirik gabe tailatuak. Besoak gorpuari itsatsita ditu irudiak, gerrian zintzilik duen ezpata baldar samar zizelkatu bati heltzen diolarik esku biez. Aurpegiko txikikeria guztiak, kopetako zimurrak barne, errealismo handiz daude zizelkatuak, itxura serio eta kezkatia emanez aurpegiari, baina kasu hauetan topatu ohi dugun rigor mortisetik urrun, inondik ere. Ez dirudi zizelkatzaileak sonbreiru napoleondarra tailatzean arreta handirik jarri zuenik (uniforme militar nahiz kapeluaren nondik norakoak zehazteko historia adituren batengana jotzea

gomendatzen da), erizain kofia handi samar baten gisakoa izanik kapelua. Aurkitu zutenean bata zuri bat zeraman soinean estatuak, botoi guztiak leporaino loturik. Poliziak adierazi digunez, dirudienez, irudiak zuen buruko sonbreiru zizelkatuaren bidez zein soineratu zitzaion batarekin, erizain baten itxura bilatu zuen estatua leiho ondoan kokatu zuenak.

ZAURIAK: lepoaren behealdean, sorbaldaren eta lepoaren arteko angelutik gertu, 5,6 milimetroko (22 amerikarra) kalibreko bala bat aurkitu da marmolaren barruan zentimetro eta erdi eskas barneraturik. Balak marmolean sartzean eginiko zuloaren ezaugarriak azterturik, garbi dago armaren ahoan proiektilak zuen energia zinetikoak 24,2 juliotakoa aise gainditzen zuela, oraindik errebolberraren marka eta motarik zehazterik lortu ez den arren. Tirokatzaileak hiru metrotik beherako distantzia batetik sakatu zion armari, bizkarrez eta leihotik kanporantz begira zegoen biktima lepoan harrapatuz, balak marmolezko zuloan duen okerdura, erasotzailearen gaitasun urri edo esperientzia ezaren adierazle izan daitekeela, baina baita marmola bezalako

material gotorraren txoke erreakzioaren ondorio ere. Bi hipotesiak zilegi dira lehenengo esplorazioaren ondoren.

Poliziak luzatu digun azken galderari erantzunez, azpimarragarria da, halaber, marmolezko irudia lurrean etzanda aurkitu izana, balaren inpaktuak estatuari oreka galaraztearen ondorioa besterik ez dela, ez izanik batere harritzekoa irudiak zuen estabilitate eskasa kontuan hartuz. Bestalde, aurpegian, bai begiaren azpiko hegalaren eta begiaren alboko angeluaren artean, bai barailan nahiz kokotsean ageri diren urradurak, irudiak erortzean leihoko markoarekin talka egitean jasandako kolpearen emaitza dira, hala baieztatzen dutela markoan topaturiko marmol zatitxo ñimiñoek.

Kristalaren lezioa

Zubi altxagarria jasorik zegoen orain ere.

Eguzkiak bere azkenetan lainoen artetik indartsu izan nahi bazuen ere, haize hotza zegoen. Eta adokinak bustita oraindik. Autoko leihatila itxi zuen. Herdoildurik zegoen leihatila zabaltzeko giderra eta bi eskuekin eragin behar izan zion itxiko bazuen. Alokairuko Chevrolet madarikatu haiek. Giderrari eragin ahala, zubi altxagarria ere emeki-emeki jaitsi zen, Klarak gider herdoilduaz eragingo balio bezala zubiari ere, errepidearen bi aldeak elkartuz. Inoiz hiltzeko modua aukeran eman baliote, zubi altxagarri batean hiltzea eskatuko zukeen: errepidea bitan zatituz, gorantz, eta bere autoa ibaia itsasoarekin elkartzen den putzu sakonera erortzen. Berehala damutu zen txorakeria hura pentsatu izanaz.

Zubia igarotzen ari zela, kunetara lerratu eta errebolberra uretara bota zuen. Gibelean utzi zuena imajinatzen saiatu zen: erizainak patiora aterata ariko ziren erradiografia bana hartuta zerura begira, eklipse madarikatu haren beha, gai-

xoen burezurrei ateratako erradiografiek axola izango baliete bezala, haien garunetako tabako eta amapola landaketen esanahiaz jabetuta baleude legez. Garbi zegoen, ordea: ez zeuden erizainak erradiografiei begira. Irratiak garbi esan zuen amonaren aldaka hautsiaren erradiografiak ere baliagarri zirela eklipse bitxi eta errepika ezin hura begietan kalterik sortu gabe ikusteko. Hartantxe ari ziren erizainak, eklipsearen beha.

Ez, ez zegoen egin zuenaz damututa.

Autoko leihatila herstean, euli bat geratu zen Chevrolet beltzaren barruan biz-biz biraka. Kristalaren aurka talka egin zuen euliak, ez behin bakarrik, baizik eta birritan edo hirutan. Ez da aise ikasten kristalaren lezioa. Leihatila ireki eta atera zen azkenik eulia autotik. Eta kristalaren bestaldean hain diferente zirudien euliak, hain ezberdin. Hain erle agian.

Joek une hura baliatuko zuen patioan zulatzen utzi ez zioten alderdia arakatzeko, telefono lurperatuen bila. Gizajoa konbentziturik zegoen oraindik, telefono haren bila, dei haren zain, errebantxa haren aiduru.

Patioko zuhaitz bakarraren mendebaldeko adarretako hostoak hasi ziren gorritzen udazkenagatik. Edo ez. Ez zen udazkenagatik agian: iheslari frustratuetako batek tunela egitean zuhaitzaren sustraien kontra zauri bat egin eta mendebaldeko sustraia odolaz gorriturik geratu zelako baizik. Edota Joek obsesiboki bilatzen zituen lurpeko telefonoak benetan existitu eta lurperaturik zeudelako, eta telefono lurperatuak erietxeko apargailu gorrien kolore berekoak zirelako akaso, sustraiek topo egin zutela azkenik lurpean telefono gorrien kable kiribilduekin. Dena zen hipotesi bat; eta itxi parentesiak eta piztu zigarro bat. Gauloises.

Hiria belauniko, arnasestuka zetzan, beti itzultzen zen euriaren pean. Arrain freskoaren usaina zerien orain kaleei, euripean, trenbideko trabes paralelo infinituraino luzatzen zirenek arraina karriatzeko zurezko kutxa apurtuz eginak ziruditelako, akaso. Denbora luzez estatuak bailiran geldirik egotera entseatzen diren mimo horietako batek soilik eusten zion karriketan bereari, margo zuria euriak deblauki ezabatu eta bere azpian zuen benetako hienaren aurpegia

agerrarazten zuen arren. Are mugiezinago zirudien mimoak inguruko jendearen presa obsesiboa ikusita.

Ez. Ezin esan damuturik zegoenik. Damua hektarea dezente eskatzen zituen sentimendua zen. Dena den, negargura izugarria sentitu zuen. Ez zeraman musuzapirik soinean, eta bakarturik sentitzen zen alokairuzko Chevrolet arrotz haren barruan. Hurrengo semaforoan malkoak xukatzeko zerbait bilatu zuen autoaren eskuinaldeko apaltxoan. Alde batetik errepideen mapa eta beste aldetik mapamundi erraldoia zena topatu zuen, musuzapirik ezean.

Mapa bat topatu zuen ezer baino lehen, eta semaforoa berde jarri zenerako, salbuespenezko egoeran, malko uholdepean zeuden, Bolivia, Peru eta inguruko herrialde guztiak. Soinu bitxi bat entzun zen, pasillo luze baten bukaeran aluminiozko ate bat hertsiko balitz bezala. *Katu bat dago pianoaren barruan, Klara Miao!* Zentzugabeko aurresentipen bat irudikatu zuen lipar batez bere aurrean: haizeak toffee paper marroikarak barreiatzen zituen hostoen ordez. Panamako kanalean behera irristatzen ziren orain

malkoak paper urdinaren gaineko kartografia zehatzean.

Irratia piztu zuen. Modako kantu bat saxo tenore batekin.

> Islandian badago tximeletarik?
> Baioixe
> Zuriak dira denak tabakoa liatzeko papera bezain zuriak
> eta beraz ezin ikus ditzakegu
> izotzagatik elurragatik
> ezin ikus ditzakegu Islandiako tximeletak
> zuriak, zauriak
> ikusezinak dira Islandiako tximeletak
> ez dute ikasi behar
> aspaldi ikasi zuten aspaldi ikasi
> beirazko izotzaren aurka talkatzean errenditzen
> Baioixe baioixe
> tabakoa liatzeko papera bezain zuriak diren Islandiako tximeletek ez dute ikasi behar
> hiru direnik bizitzako zauriak, hiru:
> lehenengo zauria itsasoa da
> bigarrena zerua baina
> hirugarren zauria ez da urdina
> hirugarrena ez da urdina, ez da urdina, ez da urdina

Zer axola dio. Islandia edo Alaska zubi altxagarri beraren bi aldeak baino ez dira. *Hirugarrena ez da urdina...* Ezin izan zuen Sara Vaugha-

nen ahotsa luzaroago entzun, *Hirugarrena ez da urdina,* urtetan zehar hainbeste hunkitu izan zuen kantu hark bere malko jarioa gehitu baino ez zuen egiten.

Eta Klararen begietako trenbidea ere gero eta gorriago, puma baten begi ertzak irudi, telefono lurperatuen eta patioko zuhaitzaren eta ezpainen eta garuneko amapola landaketen gorri. Baina erleek ez dute kolore gorria bereizten, beltzaren parekoa da gorria erleen begi daltonikoetara. Erle putak. Buzoi publikoetan bizi diren erle madarikatuak. Erleek ez lukete posta kutxa publikoetan bizi behar. Denok ginateke zoriontsuago erleak posta kutxa publikoetan bizi ez balira. Autopistara altxatu zen autobidearen espiralean barrena, El Salvador, Nikaragua eta bereziki Costa Ricarekin aurpegiko azken malkoak lehortuz. Malko bakarti bat Txile meharrarekin enkapritxatu zen, goitik behera hau blaituz. *Rotterdam-Hego Irteera* zioen bidegurutzean, kontrola jarria zuen Poliziak. Banan-banan ari ziren auto guztiak arakatzen. Bere aurrean bi auto zeuden, urdinak biak. Baina hirugarrena ez zen urdina. Hirugarrena ez. Errebolberra ibaira botatzea

ideia ona izan zen. Lasai egotea zeukan, marihuana bila-edo ariko ziren. Zer gerta ere, bere biktimarena zen ezpainetako zantar hura leihotik bota zuen eta gibelispiluan begiratu zion bere aurpegiari. Zelako itxura penagarria. Autopsia bat ematen zuten bere ezpainek. Oraindik mindurik zuen lepoa tentetu, mapa berreskuratu, eta zintz egin zuen Kanadaren gainean, poliziek, bere aurreko Renault urdineko maleteroa miatu eta Klara Miaori altoa emanez, autotik ateratzeko keinua egiten zioten bitartean.

Hiria errebolber bat denean

Katedrala huts-hutsik zegoen. Gabardinako ezker poltsikoan Castro Scotch Whisky botila zeraman eta eskuineko besapean berriz, kartoizko paperez bildu eta sokaz lotutako paketeari eusten zion. Elizatea igaro bezain pronto, Jesukristorena begitandu zitzaion egurrezko irudi batekin egin zuen topo, aurrez aurre. Baina ez zen posible. Hura ez zen Jainkoarentzat lekua, baztertuegi iritzi zion irudiaren kokalekuari Jainkoarena izateko. Ez. Beste santu bizardunen bat zatekeen. Ezin, ordea, bera bezala pertsonaia biblikoen kontuetan jakitun ez zen batek santu arraio hura zein zen ziurtasunez bereizi. Gauza zen, irudiak zilarrezko kaliza sostengatzen zuela bi eskuen artean. Hanka puntetan jarri eta kaliza, imajinatzen zuen eran, hutsik zegoela ohartu zen. Zalantza lipar baten ostean, gabardinako ezker poltsikotik CSW botila atera eta kortxoari tira egin zion hortzekin. Tenplua soinu biribil eta preziso batek oihartzundu zuen. Egurrezko irudiaren sorbaldan eskua jarri eta whisky txorrota-

da bat isuri zuen zurezko kamaradaren kalizara. *Whiskya da gizonaren lagunik onena, botilaratutako zakur bat bezalakoa.* Ogerleko bateko kaniken itxurako begiak zituen Jainko –edo dena delako hark– alaiago begiratzen ziola iruditu zitzaion.

Bere eguneko karitate ekintza egin artean –eman jaten gose denari, eta edaten egarri denari– lurrean utzitako fardela jaso eta katedral ertzeko nabe luzearen bestaldera heldu zen. Berehala atzeman zuen katedral goialderaino gidatuko zuen atetxoa. Arazorik ez, zabalik zegoen.

Eskailera kiribildu eta bihurri hartan gora abiatu zen, pauso neketsuz, bere gabardinako ezker poltsikoko botilak harrizko hormen aurka jotzen zuela. Arnasestuka heldu zen katedralaren sabairaino. Bi kanpai erraldoiren artean kokatu zen Bob; behetik begiratuta, bi kanpai handi haiek lotan zegoen hontz baten begiak izan zitezkeela otu zitzaion. Handik argi eta garbi nabari zitekeen ibaia itsasoratzen zeneko meandroa eta zubi altxagarria, jasorik, eta auto ilarak eta jendea –hau imajinatu egiten zuen– irratia piztu eta asperraldiak irauten zuen bitartean zi-

garro bat erretzen (parentesi bat itxiz edo irekiz), arrastirian laino artetik indartsu izan nahi zuen eguzkiak autoen karrozeria urtu ahala. Zubipetik igarotzen zen ferri zuri eskerga hark neurriz gain puzturiko Gauloises zigarro erraldoi bat izan behar zuela pasa zitzaion burutik, baina ez, ez zen posible, ez zeukan filtrorik zigarro puztu ur azaleko hark, eta aspaldi utzi zioten filtrorik gabeko Gauloises zigarroak egiteari.

Errealitatea antzaldatzen hasia zen berriro ere.

Pentsamendu haiek uxatzen saiatu zen, fikzioa eta errealitatea zigarro beraren ketik hausnartuz. Kapelua bere lekuan berrezarri zuen.

I'm the train that travels through your eyes.

Zortziak bost gutxi ziren. Hobe zuen mugitu, ez baitzen batere atsegina izango sabai estu hartan, hontz baten begi itxiak ziruditen kanpai ilun haien artean kanpaikadek harrapatzea. Ez horixe. *Ragtime bells.* Botila atera zuen aurrena gabardinako ezker poltsikotik –whiskya beti ezkerrean, anarkistek bezala– eta dzangada luze bakar batez hustu zuen kondarra. Botilari kortxoa jarri –kortxorik gabeko botila bat hausteak

zorte txarra omen dakar– eta botila eror zedin utzi zuen. Katedrala altua zen. Han goitik, ez zuen kristal hautsien zaratarik entzun. Hiru minutu falta ziren zortzietarako.

Haizeak hoztuxea zegoen jada katedralaren goren hura. Urte sasoi hartarako beroegia zen, hala ere, gamuzazko gabardina. Solapa kartoituak hatz kolpe batez tinkatu zituen. Espartzuzko sokatxoa askatu eta koipez zikinduriko enbalatzeko paper marroia kendu zion fardelari. Fardelaren barruan zegoen irratiak Radio Moskva, Oesterreich1, Nancy1, Praha, Minsk, Roma2, Bayr. Rundf, BBC1, BBC2, eta Europako beste hainbat irrati estazioren izenak zituen dialean idatzirik, bakoitzari zegokion sintonia zenbakiaren ondoan. Bi eskuen artean irratia sostengatzen zuela, «gure oroigarriren bat izan dezazun», zutitu, eta gaztetako neskalagun baten argazkiari, edo hark bidalitako gutunez beteriko kutxa bati begiratzen zaion moduan so egin zion irratiari; pisatu ere, pisatzen zuen berea traste hark. Pauso pare bat aurreratu zen. Gero erortzen utzi zuen katedralaren gorenetik behera egur iluneko irrati antigoalekoa, indar handiegirik gabe, bere

erorkeran eraikuntzaren hormari gehiegi atxiki ez zekion adina bultzatuz.

Behean, katedral atarian, beira pusketa hautsien ondora amildu eta hamaika zatitan apurtu zen egurrezko irratia.

Irratiaren barrualdeko malguki eta zirkuitu txikien artetik, urtetan irratiaren barruan kaiolatuta egon ziren erleak hegaldi urdurian desagertu ziren, arratsaldeko zortziak seinalatzen zituzten kanpaikadek izututa akaso, aske azkenean, bakoitza norabide ezberdin baterantz urrunduz. Milaka urtetan zehar garatutako senak buzoien batera gidatuko zituen beharbada, maiteminduen eskutitzak lardaskatzera, beren biziraupenerako zuku desiratuaren bila.

Bobek lasai arnasa hartu eta Gauloises berri bat izeki zuen *Sometimes I wonder* kantua ezpainetan zuela. Ez dago zoriontsu izateko bizitzari deus ez eskatzea bezalakorik, otu zitzaion. Itotzen ari zen katedral haren barruan. Sonbreiruaren hegala beheratu eta eskailerak jaisten zituen bitartean, burutazio xelebre bat etorri zitzaion: ez zuen jainko eta santuen mozkorraldien maila etilikoari buruzko ikerketarik inongo egunkaritan

irakurri. Kalerantz zihoala, dena dela, katedralaren ertzeko nabea presaka zeharkatu ahala, sarrerako jainko koitadu eta baztertu hark jada kaliza husturik beharko zuela burutandu zitzaion. Gauloisearen keak ikusmena lausotzen zion berriro.

I'm the train that travels through your ice.

Gamuzazko gabardinatik Gauloises pakete urdina atera eta geratzen ziren bi zigarroetariko bat hartu zuen. Esku ahurrean kolpetxo pare batez berdindu, eta filtroa kendu ondoren, zigarroa ezpainetaratu zion egurrezko irudiari. Gero pospoloaz izeki zion zigarroa, erdi itzalirik zuen bereari ere sua erantsiz. Zigarroa piztu ahala, hiri hura leherraraziko zuen metxa izeki ote zuen sentipena izan zuen. Orain bai, zigarroa ezpain artean zuela, askozaz ere aurpegi alaiagoa zeukan egurrezko irudi bizardunak, jainko baztertu eta zokora kondenatu hark.

Katedrala gibelean utzi eta bere betiko –betiko, bai, betiko– kalera kateatzen zen bitartean, *Now's the time* kantua bereizi zuen Beluna Moon aldetik. Entzumenak behintzat ez zion hutsik egiten. Oraintxe zen unea. Baina, zertarako? Ez

zuen axola zertarako. Urduritasun ezohiko bat bere bizkarrean zegoen hiriaren zatiaz jabetzen ari zeneko bihozkada izan zuen. Kiskalitako egurraren usaina eta sirenots urrunen bat. Ezinegona zekarren keak. *Show me the way to the next whiskey bar, don't ask why, don't ask why, don't ask why.* Oinez zihoala, Bobek garaipenaren kutsua dastatu zuen. Korrika zihoan jendea bere kontrako norantzan. Jende urduri hauetako askoren begi ilunek, aurreko bizitzetan zaldi herren izana salatzen zuten. Baina berriro ez Bob Ieregi, utikan, utikan zaldiak, Bob, utikan.

Iris Club itxita zegoen, mailuz jotako oholez atea hertsirik. Heriotzara kondenaturiko klub bat gehiago mafiaren eskuetan. Beluna paretik ezertan geratu gabe igaro eta kale haren inguruan laugarren bira ematera zihoanean ohartu zen piztu gabe zeramala azken zigarroa ezpain artean. Moilako petrilean jarri zituen beso biak gurutzatuta. Kapelu iluna kendu eta western batean ikasitako keinua egin zuen, kapelua itsasora jaurtitzeko. *Hemendik aurrera itsas zaldien gainean bakarrik ibiliko haiz trostan, hermano.* Utikan bere haluzinazio haiek guztiak. Utikan is-

ladurak, Bob aixkidea, utikan. Begiak hertsi eta hiruzpalau aldiz kliskatu zituen.

Orain jende arrunta ikusten zuen, jende itsusia eta polita, neska bulartsuak eta titi txiki baina politekoak, suge batek kiribiltzeko moduko gerriak, ilunabar hartan lehen aldiz makillatu eta beren etxeko komunetako ispiluak bi ordu eta erdiz okupatu zituzten neska nerabeak, abokatuen sudur okerrak eta medikuen begi opakoak, beren *ezpain bustien dosiaren* bila zihoazen gazte antsiaz beteak; lehoi domatzaile mustaxdunak lehoiengandik bereizteko gauza zen orain. Hura zen aurrerantzean jarraitu beharreko arrastoa. Arrasto hark utzitako akordeen gainean beharko zuen inprobisatu. *New moods in Smoke City.*

Boliviako beren apartamentura igo zen. Hutsik zegoen. Ez zen Klararen arrastorik batere han. Galdutako tren bat gehiago, *in the train through your eyes.* Kalera atera zen berriro. Gauak bazuen armiarma sabelaren antzeko zerbait, desasosegua sortzen zuena.

Zoragarri zegoen gau ertzean kaia. Hiriari bistadizo bat eman zion. Itsasoa zen gramola

izugarri haren gainean une batetik bestera diskoren bat jartzera zihoazela suma zitekeen. Bai, itsasoa zen gramola eta zerua berriz, diskoa. Zeruari zulo bat falta zitzaion, ordea, gramolara behar bezala egokitzeko, eta zulo hori eguzki eklipse batek egin ezean, errebolber batek bakarrik egin zezakeen. Bang. Errebolber hori Beluna Moon jazz kluba zen derrigor, eta errebolberraren danborra, Beluna Moon jazz klubera sartzeko ate birakorra. Bang. Erruleta errusiarraren jokoa. Ate birakorra zeharkatzen zuen pertsona bakoitza kalibre handiko bala bat. Bang. Behin ezagutu zuen Bobek ate birakorrak gustuko zituen emakume bat. Arratsalde osoak ematen zituen almazen handietako ate birakorretan sartu irteeran, sartu irteeran, aspertu gabe. Bang. Norberak baditu bere obsesioak eta emakume honenak ate birakorrak ziren. Bang. Harena ordea larria zen, ate birakorrik inguruan ez zuenetan poste baten inguruan edota zuhaitz bati kateatuta hasten baitzen biraka-biraka. Behin semaforo horiztatu bat erori zitzaion buru gainera bang eta bertan ziplo geratu zen. «Heltzen ari naiz heriotzaren atera eta ez da birakorra nik uste nuen

bezala» izan omen ziren bere azken hitzak. *Cedar's blues,* Cedar Waltonen bluesa erreskatatu behar zuen bere buruko amapola landaketetatik. Semaforo horiztatu bat zenbat kilo izan daitekeen pasa zuen burutik, berrogeita hamar kilo, hirurogeita hamar, akaso. Bang.

Oso gustuko izango zukeen hiri hura apur bat arrotzagoa balitzaio. Belunan jabe berriek lanik emango ote zioten oldoztu zuen, hiritik ahalik eta azkarren alde egiteko zuen asmoari muzin eginez une batez. Bizitza berri bati ekiteko garaia zen. Begiak itxi eta une hartatik aurrera iragana desagertuko zela erabaki zuen. Art Farmerren kantuan legez, erle guztiak lotara bidaltzeko garaia zen, *Sleeping bee.* Iraganik ez, ez leihoetan, ez eta espaloietan ere. Inork begiratzen ez dituen gauzak hil egiten dira, eta berak iragana burmuineko amapola landaketetara giltzapetu eta hara gehiago ez begiratzea erabaki zuen. Iragana kale bat baino ez zen, zer arraio, eta ertza jiratu eta kale hari begiratzeari uzten zionean, desagertu egingo zen, itzali, luzaro orrialde berean irekita egon den liburu bat haizeak astindu eta hertsi egingo balitz bezala, ira-

kurleak sekula gehiago topatu ezingo duelarik irakurketa utzi zueneko orrialde hura.

Zerua erabat lainotzen ari zen berriro, berunezko sukalde-xafla bat bailitzan.

Buruan hotz izugarria sentitzen zuen kapelurik gabe eta urtzen ari den izotzaren zarata entzun uste izan zuen bere garuneko katakunbetan. Beluna Moonera sartu zen azkenik. Kamarero guztiak berriak ziren han. Ez zuten Bob ezagutu. Horma batean, lehen ez zegoen argazki bat ere hauteman zuen: Dexter Gordonen erretratu bat zen, saxoa eskuetan zuela, eskuburdinez ezker eskura lotuta zeraman musika tresna. Oso argazki esanguratsua iruditu zitzaion. Honek bere iraganaren giltzapea sendotu baino ez zuen egiten. Garagardoa eskatu zuen billarrean ari zirenei begira, tapete orlegiaren gainean zegoen billarreko bola kopurua zenbatzeko tentazioari eutsiz.

Bi faltako ziren Piquerasena egia bazen.

Kopetan lau puntu zituen kameleoi gominadun batek atera zion edatekoa. Inguruko mahaietan sei otso eta tuberkulosiak jotako katu konkordun bat bereizi zituen, norbere garagar-

doan eztulka. Ez, katu hark ez zuen itxura onik, denbora luzez kutxa baten barruan-edo harrapatuta egona zen, nonbait. Piano baten barruan, nork jakin. Barran eserita, hiru hiena eta sator bat. Baziren ahots sudurkaridun amuarrain asmatiko itxurako pare bat ere, arrainontzitik hurbil, zer gerta ere. Lokalean zeuden gainerakoak Sumatrako orangutan arruntak ziren. Bobek biologia liburuetan irakurri zuenez, hauek hitz egiten ere bazekiten, baina ez zuten deusik esaten, beren abildadearen berri izanik norbaitek lanean jarriko zituen beldur zirelako. Hiria kristalezko zoo dardarati bat baino ez zen. Garagardo botila hatz urduriekin jiratu eta etiketan zaldi zuri bat ikusi zuen, bere nahasmendurako.

Sakon arnasa hartu eta kalera zuzendu zuen begirada. Kristalaren bestaldera begiratu zuen, apur bat lasaitu asmoz, sentsazio bortitz haiek guztiak kontrolatzeko soseguaren bila. Ilundu ahala, hiriko teilatuetako antenek jostorratzak ziruditela begitandu zitzaion: haizeak mugitzerik lortzen ez zuen ezpata iltzatu eta elektrikoak, sukaldean bilduta isilean Blay Oilarraren sobreko zopa merke eta proletarioa afaltzen zuten biz-

tanleei elektroshockak emanez hiria zentzatu eta arrazoiaren arrastoan sarrarazi nahi zuten iltze elektrikoak zirela teilatuetako haiek. Horixe bururatu zitzaion kristalaren bestaldean teilatuetako antena sarriak ikusi zituenean. Jostorratz mingarriak baino ez zirela haiek guztiak. Harrigarria zen hain akupuntura krudelaren aurrean oraindik teilatuak oihuka errebelatu ez izana.

Berrogeita lau zenbakiko zapatak janzten zituen oilo kalpargabe bat sartu zen Belunara, arnasestuka, bere aztoramenduan oihuka:

– Norbaitek su eman dio katedralari! Suketan da katedrala!

«Denerako jendea dago» izan zen Bob Ieregik egin zuen gogoeta, kopeta ezkatatsua azkuratu eta garagardoaren azken kondarra eztarriratzen zuelarik.

Handik hurbil, estazioko argi bakanen keinadapean, trenbidean infinituraino kokaturiko egurrezko trabes paraleloen arteko harri puskek, dortokek abandonaturiko oskolak ziruditen urrunetik. Merkantziazko saxo baten lantu luzea.

Tren batek –geltokiekiko itsu– biolentoki zeharkatu zuen hiria, ilunabarra fluorargiz ganibetatuz.